

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXVIII Zenbakia.

1 994

Uztaila-Iraila

AURKIBIDEA

Orr.

Esaerak eta esan naiak (Barruko azalean)	
Euskaltzaindiak 25 urte betetzean Batuaren arazoa.- Arrinda tar A	1
Euskera izkuntza jatorra, jakintsua, ederra.- Solozabal dar P.	5
Solozabal dar P'ren sarrera itzaldiari erantzuna.- Olazar tar M.	21
Euskal izenak Erdiaroko euskeran.- Latiegi tar Bixente	23
Arana tar Jose Ignacio Aita.- Albisu tar Anastasio	33
Apostoluen eta Martirien denborako Eliza.- Arranegi'ko Anes	35
Iru eskutitzei erantzuna- Latiegi tar Bixente	43
Mungialdeko esakera zarrak.- Legarreta tar Asier	49
Erraondoko txistularía.- Albisu tar A.	55
Erriari entzun eta bildutakoak.- I. Goikoetxea	62
Esaerak eta ezaupidea.- (Barruko azalean)	
Erriaren esaldi jatorrak.- Oñatibia tar Manu	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

ESALDI JATORRAK

Asmo orrek BERERIK BAT OTE DU GERO.

- Ez det uste BERERIK BA'DUANIK

- Erabatu sendatuta?

- OBETO NAGO, BAIÑA ORAIÑDIK EZ NAIZ ERABAT TAJUTU.

- BEGI-ZEARKA begirutzen du.

- ALA-OLAKO gizalkiak diridite.

- BIZKAIZ-BETIK eta BIZKAR-GAIÑETIK..

- Joxe BURUTIK ARIÑTZEÑ ASI OTE DEN...

- Zer ba?

- Atzo, kalean zeart bakarrlk zijoala, BERE BURUAREKIN IZKETAN IKUSI NUAÑ.

- Iya konturatu GABETAÑIK.

-- BEREALAKO BATEAN iritxi zan.

- Erriaren INGURUMAYETAÑ ibiltzen zan.

- JAIO ORDUKO ama il zan.

- ORAIÑDIK ORAIN...

- BAZTERRIK-BAZTER zebillen.

- BATEK BA-DAKI BOST.

- EGUN ORRATZEAN JEIKI.

- Beste ZERNAITARAKO

- Ez daki gutxi ONOKO ORRETXEK!

- BURUTIK EGIÑ ZAIK!

- ARA BESTE ARGI-ITURRI!

- Au da GAZTAREN EDERRA!

- MEÑDI-EGATZEAN abereak larrean.

-- Auetxek AO-BETEKOAK!

- ITZ-ASPERTU BAT EGITERA NATOR.

- Isats KIRI-BILDUAN MUTURRA SARTURIK.

- Eguerdi GALDATAÑ.

- Arroak ALENAK EZ BESTERENAK...

-- GOIZ-BERANDUKO IZARRA dirudi.

- GOIEÑ-ADARRETAKO LOREAK BILDU.

- ZEREKO ZER DENAK JAULKITZEN DIZKIT.



EUSKALTZAINDIAK 25 URTE BETETZEAN BATUAREN ARAZOA

25 urte dira Euskaltzandi berria sortu zanetik: Zaarkeriak utzi eta Gaztekeriak sartu. Ori izan zan Euskaltzaindi berri onen eginbearra. Aurreko 50 urteen lanak ukatu eta era berri bat, betirako, sortu.

Zelako girotan egin zan aldaketa eta iraultza ori agertu nai nuke eta orretarako Don Manuel Lekuona'ren aurka zabaldu zan agiri bat. Agiri ura artutakoan artean Jose de Artecheko idazleak gendukan bat. Ondoren, 1970'ko Dagonillaren 9'ko Zeruko Argian idatzi zuen lan au:

LOTSA GORRIZ

Gaur uztaillak 23. Karta bat ekarri didate goizean nere lantegira. Korreoz iritxi da. Donostian botatako eskutitz aztun xamarra. Ireki det. ¿Zer ote dakar?

Zazpi zortzi edo orrj aunditako idatzia. Ez dauka firmarjk. Erderaz esaten dan bezela «anonimoa», jzen-gabea, baiñan bere egillea aalegindu da, orj bai, idazki txukun bat ateratzen.

Guztiz apaiña da, eta ez diot au parre egiteagatik. egia esaten det, besterik ez.

Osoan ez det irakurri. Aurreneko orria bakarrik, eta au ere erdizka. Alde batetik firma gabe datorrelako, bestetik oso luzea, eta arrazoi guzien gaiñetik, ezin esan alako pena artu dedalako.

Gipuzkoar benetan agurgarri baten kontra dago egiña.

Agurgarria edadez, agurgarria jakitez, agurgarria berezikoitasunez. Eredu argi bat dan apaiz jaun batez gizatasuna ezereztu nai du «anonimoak». Au da egia.

¡Ai orrelako asko bagenitu Euskalerrian!

Ez naiz ni bakarrik idazki ori artu dedana. Beste batzuen eskuetara ere iritxi da. Miñez irakurri dute, nerekin itzegin dutenek beintzat. Eta aizkenean nik egin dedana egin nazkaz kartakin.

Ez det emen idazki ori ezerezteko asmorik. Iñundik ere ez. Esan det ez dedala osorik irakurri. Baste bat da nere asmoa.

Es dakit, eta ez det pentsatzen jarri nai nork idatzia dan. Ez det juizio txarririk egin nal. Gaiñera etzait batere inporta.

Baiñan «anonimo» orren egilleak lanean oso ondo daki. Esan nai det ondo eta txukun idazten ba dala norbait.

Ezta egun batean edo bitan egindako lana, oso astiro egindakoa baizik. Pentsatuta dago eta kostatu zaio berea egilleari.

*Aizkenean burua izkutatzeko. Ori da benetan penagarria.
Bañan utzi dezadan alderdi ori.
Auxe besterik ez nuke esan nai. ¡Zenbat eta zenbat alperrikako egiñaal ez
degu ondatzen!
Erremediorik ez degula esango nuke. ¡Zenbait aalegin txikikeritan!
Eta gaitzerdi kaxkarkeriak bakarrik balira.
Gure etxeko tellatuari arriak botatzeko afizio berezia daukagula ezin ukatu.
Gure gizonik aipagarrienak lokatsatu bear baditugu, gureak egindu.
Ni beintzat paper oiek irakurtzen ostean lotsatu egin naiz lotsa gorriz.
Tristurak jan bear ninduen...*

Jose de Arteche

«Zeruko Argia»: 1970 VIII 9'an.

Baña, ez zan Don Manuel bakarrik erasotua baita, Eizmendi'tar lñaki "Basarri", Franco'ren garaiko euskal-idazle jator eta ugarienetako bat. Ona zertzuk esan zituzten "Euskal Elerti 69" Bilbao-Donostia 1969. KRISELU-7-8-9 Hatsapenak-2 (Orrelaxe dakar liburuak), 547'garren orrialdean:

"Euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak
euskeraren eta Euskalerrriaren etsaiak direla
deklaratzan du.

Are gehiago negarreztatzen du batasun hori gonbatitzen
dutenen portaera, bereiziki Eizmendi'tar lñaki
"Basarri" jaunarena, zeinak Euskaltzaindiak
Arantzazun hartutako erabakiak
onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren,
bere itzari ez dion eutsten..."

Au idatzi zutenek bere izena ipiñi zuten aurretik: Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasola. Don Manuel'en aurkako idaz-lanak ez du izenik. Liburu au ez zan 69'an agertu, urrengo urtean, baizik eta aizkeneko orrialdean daude gauza oiek idatzita. Orrek esan nai du D. Manuel Lekuona'rena eta idatzi au garai berdiñekoak dirala.

Baiona eta Eibar'ekoa ziñu eta mezuak urte berekoak dira; Baiona'koa Pazko-igandekoa da eta Eibar'ekoa maiatzaren lenengokoa: 1970. Ziñatzalleak berdiñak dira.

Urte orretan bertan, 1970, Dagonillaren 2'an, Xabier Kintana'k idatzi bat atera zuen Zeruko Argia'n Baiona'ko billeraren berri ematen. Ona zertzuk dion:

"Bizkaitik gazte pilo ederra zegoen, andereñoak batez ere. guztiek esaten zutenetik hauxe geratu zan garbi: Lapurdiko liburuengatik ez bazen (Atsularren GERO famatu gatik hain zuzen),... ez zutekela ezertxo ere adituko... Gauza bat edo beste gaizki eginda egotea (izan diteke) baña horiek zuzentzeko... atzera bihurtzerik ez dago, zaharria zenbaitek hala nahi badu ere..."

Euskalkikeriak urrundu egiten gaitu eta frantsez edo espainolez balia erazi..."

Abarkak baztertu eta zapatak jantzi. ez dut uzte negozio ona denik inongo herritan abarkagintza..."

Azular'en GERO liburutik ikasi zuten euskera zenbaitzuk eta aren okerkeriak ere ikasi zituzten: (Zeñak, Zeren, latiñekotik artutakoak, zergatiak erakusteko. Latiñez QUI, quae, quod eta jenitivo Cujus erabiltzen da orretarako eta ortik dator Zeñak eta Zeren. Abadeek, latiñez ikasiak, sartutako okerrak dira eta Axular'ek ere erabiltzen zitun, abadea izanik.

Frantzia'ra joan ezker, an euskalkiek alkarrengandik urrundu egiten gaitu, eta gazteleraz itz egin bear. Orain, 25 urte beranduago, Batuari esker, ez daukagu Frantzia'ra joan bearrik. Emen bertan, batez ere Bizkai osoan ori berori gertatzen da guraso eta seme-alabaen artean. Batuari aintza eta esker ona; Frantzia'ra joan bearrik ez daukagu gazteleraz egiteko.

Abarkak baztertu dituzte zapatak jazteko eta abarkagintza ez da negozioa gaurko egunean. Ez orixe. Gaur Batuaren zapatak jazten ez ba'dituzu, Euskera ez zaizu 'negozio' biurtuko. Ez daukazu errapera urbiltzerik, zapatadunen baimenik gabe. Or gelditu bearke dezu zeure abarkatxoak eskuetan.

Zer zan Euskaltzaindiak Arantzazu'n erabaki zuena? Ona:

'LITERATURA EUSKERAREN BATASUNARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN AGIRIA'.

Arantzazuko billeren ondorean, han izan ziran euskaltzainak elkarturik argi-bide hauek eman zituzten...

2) H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdinean nahiz ezberdinen artean erabiltzen astea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango...

EUSKALTZAINDIAK
Arantzazu-Oñati, 1968
urriaren 5-ean.

Bilbon, 1079-eko Abuztuaren 6-an.

Zeruko argia'n agertu zan idatzi au il orretan berta, XXXI-garren urtea 392 zenbakian. 1970'ko urtea izan zan Baiona eta Eibar'ko ziñarena, Don Manuel eta Basarriren aurkako idatziak, Kintana'ren agerpenak eta oraingo Euskaltzaindiaren agerpen au...

H'a bi bokal berdinean naiz ezberdinen artean 'begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak erabiltzen astea'. Orrela, bi bokal berdinean eta ezberdinen artean H erabili ezker, idatzi guztiak H'ez bete bearke litzazke.

Baña, aurrerago joan nai dutenak ere, ondo ikusiak izango dira. Beraz, ipiñi ditzagun H'ak aurretik eta atzetik eta orrela ez du arazo onek amaierarik izango. Orregaitik izan dira ainbeste naaspilla idazleen artean. askoren lanak torrez beteta agertu izan dira; H bakoitzak torre bat, petroleoa ateratzen ari diran landa oietakoen antzera. Zenbat alperrikako lan! H'ak salbatu duela euskera esateko, aurpegia bear da.

Urte orretan, 1970, ikastoletako zenbait andereño ez ziran lo egon. Kintana'k esan zigun Bizkaitik gazte asko izan zala Baiona'n; batez ere, andereñoak. Loolako Agiria atera zuten plazara. Onela diote:

- .. a) Arantzazuko arauak, erabakitzat hartzen ditugu eta batasunaren bideen oinarritzat...
- c) Liturgia taldearen batasunaren bidea ez dugu geuretzat onartzen...

Loiolan, 1970.
I KASTO LETAKO IRAKASLEAK".

Erabaki onek ondamendia ekarri zigun Ikastoletako liburu arazoan. Millaka ta millaka liburu eder, bost mailletarako atera ondoren, margo eta marrazkiez beterik, or dauzkagu oraindik usteltzen, H'rik erabiltzen ez dutelako.

Urteak pasatu dira, atzera martxarik ez dutela esan digute bein eta berriz (Biscuter auto txiki aiek ziran atzera- martxarik ez zutenak) eta or dabilta batera ta bestera. Bitarte onetan, 1989 Uztaillaren 30'ean, la 20 urte berandua-go, onela zion Federico Krutwig euskaltzaiñak Gaur-Express, El suplemento, aldizkarian:

"EL BATUA NO SIRVE PARA NADA

... Sí, sí, porque el batua no sirve para nada y la verdad es que se está desanimando la gente. Muchas regiones en que se habla bien el vascuence, el chiquito llega hablando batua y el padre empieza a pensar: me están engañando, ésto no es euskera... el batua se ha convertido hoy en la lengua de los que no saben hablar vascuence. Y no tiene más que mirar la forma en que se da el título de EGA a un profesor. Ese título no da noción más de lo que sabría un niño de diez años y si un profesor está hablando a los chicos y habla peor de que ellos..."

Finis coronat opus.

Arrinda'tar Anes'ek.

EUSKERA IZKUNTZA JATORRA, JAKINTSUA TA EDERRA

Mungia'ko Billela Torre Kultura etxean, Euskerazaintza'k eratuta,
eta Akademi orretako euskerazain lez, egin neban itzaldia,
1994'ko Orrilla'ren 281an.

Itzaldiaren sarrera eta azken zati lez abestutako bertsoak

AGUR

Ondo etorri andre ta gizon
amaren itza artzera,
seme alaba leialak legez
eztia xurgatutera;
danetan eder eta jakintsu
dogu-ta gure euskera
arbaso arek izarrak ziran
ixuriz euren izkera.

ABESTIA

Santimamiñe oroitu nai dot
arkaitz barruko abia,
inguru dana ota ta sasi
egon zanaren aldia;
era orretan ikusi eben
euren bizitza larria,
goian zerua ta beian lurra
sasitzaz, gogor, josia.

Eskuak utsik, dana eiteko,
urdailla deika gosez,
a zan, bai, a zan ikuspegia
goitik beraiño arduraz;
lenengo itzak aita ta ama
eurekin erabiliaz,
izkuntz eder bat zabaldu eben
euren artean euskeraz.

Egunak joan eta etorri
bizitzaren inguruan,
lenen lenengo, eiztariak lez
ibili ziran munduan;
biotza sutsu, burua argi
agertzen eben goguan,
jakituria euken berbetan
euskeraren mai buruan...

EUSKERA IZKUNTZA JATORRA JAKINTSUA TA EDERRA...

Ze ingurutan sortu zan Euskera...?

Jatorra dan aldetik, lurralde ontan sortu zan. Ez zan uri leun eta ikastetxe aundietan jaio. Berezi, mendi ta arkaitzak artu eben euren babespean, ta ortxe, botako zituan bere sustrai sakon eta indartsuak. Izan bere, alan Izan bear eban ainbeste etsai amorraturen gorrotoari eutsi eragin al izateko millak urteen joan-etorrian.

Ernaniko plazan izan zan. Bertsolariak ziran Ernanin. Lenengo bertsolariak abestu eban:

"Asitzera dijoaz predikadoriak,
sekula ixtudiatzen ibili gabiak".

eta bigarrenak erantzun eutsan.

"Batek ainbat deretxo
daukagu guk biok,
gure kolektivak
sagardotegiak".

Gauza bardiña baieztu eban Juan Antonio Mogel abadeak Peru Abarkaren aoz: Euskal kulturaren lkastola Nagusia "Basarte" zala; au da baserria. Izkuntza jatorra, jakintsua ta aberatsa nai dabenak, baserrira joan eta antxe, aurkituko dau bere guraria asetzen daben izkuntz edertasuna.

Euskera jatorra ta aberatsa nun? Galdera oneri erantzuteko guk be, zurtasun bidetik ba-gabiltz, bardin esan bear dogu. Euskeraren benetako jakintsuak baserrian dagoz. Izkuntza onen jakituri, zertzelada ta zirkillu guztien iturria, antxe, dago.

Nora joan bear dabe, euskera eder baten, zarta zarta ta parra parra, itz egin nai idazten ikasteko? Edateko uraren billa, iturriira joan bear da. Euskera ederraren billa gure baserri aintzatsuetara, antxe, dagoalako gure ama izkuntzaren sort-iturria, garden ta aberatsa, asebeta.

Erdal-erri ta erdal izkuntzetan bestera izan da. Erdera, ondo, menperatu, izlari ona izan ta idazlari ohea izateko, liburu iaioak irakurri ta irakurteko agindua emon oi da. Ekin ta jarrai, beti, irakurten, norberak gatzik ba-dauka beintzat, idatz tankera artu artean. Arau arrunt arrunta da au erderazko idaz-ikaskizunetan.

Euskeraz ostera, beste era batera jazoten da. Idazle jatorrak, ondo, ta gauza aundizat artzen dira, baiña orrez goitik, "Peru Abarkak" diñoanez, baserriarrak, basetxeko ama gorulariak, euskal ferietako bei zaltzailleak, orrek dira euskal izkuntzaren klasikoak, jatorrak, itza gogoz eta jakituriz euskera plazara atara nai dabenak. Euskera osasuntsua, bizia ta jatorra gure baserrietan bizi izan zan, ta gaur bere, euskara joria, antxe, entzuten dabe gure belarriak.

Arazo onen argibidea oso erreza da. Erderak, nai dala gaztelera, nai dala prantzezera, literatura ugari ta aberatsa dauka, eurek urteen joan-etorrian, landu ta edertutakoa, ta batez be, latinetik amaren jatorriz artutakoa. Euskal literatura

edo elertia, oraindiño, ez dago osotuta. Gure literatura edo elertiak ez ditu jaso euskereak bere kolkoan daukazan ondasun ugari ta pitxi bereziak. Edergallu onek, batez bere, gure baserrietan dagoz ta ara eltzen garanean, gure belarriak gozotasuna ta itz joskera ta esaera aberastasuna asmetan dabez.

Berba eder, esakera jator, joskera bikain asko, or, dabiltzaz, euren eskuko, miñetik miñera ta belarritik belarrira gure klasikuen liburuetan sartu barik. Etorri, agertu ta ugarituko al dira euskal literato edo elertilariak millak urteetako izkuntza arrigarri au apaindu ta osotuko dabenak. Zeregin eder au osotu bear da gure erri barruan, batean bestean, dagozan, aoz aozko, bitxi ederrak batu ta euskal idazti edo liburuetan jarririk. Lekuonak diñoanez, edertasun asko dago batu bearrean ta gure literatura edo elertiar aberastasuna emoteko bidean.

Emen esan dogunaren argibidetzat, adibide bat jarri daigun. Gure Aita Mendi-buru berak, napar euskaldunak, aurre-izki "bait" naparra izan arren, iñoz, ez eban erabili liburuetan. Ezta Aita Kardaberaz berak be. Ta oindiño geiago, Aita Larramendik be ez dau aitaututen bere gramatika ospetsuan.

Gauza berbera jazoten jaku euskaldunoi -caso- deiki vocatibo jatorrarekin. Maritxu, nora zoaz eder galant-ori; Iturrira, Bartolo, nai ba-dozu etorri... Axularrek berak be ez dau erabilten bere liburu eder bikaiñean, ta aozko literatura edo elertian, txiten pitean, noz nai erabilten da. Gure idazle aundiak ba, ez eben ezagutzen, antza, euskal bokatibo panparroi ori, edota ez eutsen ainbeste garrantzirik emon.

Gauza berbera esan bear dogu euskal syntaxisean "elemento inquirido" esaten jakon syntaxis aruari buruz. ez dabe ezagutzen gure syntaxiaren urregorrizko arau bizi ori, esaeren joskereari dagokion arau ori.

Egia da esaerearen itzak, berbak, ondo, josten dituela, baiña joskeraren teoria bear dan bestean ezagutzeke, ta olan, nozean bein, txirristada nabarmenak egiñaz.

Euskal klasiko aundietan euskera dana ez dala aurkitzen diñogu: baiña badago beste zerbait okerragorik be. Esaterako: zeren, zergaitik ze, ain ederra ze... etab., etab...

Aldi aretan izan bere, erdera ta latiñerara loturik, euskeraz idazten jardun eben. beste alde batetik, eurak asi ziran euskal literatura edo elerti bideak urratzen. Gizon onen argi-buru edegietan asi zan ba euskera bere izate ta bizitzara sartzen. Euskalerrriak zor aundi bat dautse gizon argitsu ta langil onei, gure alkar ulertzeko era ezaguterazi, zabaldu ta edertzen asi ziralako. Inguru zailletan lan egin eben, baiña izarrak, aulkitik, argi egiten dau bere ingurura.

Neure gazte aroan belarriak minduta euki nituan euskera -dialekto- izkelki bat zala entzuten. Ori esaten ebenak euskerearen etsaiak ziran, ta etsaiak, sarri, ez jakiñiak dira.

Gaur, emen, ikusi nai neukena da, euskera izkuntza jatorra dala. Mendi, arru ta zelai-arte onetan gure arbasoak alkar ulertzeko sortu eben era arrigarria.

Erriaren ezaugarri sakon bat bere izkuntza da, ta gure erriarentzat euskera. Baiña jakituri inguruan argituta ibil gaitezen, galdera au egingo dogu. Euskera izkuntza jator bat da ala beste izkuntza baten dialekto edo izkelki bat...

Euskera dialekto - izkelki bat dala esaten ebenen miñean, euskera españeraren alaba dala esatea zan. Baiña, olan, izatea nai ebenen asmo bigurri ta zorakeria, ondo, ezereztuta geratzen da, ondoren ikusiko ditugun argibideen bitartez.

A.) Euskera, erdera edo españeraren ondoan, askoz zarragoa da. Erdera milla ta bosteun urteren inguruan dabil ta euskera, ostera, amar amalau milla urte direla Santimamiñen bizi zan. Ba dago alderik...

Beste alde batetik alabeak, beti, izan bear dau amaren antza, ta au bidezko ta egokia da. Baiña euskera ta gaztelaniaren arteko aldeak ain dira arrigarriak jakintsuek diñuenez...!

1) Gure inguruko gaztelaniaren, katalanaren ta galleguaren gupilletik kanpora geratzen da euskera.

2) Bardin baita be, latin jatorriko izkuntzak diran prantzez, italiano eta rumanoren gupilletik kanpora gelditzen da euskera.

3) Geiago oraindiño: Aleman, Griego, Baltiko, Kaukasiko, Eslabiko ta Indiaren izkuntza kurpilletik kanpora daga euskera.

Egoera onen adierazgarri, esaera au entzuten da izkuntzarien aotik: "Euskera izkuntza isla" dala.

Gai au geiago argitu dagigun.

Ba-dakigu baita bere, Euskera, katalan ta Gaillegua erderaren dialekto edo izkelkiak direla, zergaitik esaten daban: Berbetea edo izkuntza izatea ta "Izkuntza Originala" izatea, alkarrekin nastetan dituelako eta era orretan izkuntza ofizialak ez diranak, izkelki edo dialektotzak artzen ditut... Estadu baten barruan Izkuntza ofizialaz gaiñera, beste izkuntza batzuk egon leitekez, Errialde Izkuntza deritxoenetakoak... egiazko izkuntzak diranak Euskera, Katalan, ta Gaillegue diran legez.

Ba-dogu beste arazo bat gure artean euskera izkuntzari buruz, au da, zentzun geiago barik, edozein erdel itz erabiltzea, ta ortik atera gero erderearen alabea dala. Min arin, buru bero ta biotz anker zapaltzaillea bear dira ortarako. Leukuona jaunak diñoanez, barbeta baten bizitzarako, berben erdel usaiña artzeari baiño, geiago, begiratu bear jako barbeta beraren joskerari joscereari... gure kasu ontan euskera, gure izkuntza ederraren joscereari; argitasun bidean sorturiko gramatika bat bear dala bere fonetika, morfoloji ta itz joskeraz. Gure arbasoak, curen argitasun, izaera ta inguruari begiratz, izkuntza jator bat sortu eben. Ez euken beste iñoren nasterik. Alkar ulertu bear ziran.

Ta geldi geldika, euren izaera, itxaso, mendi gallur, arru eta lauetara begiratu ta inguru arek lantzen zituen bitartean, atera eben, eurentzat sortzeko egon izkuntzarik ederrena: Euskera... Andre ta gizon arek etziran ibili atzerriko gauzen eder-miñez. Etxera begiratu ta euren sor-lekuan aurkitu zituen alkar ulertzeko erarik ederrenak. Ederrez eder, arrizko jatorrizko bitxi eder au sortu ta landuta emon euskuen euren izaera, jakituri, odol ta maitasun guztiaren ezaugarri, nor garan ta zer garan jakin dagigun biziaren gizaldi ta gizaldietan.

Orain amar millaak - amalau milla urte gura arbasoak emon euskuen, itzez itz, bitxirik joriene, bakarra, berezia, bikaiña. Orduan ez egoan libururik, geroago sortu ziran elizti edo gramatikak. Erderazko gramatika ta gura elizti edo gramatika oso alde aundikoak dira. Ortik agertzen danez, ardel giroko gizonak ta euskaldun seme-alabak, euren gogo ta barne izatean, berez, guztiz ezbarðiñak dira.

Ortik agertzen dana da, guztiok gizon izenean bardñak ba-gara bere, lurra, egialdeak ta jende taldeen jokabideak, buru-azur ezbarðiñak, sort-erroak emoten deuskuezan bereiztasunekin, euskaldunak gramatika be, bere tajukoa sortu dau, erderazko gramatikatik ezbarðiña. Au gauza berezkoa da erri jakitunarentzat.

Erderazko gramatika aurre-itiz zalea da, ta euskera ostera atzizki zalea. Onek agertzen dauna da gogo-barne ezbarðiñekoak direla erdelldun gramatikalaria ta

euskeldun eliztilari - gramatikalaria. Biak errespetagarriak, baiña biak ezbardiñak, biak gizonak egiñak, baiña biak gizon barru ta gogo ezbardiñekoak egiñak. Biak agertzen dabe gramatikolari trebeak direla, baiña edertasun usain ezbardiñeta-koak.

Ona emen, adibidea, esandako onen argibidetzat. Los hijos traen buenas noticias a los padres. Semeak barri onak dakartzez euren gurasoei... Erderaz, hijos izenaren aurretik artikulo los - doa; euskeraz ostera, izenaren amaieran doa seme-ak. (Traen buenas noticias a los padres... a los padres aurretik doa; euskeraz barriz, atzizki biurtuta doa - barri onak dakartsoez gurasoei).

Sintaxix edo joskeran, bardin bardin, jazoten da. La fruta rica del arbol... Euskeraz: Zugatzaren igali gozoa. Gauzak atzekoz aurrera idatzita geratzen dira izkuntza biotan. Norena da igali gozoa? Zugatzarena. Euskalduna, ortik, asiko da esaten, argi argi, geratu dedin izkuntza aria.

Izkuntza ain ezbardin bi ezin izan daitekez ama kutun baten alaba ta ezta senideak bere. Bakoitzak dauka bere sorrera, sena ta izaera. Euskera beintzat oso jakintsua da. "Izkuntza isla".

Euskera ez da dialekto edo izkelki bat. Au ikusi dogun ezkerro, orain, zerbait geiago argitu daigun jakintzaren argitan.

Lentxoago esan doguna, kontuak izanik, izkuntzalariak euskerari buruz diñoena, gogoan, izan daigun: euskerak ez daukala beste iñungo izkuntzarekin aidetasunik. Euskera izkuntza berezia da, "Izkuntza Isla".

Gure inguru ditugun beste izkuntza batzuk - Gaztelera, Katalan, ta Gaillegue latiñetik sortuak dira; beraz, latiñaren semeak dira ta latin da izkuntza onen ama. Latiñaren semeak dira baita bere Prantzeza, Italianoa ta Romanoa. Latiña da euren sort-iturria; ori dala-ta, beste izen polit bat esaten deutse... - ERROMAN-LEAK ...erromatarrengandik artu dabelako euren bizitza barria.

Euskera ez dator latiñetik. Ori dala-ta, Gaztelera, Katalan ta Gailleguagaz ez dauka zer ikusirik. Erromantza guztien artean gure euskerea bakarra, berezia ta jatorra da, ta beroneri dagokion izena "izkuntza Isla da".

Baiña aitatu ditugun berbete orren artean ez da amaitzen euskeraren nortasuna, bere berezko izatea. Euskerak ez dauka zer ikusirik Indiatik asi ta Europaren sarkalderaiño zabaldu ziran berbete edo izkuntzekin nai dala Aleman, nai dala Ingles, naiz direla Errusi-Eslabikoak, Danesak, Kaukasikoak eta abar. Danen artean euskera Izkuntza Isla da.

Gai onetan izkuntzalarien eretxia, gaur, au da: euskera izkuntz preindoeuropearra dala, gaurko indoeuropea familia sortu baiño urte askoz lenago, Indiatik Europa sarkalderaiño bizi ziran izkuntzetariko bat. Ta aretariko geienek ilkeran, Ungria ta Finlandiako izkuntzekin batera bizirik gelditu zan, itxasoko ekaitz artean euzko arrantzalea bizirik gelditu zan antzera. Pirinai mendi ta gaiñerako mendi, arru ta zelaietan bizirik gelditu zan Europa guztiko "Izkuntza erliki" lez da euskera. Emengo linguista edo ele-jakintzalariak ta Etnolojia edo endaiztiaren arazoan gilitza, bere baitan, daualarik.

Auxe da gaur egunean, izkuntzalariak gure euskerari buruz dauken eretxia. Emen, inguru ontan, orain millaka urte mintzatzen zan edo berba egiten zan Europako izkuntza bat dala ta beste inguruko guztiak galduta, Majiar eta Finesa lagun ebazala, galzori orduan, bizirik gelditu zana. Ta egia esan, epaitzerako orduan, auxe autortu bear dogu izkuntzalariekin batean: Inguruko izkuntzekin, iñoz, ez dabela izan euskerak senidetanusik. Euskera izan da gure arbasoen sor-kunde jakintsu ta arrigarria.

GEOGRAFIAZ...

Euskera sort-iturritz ta bizi-lekuz europarra da ta ez dauka zer-ikusirik gaurko indoeuropear Europako izkuntzekin, ez Ingles, ez Aleman, ez Griego, ez Errusi ta ez Kaukasiko ta ez Baltiko izkuntzekin. Euskerak ez dauka gurasorik izkuntzen artean geure arbaso izkuntzalari trebeak baiño besterik. Areek izan ziran zeruetako izarrak, erri berezi bat sortu ebenak, egitez, oituraz, odolez ta izkuntza bitxiz. Euskerak izkuntza legez ez dau seniderik; aizkideak bakarrik. Ta ori dala-ta, ba-ta-besteari ezarri dautsez euren kutsuko berbak.

Baiña onek ez dau ezer esan nai euskeraren sorrera ta Euskaleria sortuz, lur onetan izkuntza ain ederra zabaltzearen aurka. Euskera bera da bere buruz argi ta garbi, arkaitzak legez sendoa, itxasoa legez urdin ta aratza.

Euskalduna ez da barritsua, ez da buru ariña, ez da azalkeri zalea, ta ortik uste izan leiteke euskalduna barru-itxia ta norberekioia dala, baiña ori guzti ori gurtetako ez dago begiratu baiño zenbat eta zenbat euskaldun seme-alaba joan diran mundu zabalera bizitzako egirik aundienakin gizadia argitu ta askatzera.

Euskaldunak izkuntza sorkean, berbetarako, aurreko lagunari begirune aundia izan dautso. Nork nori berba egiten dautson, ondo, konturatuta, berbeteari aberastasun ederra emon eutson. Bizkai ta Gipuzkoa, biak maisu aundiak dira, era orretan berba egiten dabenean. Gizonezkoak gizonezkoari, andrazkoak andrazkoari, nai gizonezkoak andrazkoari ta andrazkoak gizonezkoari norbere adiño edo sasoi ingurukoari, berarizko alkarrizketa giroa sortu eben.

Kaixo Patxi, nundik nora izan az denboraldi gogor onegaz? Erbi billa urten joat goizian goiztar, Peru. Baiña alperrikoa izan dok nire lan guztia... Txomin eta Praisku joan dituk, dozak, ni baiño lenago ta Sollube mendiko txararik nagusienan erbi bi ta iru ollogorregaz aurkitu jituat.

Emen entzun ditugu, guk euskera ederrean esaten ditugun aditz-joko eder batzuk. Nora izan az...? Erbi billa urten juat... Baiña alperrik izan dok... Txomin eta Praisku joan dituk ni baiño lenago... Erbi bi ta iru oillogorregaz aurkitu jituat...

Andrazkoak andrazkoagaz —Ika— berba egikeran, gozotasun onegaz jardun oi dabe euskera berba egiten dan tokian, gaur, egunean be.

Kaixo Mari Katalin, aspaldikoa...! Au don nire poza i ikustean... beti nengonan pentsetan, nundik nora ete enbillenan, nire antxiñako lagun zarra...

Ba, dakin ba, bizitzako gora-berak, olantxe, izaten ditun, ta bizi-modua ateraten, al dan era onenean, mirabe ibili non urriñetako erri alde baten.

Mainttoni, zer deritxon ango bizi-modu, berbeta ta lagun arteari...? A...! Euskalerriaren biotza don erri eder a.! Guztiak euskeraz egiten jone... Atsegiña don euren berbeta entzutea... Ez egin uste izan erri txikia danik... Millak lagunak jaukenaz ta danak ao batez, gure arbasoak sortu eben izkuntza, garbi garbi, aberats ta ederra egiten jone.

Mainttoni, ba-dakin enbidi pizkat emoten deustenana...!

Ara, Mari Katalin... eure gogoa ba-don, erri artako berbeta edertasuna entzun ta ikasi ta Euskalerriaren barri jakitea, edozein egunetan joan giñaikenaz olako gure euskal jendetza eder bat ezagutzera... Zorionekoa don, izan bere, euskal sena ta arbasoen izkuntza jatorra, era orretan, zaintzen dituenen erri berezia. Nai donanian, joango gaitun ta aurrezaz, aditzen emon egiztan.

Emen, ikusten dogunez, gure arbasoen inguru arek ikastexe Nagusia zirudian, euren berbeteari ainbeste gatz ta jakituri atara erazoteko. Gizonari ta andreak euren erara, mutil gazte ta neskatillari bere euren sasoiaren erara berba egitea ...au Gorbea mendiko lorea dala dirudi. Almena ta artea bear dira orretarako, ta arek, egiz, nai izan eben erri jator bat sortzea izkuntza arrigarri bategaz.

Jakituria dario ba alderdi guztietatik gure berbeta-ele ederrari.

Emen, ikusi ditugun aditz-joko ederrak gogoratu daiguzan:

Esaterako: Beti nengonan pentsetan: -nengoan...

ba-dakin ba - Ba dakizu ba.

Atsegiña don... Atsegiña da.

Ez egin uste izan - ez egizu uste izan.

Mainttoni, ba-dakin ba - ba-dakizu ba... Berbeta ederra egiten jone:

Berbeta ederra egiten dabe.

Eure gogoa ba-don... zure gogoa ba-da...

Joan giñaikenaz ...Joan giñaikez.

Gizaki baktxari bere generata urtien sasoiatarara begiraturik, berba egitea, ez da edozelako jokabidea. Ori da pertsona bera dan lez artzea ta izkuntz aldetik jakituria ta aberastasun ugaria. Mendi, arru ta soloetan lan egiten ebenak, olanxe, agertu eben nortasun berezia.

Sintaxis edo joskera aldetik be ba-dau gure izkuntzak bere irakatsi ederra. Erderaz eta lateraz, esaterako, era onetan egiten da esaera baten joskerea... Pedro trae manzanas para casa con su compañero Juan. Au da lenengo egillea, bigarren aditza ta ondoren osagailluak.

Euskeraz osterata, beste era batera jokatzetan da... Nork egin dau adierazi nai ba-dogu... Egilleagandik asten gara. Jonek sagarrak ekarri dautsoz anaiari...

Zer ekarri dau adierazi nai ba-dogu... Sagarrak ekarri dautsoz Pedrok anaiari... esango dogu...

Nori ekarri dautsoz sagarrak esan nai ba-dogu... Joni sagarrak ekarri dautsoz Pedrok esango dogu...

Au ez al da gauza ederra ta berbeta azukrea lez esku artean erabiltea...?

Aditza izkuntzaren ardatza, beti, joango da esakeraren punta punta nagusian... Zer ikusi dau esan nai ba-dogu... Pelota partidua ikusi dau Pedrok Mungiako pelotata toki ederrean, esango dogu. Au da, egiz, jende zurrak sortu eikean alkar-izketak era berezi iaioa.

Gertatu leiteke baita bere, "elemento inquirido" edo galdekizuna aditza edo berbo berbera izatea... Ta oni bere erantzun on bat emon dautso Euskerak... zer egin dau aitak pistia ikusikeran?

Ta semeak erantzuten dautso... Aitak pistia ikusikeran, atxurra artu, jo eta il egin dau. Ta euskerea biribil biribil geratu da.

ERAXKUNA - EZARRIA

Auzo-izkuntzak bata-besteari euren abotsak ezarri dautsez. Aundiak geiago txikiari, baiña txikiak bere bai aundiari al izan eban eran.

Izan batzuk gogoratu daiguzan.

a) Greko kutsuak

Artzos = euskeraz Artza.

Artos = euskeraz arto

Aren = euskeraz ari

Aitia - causa = euskeraz aita.

Sidiros = Burdin... Euskeraz zidar, zillar.

Argiros = Euskeraz argi, ditzizari.

Polites = Euskeraz Polit...

B) Latin kutsuak

Fagus = Euskeraz Pago, pague.
Ficus = Euskeraz piku, iko
Ceresia = Euskeraz Kerizie...
Marrubium = Euskeraz Marrubi...
Malleus = Euskeraz Mallu
Aculeum = Euskeraz Akuilu
Sartago = Euskeraz sarten
Ferratum = Euskeraz Perratu...
Katena = Euskeraz Katea
Tagula = Euskeraz Teilla
Corpus = Euskeraz Gorputz
Lex = Euskeraz Lege
Pax = Euskeraz Pake

D) Arabe kutsukoak

Almud = ale-neurri Euskeraz almute.
Soko = Euskeraz azoka

Gazteleratik kutsatutako euskal itzak amai bakoak dira; baiña, gaur egunean, dagon kezka ta zaletasunak erdel itzak eta esakerak euskal antzeko amaieraz esan ta josteaz euskeraren amiltegiara garoaz.

E) Orain euskerak gaztelaniari kutsututako batzuk aipatuko ditugu.

Euskeraz -bildur: erderaz bildur, temor.
Euskeraz asmatu: erderaz asmar...
Euskeraz burruka: erderaz buruca.
Euskeraz anka, zanko: erderaz anca, anco
Euskeraz Altxa: erderaz alzar
Euskeraz bota: erderaz botar
Euskeraz zintzarri: erderaz cencerro
Euskeraz Zakar: erderaz cazurro

Berba onek euskaldunak diranez, euskeraz geiago erabilten dira.

Orain arte, azaletik, ikusi dogu gure Izkuntz-berbetea esango leuke Lekuonak... orain barrutik ikusi dagigun. Edozelan bere, azalez ta barruz, gure erriaren edergallu bat da Euskera.

1) Berbeta aglutinante, itsaskor, alkartzaillea izanaz, lztegiari aberastasun aundia emoten dautso; berba bigaz bat eginik, berba trebe-tekniko bat sortzen dau euskaldunak.

Itz trebeak sortze bidean, bere ortarako erreztasuna-gaitik, Griego ipini oi da-be nagusi legez. Baiña, gure ORIXE jakintsuak esan oi eban, euskerak ez eutsala beste izkuntzari ezer zor itz ederrak sortzerakoan. Esaterako: Buru-azur; bizkar-azur. Bigaz bat egiñik dagoz ta benetan euren soiñua, guztiz atsegin, artzen da-be belarriak. Au gure arbasoen berbetarako jakituriaren teknika edo trebetasun jatorra da.

Osagilleak erabil oi dituen gaisoari buruzko itz trebeak, ia danak, Grekotik artuta erabili oi dira: Hemorragia = rompimiento de sangre: hemotisis = derrame de sangre... Hemoglobina = glóbulos de sangre: craneotomía = corte del craneo... Euskeraz ain errez esan leitekez...: Hemorragia = odol lertze... Hemotisis = odol ixurtze ... craneotomía = burezur-ebaite...

Gure izkuntzak daukan erreztasun ori, grue arbasoengandik dator. Arek emon eutsen izkuntzaren senari, berbak alkar ezarteko berezko doia, ta ortik jakiturizko berba ederrenak sortzeko grazia.

2) Izkuntza aglutinante edo alkartzaille izateak, euskerari emoten dautson erreztasuna ta edertasuna, aditzari buruzkoa da. Edozein berbatik aditz bat sortzeko erreztasuna esaterako.

Euskerak naiko dau "du" "tu" bat izenari ipintea, aditz eder bat sortzeko. Esaterako: gizona, gizondu; andrea = andratu. luze luzetu, eder edertu.

Ta izena atzizkiagaz eratuta dagoanean be, bardin, egiten dau... Esaterako: etxeko = etxekotu; ta bardin, etxera bergiagaz be etxera = etxeratu. Mendiko = mendikotu... Etxera etorri da... Etxeratu da... Mendiko sementa mendikotu da... Onak ez dau esan nai tototu egindanik; mendigoizale, gain zabal ta argizale egin dala baiño.

Euskeraren jatortasunik aundiena bere aditz edo berboan dago. Aditza jakintsua da, aditza aberatsa da, esan-aldiaren zertzeladak bere baitan, barruan, ar-tu, gorde ta azaltzen dituana.

Aditz joko, aditz edo berboak esan nai dauana egitea da. Erdera ta latin izkuntzatik datozen izkuntzetan iru esateko bakarkakoak dira ta beste iru esaera askokoak, au da, iru singular eta iru plural. Yo, tu, el; nosotros, vosotros, ellos. yo traigo, tú traes, él trae, nosotros traemos, vosotros traéis, ellos traen. Ta late-ratik sorturiko beste izkuntzetan be, bardin dira sei kasu.

Baiña au da arrigarria! Jakintsuen egiña dala, argi, agertzen dau Euskerak. Erderazko sei kasu orrek, iru bakarka ta iru askoko, euskeraz bere, bardin, dagoz. Nik dakart, zuk dakarzu, berak dakar; guk dakargu, zuek dakarzue, eurak dakar-te.

Baiña dakarren gauzea ugaria ba-da, aditza be guztiz ezbarðiña da... Esate-rako: Nik dakardaz, zuk dakarzu, berak dakar, guk dakarguz, zuek karzue, eu-rak dakarrez.

Ta onez gaiñera non ekarten jakon aditzen emoten danean, gure aditzak bes-te era bat artzen dau. Adibidez: Nik dakartsot, zuk dakartsazu, berak dakartso; guk dakartsogu, zuek dakartsazue, eurak dakartsoe.

Ta gauza asko ba-dira ekarten jakozanak, gure aditza, oraindiño aberatsago egiten da...

Sagar asko dira esaterako:

Nik sagar asko dakartsodaz andoniri; zuk sagar asko dakartsozuz, arek sagar asko dakartsoz, guk sagar asko dakartsoguz, zuek sagar asko dakartsozue, arek sagar asko dakartsoez...

Konplemento askoko = plural = gauza bat ekarri edo gauza asko ekarri, gure aditza geroago ta aberatsago egiten doa...

Nik erritarrei barri on bat ekarri dautset.

Zuk erritarrei gauza on bat ekarri dautsezu.

Arek erritarrei gauza on bat ekarri dautse.

Guk erritarrei barri on bat ekarri dautsegu.

Zuek erritarrei barri on bat ekarri dautsezue.

Arek erritarrei barri on bat ekarri dautsee.

Konplemento asko. plural = danean ta gauza asko ekarri, aditza gero ta aberatsago egiten doa.

Nik lagunei gauza asko ekarri dautsedaz.

Zuk lagunei gauza asko ekarri dautsezuez.
Arek lagunei gauza asko ekarri dautsez.
Guk lagunei gauza asko ekarri dautseguez.
Zuek lagunei gauza asko ekarri dautsezuez.
Areek lagunei gauza asko ekarri dautseez.

Munduko izkuntzalari jakintsuen artean arrimena, beti, izan da Euskera. Izan bere, ainbeste zertzelada, ainbeste aberastasun dauan aditzik ba ete da munduan? Bana-banako izakeraduna da euskalduna, ta ortik sortu dau izkuntza berezia, iaioa ta ederra.

ATZOTITZAK... ESAERA ZARRAK

Atzotitzak, esaera zarrak, mundu zear, berez, dabiltzaz. Personearen senak eskatzen ditu olako oroimen jatorrak giza-bizitza zelan izan dan agertzen dabena. Gure erriak be, oso, esaera iaioak sortu izan ditu bere bizitz giro lanpetuan naiz zoriontsuan.

"Bedar gaiztoa galtzen gaiztoa".
"Etxetik urrun zorionetik urrun".
"Orratzetik arakue".
"Mendian jaiok mendira nai".
"Ez da gerizpe bako arbolarik".
"Maire ba-da balie lez, ta lanera ba-da, barie lez".
"Udabarrian lur guztia erne-min".
"Maietza urtearen giltza".
"Zelango aurtzaroa alango ustaroa".
"Ori da niretzat orpoko arantzia".
"Odolak su barik diraki".
"Nori berea da zuzenbidea".
"Len ibili ba-nintzan oin legez, oin ibiliko nintzan len legez".
"Gizon asko ta prakadun gitxi".
"Gorputzaren leirotik begira dauka bere anima, bere gogoa".
"Egjazko maitasunak ez dau bigunkeririk maite".
"Zugat zar okerra zuzendu baiño len, il egingo da".
"Landarea ez da azten argirik barik".
"Trumoiia danean, laiñoak asarre".

OLERKI EDO POESIA

Gu, garan modukoak gara ta alan, izan bearko eban. Beste erri batzuen antzera ez eban jokatu gure erriak liburuak sortuz ta euren gomutamena, jakituria ta izaera idatzi edo eskritura bidez euren erri eder oneri itzirik. Euren buru argietan uste aundia eban ta buruz-buruz, ta aoz aoz, itzi euskuezan euren artean sorturiko bertso pitxiak.

Erriaren oroimenean sorturiko bertso-olerki batzuk oroitu bear ditugu, euskalduna dan legez, ederrak direlako. Zaarrenetatik asiko gara ta or, ikusiko doguz gure antziñateko gurasoen argitasuna, irudimena ta garra.

Gizaldiz gizaldi ta aoz aoz, eldu dira erdi arotik eta aldi onetaraño. Egiz, gure bertsoa kantaria da, ta bere baitan daroa abestiaren soiñua. Urte zar eta urte Barrietan, gaurko egunetan abestuten direnak be, antxiña sortuak direna, garbi agertzen dabe. Bardin bai-ta be, seaska edo kume abestiak be, gure aurretiko amamak euren illobei abestuten eutsezenak...

Orretariko bat gogoratuko dogu...

"Bonboletena, nere laztana,
ez egin lorik basoan;
aixteritxoak eramango zaitu
erbia zeralakoan".

Aixteritxoa joan da mundu ontatik; gaur ez da ezaguna; baiña erdi aroan eza-guna zan ta aundizkiak kazan egiteko oso estimadua.

Seaska abesti onek Erdiaroko eiza kantu bat gogoratzen deusku: aizto edo kutxilloagaz egin oi zan eiza...

Urte Zar, Urte barri ta Santagedetako beste kanturen bat edo beste ikusi dai-guzan. Lenen lenengo ain ezaguna dogun "Eder zeruan izarra".

"Eder zeruan izarra,
errekaldian lizarra...
Etxe ontako nagusi jaunak
urregorrizko bizarra".

Erdi Aroan urrezko bizarra izan oi ebenak, santuak ziran: Gure Jaunak, Apos-toluak. Ama Birjiñak barriz buruko ulea izan oi eban urrezkoa.

Aldi aretan gizonari egin zeikion loxintze edo palagorik aundiena zan, aldarako santuak aiñako gizon ona zala esatea... Baiña guzti ori Erdi Aroko inguru aretan, koplak oni be, antxiña antxiñako usaiña daro alderdi guztietatik.

Bardin, emen, ondoren, nagusi berberari kantetan jakon koplak onetan bere.

"Urre gorrizko bizarra eta
zillar zurizko sorbalda...
Erreal bikoz egiña dauka
Elizarako galtzara".

Koplak onetan ikusten dogunez urregorri ta zidarrez egin ditu gizonagazko bal-dintzak eta errial bikoz Eleizara galtzada.

Ari oneri jarraiturik, beste koplak bat gogoratu geinke kutsu ta patxada bardi-ñekoa; etxeko andreari abestu oi eutsena...

"Pazko goizian jantziko dituala
bere gaiñean sei gona".

Jairik aundienetarako eukezan apaindurarik ederrenak. Ondo, erabillen euren burubidea, baiña baita bere fintxoak izan bearko eben bata-bestearen gaiñean, egoki, tajutzeko, ta azaletik ikuspegi jatorra izateko ta batez bere, sei soiñeko al-karren gaiñean jasan al izateko. Ez zan txantxetakoa euren irudimen zorrotz, argi ta jostagarria. Erdi aroan oi zan legez, sei gona panpin Pazku egun goizian... A zan alaitasuna ... !!

Bardin esan leiteke etxeko seme nagusiari buruz, formalak ba zan, ondo, esti-madua zanari, ta baita bere, etxeko alabad buruz. Onek ziran etxeko bitxi nagu-siak antxiña-antxiñako usain jariotan.

Kantu-zar batzailleak batutako kantu artean azaltzen jakuz antxiña antxiña, zaldun edo aundiki oituratzaz abestuten ziran koplak. Oitura aretan bat, ta ez

garbiena, "rapto" esaten jakona, ta gaur "secuestro" esango litzakena, arako "Parisko neskatxarena" aipatzen dauna, esaterako. Begira bagira:

Parisen ostaliertza batek
ninduan salutatu,
ninduan salutatu
berriak ere galdetu;
bortxaz edo amorios egiña nintzan
"arren erraidazu",
Ez nai, ez, amodioz egiña,
ongi bortxaz egiña nauzu
Izur kapitana,
bortian eneganaturik.
Paristik ekarri ninduten,
aitak eta amak jakin gaberik.

Orren antzera, erdi aroko tajua darie, "Bereterretxeren kantoreak" eta "Atarratzeko Jauregikoak", ta zer esanik ez, arako "Egun bereko" "Alarguntzarenak". Onela diño "dramaren" lenengo bertsoak:

"Goizian goizikjaiki ninduzun
ezkondu nintzan goizian,
bai-eta ere zetaz bestitu
ekia jalki zanian;
etxek-andere zabat ninduzun
eguerdi aldian;
Nik nizun maiteño bat
mundu oren ixillik;
mundu oren ixillik eta
Jinko Jaunari agerik...
Buket bat igorri ditadazu
arraroz eginik eta
erdia posuetarik.

Antxiña antxiñakoak, baiña beste tonika batekoak dira artzai giro jatorriko kantuak...

Uso zuri, errazu,
norat joaiten ziren zu?
Españiako portuak oro
elurrez beterik dituzu.
Gaur gaberako ostatu
nere etxean ba-duzu.
Txoriñua norat ua
bi egalez aidian?
Naparrarat joiteko
elurra duk bortian;
junen gutuk elgarrekin
ura urtu-urtu denian.
Bordan Ahuzki,
ur onak osoki.

Puntu au amaitzeko, gogoratu daigun artzai kulturazko portu kantekin alkar-tzen dituan arnas aundiko kopia eder au.

Arranuak bortietan
gora dabilta egaletan,
Ni ere, len, andereki
ibilten kanberetan.
Oroi aldiz, ardura ardura,
nigarra dizut begietan.

Aundikeri ta nabarmenkeri ondoren etorri oi dira gizartera olako lorak. Gero-
txuago be ez dira paltako praka baltzetan ari edo firu zur!ak.

ELERTI EDO LITERATURA ITURRIAK

Gure elerti edo literaturaren iturri legez, artazuriketa ta jostundegiak izendatu ditugu. Orrez gaiñera ta orreen antzera ba-ziran beste iturri jostagarri batzuk ta euren artean bat ostatua. Jakiturizko toki tajutua danik ez dirudi, eskola toki itxura aundirik agertzen ez dauanez, baiña ostatueta, txitean pitean, euskal bertso kantariak ibilten dira. Berez eukazan euskaldun gizonak bertso zaletasuna, bellarri ona ta abestuteko abots zolia.

Euskalduna, batez bere baserritarra, aldi aretan, ezin egon zeikian, bere artea ta almenak agertu ta erriari eskeini barik. Ta gure erria berez, abeslari ta bertso doizko danez, ostatu etxeak ta ostatulariak adurretan bizi ziran inguru gozo artan, anaitasunezko jakituri, soiñu ta erritar esakera jatorretan.

Batzuk kantari legez, beste batsuk kontu-kontari; lenengoak Xenpelaar ta Otañoren bertso ederrekin lertu bearrean, barre eragiten, ta besteak ipuin zar bizi-biziekin bizitzaren gatza belarrietara ixurtzen ta danen artean erri arnasa, gogoz ta pozez, gozartzen. Ta olan, esaterako, kontatu oi ebezan "Estudiante tonto" ipuiña eta "Zazpi lapurrena" ta "Bi alargunen seme-alabena", entzule guztiak algara baten lertzen egozela.

Ipuin onen gaia euskalerrri zabalean edozein puntutan ezaguna da, eta aoz aoz, miñean, pozik, erabili bere bai. Gure erria, liburu askoren jabe izan ez ba-da bere, ipuin kontari zalea izan da ostatueta lez udagoiengan artozuriketan eta abar...

"Errizale ameslariaren" ipuiña guztiz ezaguna zan errialde askotan; baiña badau gazi-gozo ta piper min usain berezia gure jendearen artean. Beste lurralde batzuetan, esne ontzia, txirrist, laban eginda, burutik bera jausi jakola, uste izaten zan esne-saltzailleari; gure erriak ostera, bere txispa asmakorragaz, jazoera ori askoz bitxiago ikusten eban.

Esne saltzaillea, geldi geldika, aberastuten joan zan. Ta jendeak bide kurutzetan DON izen ta guzti, ondo etorria emoten eutsan. Bera, burua makurtuz agurtzen asi zan ta ontzia milla zati egin jakon, lurrezkoa zan da.

IRU ANAI

Aita batek iru seme eukezan. Ta aundi egin ziranean, bizi-modua atera bear zala-ta, etxetik urtetea erabagi eben. Ondasunik bagea zan aita, ta berak eukezan iru gauzak, semeen artean banatu ebazan. Lenengoari emon eutson igitaia, bigarrenari emon eutson katua ta irugarrenari oillarra.

Makilla artu, etxetik urten ta ba-doaz biderik bide mutillak; joan ta joan, ta alako batean, an urrin, gariak elduta dakusez... Urreratu ziran, ta au arrigarria! Nik

ba-dot ortarako erreminta obe bat... Ta igitaia saku-zorrotik atera, ta rist ta rast, denpora utsean, sail eder bat ebagi eban.

Gari ebailleak arrituta geratu ziran galdez... Salduko al deuskuzu...? Zenbatean? Zuek langille errimeak zarelako, onenbestean... Mutillak dirutza ederra artu eban, igitaia salduta...

Gero joan ta joan erri batera eldu ziran.

Erri aretan gizon ta emakume, danak sagu arrapetan ebiltzazan. Egundoko sagutzea zan errian, ta ezelan be, ezin amaitu ainbesteko sagutzazkoa.

Saguak direla-ta, zer istillu asmatu dozue errian? Nik ba-dot gauza egokiago bat sagutzazgo istillu ori bein betirako amaituteko...

Sakuaren muturra zabaldu ta laster asi zan, saguak arrapatu eta il, erri guztiko pistiak garbitu arte.

Erriko jendea arrituta egoan. Egundo ez eben eiztari oberik ezagutu.

Saltzeko al daukazue...? Guk erosiko deutzuegu... Zenbatean...? Onenbestean...

Gero, joan ta joan... erri batera eldu ziran arrats-beran. An, mendizka batean, gizon talde bat makillakaz lurra jo ta jo ziarduen sorkaldera bagira...

Eta oillardunak, onan, esan eutsen...

Zertan zabiltez, lurra jo ta jo, eguna argitu baiño lenago?

Eguzkiari deika gagoz, loak artu ta etorri barik, gelditu ez dedin.

Nik daukat, emen, eguzkiari dei egiteko zerbait egokiagorik...

Eta oillarra sakutik aterata, kukurrukuka asi zan, eta baita eguzkia be, laster, agertu zan.

Arrituta egoan jendea alako egazti arrigarriagaz.

Salduko al zenduke? Geuk erosiko deutzuegu... Zenbatean...? Onenbestean... Irugarren mutillak dirutza ederra egin eban oillarra salduta.

Gero irurak etxera joan ziran aberasturik... Ta euren aitagaz ondo, bizi izan ziran.

Ta zuri ta gorri ta kikiriki, ipui au egia ba-litz.

Ipuin onek kultura bi dakarkiguz gogora... Katua ta oilloa, oraindik, etxeratu barik egozan aldia: au da, eiztari kultura, ta bigarren nekazaritzan, oraindik oso atzera egozen aldia.

"SAN MARTIN TXIKI ETA GARIA"

Ataundarrak garia zer zan ez ekien. Aralarko jentillak ostera bai. Euren etxeke ganbaretan gari-pillo ederrak euki oi zituen. Baiña iñori emoteko eskukada bat bere ez.

San Martin Txiki Ataungo mutil koskor txiki bat zan. Aretxek eroan eben lenengo gari atea bere errira.

Egun baten beste askotan lez, San Martin Txiki joan za Aralarko jentil etxe batera, eta beste azkotan lez, goiko ganbarara igonda, apustu bat egin eban etxerartako jentillekin; bera, baietz, pasa gari pillo batetik bestera, salto batean. Baietz ta ezetz...

Eta esanda legez... Abiada ta guzti artu ta salto egiten dau mutillak! Ta gari pilloaren erdian, sasta, sartzen da mutilla...

An ziren algarak... San Martin Txikiren Bizkarretik! Eta berak bere bai, lotsa plantak egiñez, apustue galdu ebalako. Baiña barrutik, poza, oiñetako abarka ta

galtzerdi artean naiko gari-ale jaso bai ebazan, ixil ixilik Ataunera eroan ta an ereiteko.

Jentillak, ain arin, ez eutsen igarri San Martin Txikiren azerikeriari. Geroago bai, baiña ordurako lotsa galantak egiñez, ba-joian gure mutilla bere bidean. Eta joaten ikusirik, euren amorru bizian, aizkorea jaurti eutsen... Ez alperrik! Mutilla jo bearrean, burrundaran, gartzain ipurdi baten sartu zan. Eta oraindik be, an, agiri da aizkorearen zasta.

Eskukada pare bat gari ale izan ei zan guztia. Baiña naikoa urte gitxiren barruan, Ataun inguruetan gari-solo ederrak sortzeko.

Ipuin onetan gauza bat agiri da: gure mendi artean nekezaritzarik etzan garai bat izan zala. Eta Naparroako erriberan bai. Eta Gipuzkoako nekazaritza Naparroatik sortua dala.

AXULAR APAIZARENA

Axular abadea. Abade jakintsu-jakintsua zan. Salamankan egin zituan ikasketak aldi artako ikas-toki ospetsuan. Ikasterako Unibersidade ospetsuaz gaiñera, an, ba-zan beste jakituri iturri bat bere. Baiña alderdi txarrekoa. Etsaiaren koba bat egoan inguru aretan. Koba aretan erakusten zituan etsaiak bere asmakizun txarrak. Eta aldizka joaten jakozan ikasle batzuk arte arek artzera.

Axular bere jakinbearraren jakinbearrez joan zan etsaiaren koba artara. Etsaiak arrera ona egin eutson. Ta baita esan be, zelako arte arrigarriak ikasiko zituan. Baiña jakituri orren orde bere arima emon bear eutsola etsaiari. Gure mutilla ain jakin-zale zan ezkeroz... baietz salduko eutsala... ta beingoan asi jakon etsai-maisua bere artean erakusten.

Gure mutillak berealako baten asko ikasi eban. Arte aren artean bat apartekoa: edozein gauzari berbetan irakasteko artea.

Etsaiak gure mutilla-bae-bategaz urune eralgiten ipini eban, an, koba barnean; baiña kobatik urten barik, iges egin ez egion, beti be, deika ebilkion, "Axular, non ago"? Eta mutillak, beti, emen nago, erantzun bear.

Baiña naikoa ikasi ta kobako zuloan aspertu zanean, iges egitea gogoratu jakon. Baiña etsaiak kantu bardiña... "Axular, nun ago? "Emen jauna".

Baiña alako batean, baiak berari, "Emen nago jauna" esaten irakastea gogoratu jakon eta baita baiak, ederto, ikasi bere... Eta gero, errez, iges egin eikiala, pentsetan asi zan mutilla. Nagusiaren deiari baiak erantzungo eutsola ta berak iges egin.

Eta esan da egin, alako baten anka puntetan, asi zan koba zulotik urteten. Etsaia baiña txakur zarra zan, ta susmo txar bat artuta, jaikitten da bere lanetik, eta or ikusten dau gure Axular kobako atetik, oraintte, urteten. Mutillak gorputza kanpuan eukan baiña, gorputzaren itzala, barruan, oraindiño, eta etsai maltzurrrak, besterik ezean, or oratzen dautso itzalari. Eta gure Axularrek iges egin bai, baiña itzalik barik. Geroztik, Axular apaizak, eguzkirik ederrenean be, ez eban emoten itzalik, gerizarik. "Gorputza bai, baiña itzalik, gerizarik ez". Itzala, gerizea etsaiaren eskuetan geratu zan. Eta itzal eta gerizeagaz arimea be etsaiaren eskuetan.

Aurrerantzian, ikaragarritzko jakintsua izan zan Axular... Baiña alan da guzti be, beti, kezka ta kezka; itzal, gerizarik ez. Eta ondo ekian itzal, gerizarik barik il ten ba-zan, inpernura joan bearko ebala.

Alan be igarrita eukan, Meza emoten egoala, Mezerdi-Mezerdian, itzala, gerizea etorten jakola. Eta bere buruari, onan, esan eutson:

"Axular, ik Mezerdian il bear dok; bestelanbetiko galdua az"

Eta urteak joan eta urteak etorri, ona diñotso bere sakristauri: Sakristaua, ik igerri al dok, nik itzalik, gerizarik ez daukadana? Bai, jauna, aspalditik igarrita nago. Eta igarri al dok Mezerdian itzala, gerizea etorten jatana? Bai jauna, igarrita nago. Ba olan ta olan... aspaldi onetan, nik neure arima etsaiari salduta euki joat. Baiña Mezerdian ilten ba nok zerurako. Mesedez sakristaua, ik Mezerdi baten il bear nok...

Sakristauak ezetz ta ezetz: eta apaizak baietz ta baietz: mesedez ta mesedez...

Azkenean konformatu zan gure sakristaua...

Baiña ordua eltzen zanean, atzera egiten eban. Bein ta birritan... Baiña azkenean, Mezerdiko berbetan egoala, labain kolpe bat biotzean eta illik itzi eban sakristauak gure AXULAR...

Eta zerura joan zanaren ezaugarritzat, uso zuri bat abadearen agotik zerura joan zan.

Ipuin au Euskalerritik jaso eban Adalbert von Chamisco de Boncourt, aleman literato batek... aleman literato batek argitaldu eban gauza jakingarritzat.

Beste gauzatxo bat: ipuin onetan, antxiña antxiñako zenbait kulturetan lez, gizonaren arima itzal, geriza izatera eltzen da: itzal, geriza: ez arnasa, ez odol...

Solozabal'dar Paulin

SOLOZABAL'dar PAULIN'en SARRERA-ITZALDIARI ERANTZUNA

Olazar'tar Martin'ek

ADISKIDE TA ENTZULEOK:

Arreta aundiaz eta arduratsu entzun dogu Paulin adiskide aundiaren Berbaldia. Baita aztertzaile zorrotzaren gogoagaz be.

"Euskera izkuntza jatorra, jakintsua ta ederra" izan da artu dauan gaia.

Idazpuruak berak jarten dau gure Paulin Aldelarien edo Apolojisten sasoiari. Izan be, euskereak beti izan dauz gorrotalariak (Mariana) eta aldelariak, gaur be ba-daukaz, baiña Larramendi'ren aldi inguruan edo aurrerago izan ziran aldelariak: Adan'ek eta Ebak atsegin-baratzean euskeraz berba egiten ei eben, aingeruak zeruan be euskeraz alkar ulertzen ei dira, euskerea izkuntza guztietan zarrena ta ederrena el da... eta olakoak esaten ebezan. Beste batzuk euskereari beronen barrura begirutzen eutsoen eta barruko edertasunak ikusita, euskerearen edertasuna agertu. Azkenengo onein artean agertu jaku Paulin, naizta beste izkuntza batzukaz, gurea konparatu. Idazpuruan bertan agertzen da ori: "Jatorra, jakintsua, ederra" da euskerea.

Antxiñako leizetan ipinten dau Paulin'ek euskerearen sorrera, eta baleiteke ori orrelan izatea. Sorkundea bai, baiña leizetan bizi zan gizon arek ez ekian berba egiten, itz bakar batzuk esaten baiño ez. Geroago, artzaiñen aldiari eta nekezari urteetan joan zan euskerea osotzen, benetako izkuntza izaten.

Euskerearen edertasuna dana ez dala agertzen idazle klasikueta diñosku gero Paulin'ek. Ori bai egia da, sarritan joskera txarra artu eben, euren ikasketak egiteko erabilen eben latiniaren edo gaztelerearen joskera. Ondo esana da gaur galdegaia esaten dautsaguna, ez ekiela zer zan be. Au argi ikusteko naikoa da Mogel'en "Peru abarka" naiz beste idazle batzuren liburuak irakurtea.

Izkelki-arazoa agertu dausku gero, euskerea ez dala gaztelerearen izkelkia agertu ta ziurtatu nai izan dau. Gaur ez dot uste iñok esan leikenik, euskerea gaztelerearen izkelkia dala, baiña erri-maillan olako eritxiren bat ba'lego, ondo da ori argi agertzea. Ez da aitzu bear euskaldunentzat munduan izkuntza bi baiño ez dagozela: euskerea ta erdere. Erderea ez da ba gaztelerea edo españerea, iparraldean erdera esaten dautsoe frantzezari, ez gaztelerari. Euskerea ez dana, dana, erdere da.

Argi geratu da itzaldian euskerea ez dala latin-kumea edo erromantzea, baiña ezin esan euskereak latiniagaz ez daukala zer-ikusirik: Gure aditz jokoa latiniak, zalantza barik, ikutu aundia izan eban, iztegian be bai, joskeran oster, euskereak ez eban artu ezer latinetik eta gaztelereak be euskerearen joskera artu eban. "Mio Cid" liburuak daukan joskera, euskeratik artua da eta joskera oneri "parasintaktikoa" esaten jako, mailla bardiñeko esaldiak alkarren ondoan jarten dauzalako. Latiniaren joskera, oster, "iposintaktikoa" da, esaldi nagusi

bat eta inguruan beste malla bateko esaldiak dauzalako. Gero, Ber-jaiotza-
aroan artu eban gaztelereak latiñetik joskera "iposintaktiko" au.

Grekotik eta latiñetik artutako itzetan be, ziurtatu ezin leikezan gauza ba-
tzuk agiri dira: Nik ez neuke esango grekoz esaten dan "aitia" k euskerazko
"Aita'gaz zer-ikusirik dauanik. Baiña ori be esango dau idazleren batek. Euske-
razko "polita", nire ustez latiñezko "polita" itzetik dator, edertua edo landua
esan nai dau, baiña ez dauko zer ikusirik gregozko "polites" egaz, au polis ber-
batik dator eta uria esan nai dau. Arabeakandik artuen artean, "alkatea" alde
batera itzita, "albaitera" ipiñiko neuke. Gaztelera "bildur" berbea ez da izan
onartua, naizta Berzeo'ko Gonzalo'k bere liburu baten ekarri.

Euskereak, grekoren antzera edo ugaritsuago daukala diño izlariak bere itz
barriak bere sustraitik sortzeko almena. Eta orretan batera nator izlariagaz.
Baiña orren oiñarria gure izkuntza "aglutinante" edo alkartzaillea dalako ete
da? Alkartzaille izate ori aditzaren inguruan agertzen da geien: "Dautzugu-
nean" esaten dogunean, or barruan dagoz zer (d) noiz (au), nori (tzu) nok (gu)
errelatiboa (n) eta noiz (ean), or agertzen dala uste dot geien, izkuntza alkar-
tzaillea edo "aglutinante" izatea.

Bigarren zatian, itzaldiaren erdia baiño zerbait gitxiago, Paulin adiskideak
agozko elertiaren barri ugariak emon dauzkuz eta lan au betegarri da geiago,
izkuntzaren jartortasunagaz, jakintsu izateagaz eta edertasunagaz ainbeste
zer-ikusi ez dualalako, baiña itzaldiaren atsegintasunerako egokia izan da gei-
garri ori.

Zorionak, Paulin, eta eskerrak egin dozun lan ederragaitik. Jarraitu lanean.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

(872'tik 873'ra bitarteko 4 larruki)
(II)

Jarrai dezagun gure azterketa lanean. 873'ko larruki bat da eskuetan darabilkiguna, eta larruki ortako toki-izenetatik onako auek dira jorratzeko peitzen zaizkigunak:

FRESNU	TREPIANA	SALCETO	SALCIDII
	TIRONE	FLAINO	
	MOLINA DE OBARENES		
	MOLINA DE OLIVARES		

FRESNU eta TREPIANA.- "...tibi domni patri spirituali Guisandus presenti abbati offerimus et confirmamus monasterios nostros propios pernominatos id est Sancta Marla de Fresnu Sancti Andres de Trepiana": "zuri, gure animen aita zeran eta orain emen zaitugun Gisando abatari, gure-gureak diran Fresno'ko Miren Donearen eta Trepiana'ko Ander Deunaren lekaidetxeak damaizkizugu; eta sendotzen dugu emaitz ori". (1)

FRESNU, euskeraz lizarra da. Zugaitz donea eusko-etnologian. "Lizarra ez da bedeinkatzen, berez bedeinkatua dalako", esan oi zuan gure erriko jendeak. Lizar-arbazta erabilli oi da Donibane-bezperetan-da etxeko ataria oroitzeko, eta lizarrezkoa izan bear luke etxe bat bukatzerakoan bere teillatu-gaiñean ipiñi oi da arbazta ere. A!, ta lizarrak adierazten du sagardotegietako atetan sagardo berria asi dala egarri diranei deika.

Larruki ontan, "Fresno", esan dugun lez, erri baten izena da.

"Fresno" ori eta "fresno" itzetik datozen toki-izenak, goiz sartu ziran Euskal-erriko dokumentuetara:

FRESNEDA, X mendean (945'ean) Tiron ibaiaren ertzeko baso-erri bat zan. X Mendean bertan, 34 urte geroago, 979'an Tiron-ondoko "fresneda" ori FREXENETA bihurturik agertzen zaigu. Garrantzi ederreko biurketa, benetan, izen ori laterazko itz bati euskal-atzizki bat erantsiz tajutua egon bait daiteke.

Esan dezadan aurrera jarraituz len, urteak zear FRESNEDA ura FREXENETA au baiño lenago agertze ori zentzu ororen aurkako gauza dala, Frexeneta izen zarragoa bait da gaztelera utsa besterik ez dan Fresneda ura baiño. Fresneda anakroni bat da, ziurki XII mendeaz gero lumalari gaztelar batek leenago izen baten lekuan jarria.

Zer ote zan lenen lumalariak idatzi zuan izena? Jakiterik ez dugun gauza.

Aldakuntzen bidetik jarraituz, Tiron'en ibarreko "Frexeneta" ori bi bider FRE-

(1) Obieto'ren ustez, larruki au 873'ko Orrilla'ren 29'koa da. Serrano'ren ustez, ordea, urtea 903'ra. Urtegarrena ez zaigu ajolagarriegia-ta, gaurkoz bakoitza bere aburuarekin utziko ditugu. Baiñan, oraindik larruki ontako giza-izenak eta done-izenak aztertu-bearrak dituko-ta, ori egitean emango dut bi ikerlari oien aburu ezberdiñen arrazoia.

XENIA bihurturik ikusiko dugu XI mendeko larruki batean; eta 51 urte geroago, XI mende orren azkenean, 1.079'ko Uztaillaren 20'ean FRAXENETA aurrena, eta lau lerro beerago FRAXENETE.

Izen oiek danak eta gure larruki ontako FRESNU ura, danak, dokumentu beroiek argi adierazten diguten lez, erriska **bat beraren** izenak dira. Tiron ibaiaren ondoko PEDROSO'ren alboan zegoan eta dagoan erriska baten izenak. Ederki balio dute, beraz, erri orren lenen izenak izan dituan aldakuntzak aztertzeko, eta aldakuntza oietatik garrantzi aundiko ondorio bat ateratzeko.

PEDROSO aipatu dut. Pedroso ori garrantzi aundiko erria dugu Euskalerriko edestian. Errioxa'n dago, Burgos'ko Errioxa'n gaur: ibero ibai nagusiarekin Aro'n alkartzen dan Tiron ibaiaren ibarrean.

Erri ortakoa da euskaldunok dugun larrukirik zarrena, VIII mendearen erdiko, 759'garren urteko Jorraillaren 24'koa. Erri ortako Mikel Donearen Lekaidetxera lekaime batzuk nola sartu ziran eta bertan bizitzeko egin zuten ituna agertzeko idatzia.

Aldizkari onen aurreneko zenbakian azterturik utzi genduan larruki ori, eta esan genduan "Pedroso" naitanaiez Arriola, Arrieta, Arregi, Arriaga edo orrela-ko izen euskaldun baten aldakuntza izan bear zuala, XII mendeaz gero egiña, VIII mendean gaztelerarik oraindik ez zalako. Euskera itzegiten zan Pedroso'n. Ala dute alako euskal-usai nabarmena lekaime aien izenik geienek.

Zoritxarrez, VIII mendeko lumalari ark Pedroso'ren ordeaz zer izen idatzi zuan jakiterik ez dugu.

Pedroso aren ondo-ondoan dago aztertzen ari geran Fresno ere. Fresno aipatzen duan larruki au IX mendekoa da. VIII mendeko ura baiño 114 urte gazteagoa.

Baiñan IX mendean ere oraindik gaztelerarik ez zan. Zer idatzi ote zuan ba beste lumalari onek Fresno'ren ordeaz?

"Lizarra", lateraz, "fraxinus" da. "Lizartza" esateko, berriz, itz bereizirik ez du: "Locus fraxinis consitus" dakarte iztegiek: "Lizarrez ornitutako lekua".

Orrela dio Raimundo de Migel'ek bere iztegian, Erroma'ko latera klasikuaz ari dalarik. Bazuan ordea itz ori erdiaroko laterak, Du Cange'ren iztegian dakuskunez. "Fresneda", erdiaroen "fraxinata", "frayneta", "fraxineia" ta "franxina" zala esaten bait digu. Nola sortu ote ziran Fraxinataren aldakuntza diran izen oiek? Ez dakit. Baiña badakit nola sortu zan Fraxinata bera.

"Fraxinata", ordea, eusko-larrukietako "fresneta" edo "fraxeneta"ren antz aundiko itza da. Baiñan badute alare zerbait ezberdiña: atzizkia ainzuzen: "ATA" ez bait da "ETA". Zillegi bezait beraz bi itz oiek, "-fraxinata"k eta "fraxeneta"k-, sorkuntza ezberdiña izan zutela uste izatea:

"ATA", lateraz adjetibu edo izenondokoen emakerazko atzizkia da. "Petra", adibidez, "arria" da, "piedra" gazteleraz; "petrata", "enpedrada" izango litzake, "ariz ornitutako lekua". Era berean, "fraxinus" lizarra da, "fresno". "Fraxinata", berriz, "fresneda", "lizarrez ornitutako lekua".

Besterik da ordea "ETA" gure euskeraren atzizki ugaritasun-adierazlea. Ez da beiñere izenondoko bezala erabiltzen. Atzizki bezala betibeti.

Ta, gure larruki ontako erri guztiak orduan euskaldunak ziralarik..., eta euskalduna, baita, lumalari ber-bera ere..., (ez al zaigu zillegi..., lumalari euskaldun ark..., adibidez Lizarreta zeritzan erri euskaldun aren izena **lateraz** ematera-koan..., laterazko "fraxinus" itzari "fraxin" aurrizkia artuta..., laterazko aurrizki

orri "ETA" atzizki euskalduna erantsi ziola, ta orrela - "Fraxin-eta", "Fraxeneta", "Frexeneta" - itz berri bat sortu zuala uste izatea ez al zaigu zillegi? Eta, ori egitean geroago sortuko zan gaztelarentzat bidetxo bat iriki zuala?

Ez noski euskeratik gaztelararuntzko bidezigor bakarra! Ez dezagun aztu Euskalerrian sortu zala gaztelera, eta, ondorioz, naitanaiezkua dula gaztelarak euskeratik jasotako pitxiren batzuk bere-baitan gordetzea.

* *

Aldaketen bidetik aurrera jarraituz agertzen zaigu FRASZENETA bat XI mendean, Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeko "Burni-Barren" zerrendan Araba'ko Sarkaldean dago, Arkamo deritzan mendiaren maldan. Joan dan mendean Lacozmonte udalekoa zala diosku joan dan mende ortako Madoz'ek bere iztegian. Gaur Gobiaren edo Baldegobi'ko udalaren barruan aurkitzen da, eta Fresneda deitzen zaio.

Euskalerrira erdera sartuz gero asko ditugu "Fresno", "Fresnedo", "Fresneda" eta itxura ortako toki-izenak euskaldunak izandako lurraldeetan ortako toki-izenak. Orregaitik, balio digute gaztelaratiko izen oiek, beste arrazoi batzuekin batera, euskera gure errietan noiz galdu zitzaigun jakiteko. Ori bait da etimologiaren azterketak eman dezazkean zituetakoa bat.

Erdal-itz oiek, ia beti, euskal-itz baten itzulpena izan oi dira. Alare beñere aztu ezin dezakegun gauza da, bein baiño geiagotan itzulpen oiek erriarrek ez baiña eskribau batek egiñak izan daitezkeala. Orrela agertu daitezke erderazko toki-izenak, oraindik atzo euskaldunak ziran errialdeetan.

Beste batzuetan itzulpen oiek erdalduntzen asia dan erriko jende ber-berak egiñak ditugu.

Ona nola gertatu daitekean ori: Erderaz tutik ez dakian aiton euskaldunak, "ardiak lizartzan zeudek", esango dio billobari.

- ¿Dónde es eso? -galdetuko dio zearo euskera galdu duan billoba erdaldun biurtuak.

- Entre los fresnos, hombre! (No sabes o qué? -erantzungo dio aita ia osoki erdaldunduak..

- Aaa! -En la fresneda!!! -oiu egingo mutikoak.

Une ortatik aurrera "Fresneda" esango zaio erri orlan ordura arte "Lizartza" esaten zitzaion lizarrez ornitutako belardi zabalari.

Ala, FRESNEDA, 1.693'ko dokumentu batean, Trebiño'ko Arrieta'n soro baten izena zan. Trebiño'ko Arrieta'n gutxi-gora-bera, baleike oraindik, naiz bere azkenekotan, euskera XVII mendearen azken-aldeko 1.693 artan bizirik egotea, naiz bertako lurralde batek erderazko izen ori eraman.

FRESNEDO, 1.718'an Kanpezu'n Santakurutze'ko zubi baten izena. Ez zan noski XVIII mendearen asierako unte ori Araba'ko Kanpezu'ko euskeraren eriotzatik oso urrun egongo.

LOS FRESNOS, Gubiaren'en eta Laminoria'n bi alor ditugu. Gubiaren'en aspaldi ezabatu zan euskera ordurako, baiña Laminoria'n oraindik euskaldunak ziran dana joan dan mendearen asieran ere. Zumalakarregi'k euskeraz egiten zuan ango jendeekin mendi aietan ibilli zanean. Esan dugu izen oiek danak euskaldun izen baten aldaketak dirala. Jatorrizko euskal-lzen ori (zer ote zan? Lizartza? Lizardi? Lizarreta? Lizarraga? Lizarrola?

Gure larrukia ordea, IX mendekoa da, IX mendean gaztelera Tik ez zan. Orregaitik lumalari zar arek ez zezakean lateraz idatzitako dokumentu orlan

FRESNU'rik idatzi. "Fresnu" ori, beraz, XII mendear gero beste lumalari batek sartu zuan, esana dugun bezala aldakuntza asko ta aundiak egin bait dira dokumentu auetan.

* *

LACOSMONTE aipatu digu Madoz'ek. Nai nuke, LA COZMONTE ta beste era askoz idatzi oi dan udal orren izen orri begira unetxo batez gelditu. "La Cozmonte" ez da arritzeko idazkera. "La" ori oso maiz bereizten dute ba franziar edo espainiar erdaldunek izenaren ondorengo izkietatik.

Oroi, adibidez, solasaldi ontan agertu zaigun Laminoria. Ba izen polit ori ere ikusi izan dut "La Minor!a" idatzirik. Nere abizena bera, bein baiño geiagotan idatzi izan dute "La Tiegui" legezko dokumentuetan. Donosti'ko Lazurriola bera ez da La Zurriola, Lazurriola baizik.

Solasketa ontan "lizartza" itza ere bein baiño geiagotan erabili dugu mingaiñean. Ba, erri giputz baten izena dan itz ori "La Zarza" agertzen da XVII mendeko mapa batean.

Euskal-izenak txikitzen, puskatzen eta itxuraz aldatzen miresgarriki yayoak bait dira gure inguruko lumalari erdaldunek!

Baiñan ar dezagun berriro izketa-gai Lakozmonte izen-zuan Araba'ko udal ura.

Itz bikoitz ortan ez da zailla "monte" zer dan esatea: "mendi"ren aldaketa, iñolaz ere. Ez da ain erreza "lakoz" zer izan daitekean igartzea. Ezpairik gabe gauza bat beintzat egi borobilla da noski: "Lakoz", "Lakos" eta "Lakosa" izen bat bera dirala etimologiari dagokionez. Iru idazkera oietatik, "Lacossa" da dokumentuetan aurrena agertzen zaiguna, Kerexeta'k dioskunez: "Lacossa (...) aparece en el cartulario de Brujas (Bélgica) en 1.452".

Ikusi dezakezunez, erdiaroa amaitu aurretik urrutira iritxi zan euskal-abizen ori. Ez da arritzekoa. Urruti iritxi oi bait dira euskaldun-jendeak ere. Dirudianez, mundua-zear ibiltzeko egiña bait da euskalduna.

Danadala, abizen ortako euskaldunik izentsuena Juan de Lacosa izan zan: Kristobal Kolon'en Mari Galanta ontziaren lemazaiña, Ameriketarako lenen ibilaldian.

Lakosa'ko Juan ori Portugalete edo Orduña'koa zala esan oi dute batzuek; beste batzuek, Kastro Urdiales'koa ala Laredo'koa zala. Berdin zaigu: edozein eraz ere bizkaitarra bait zan, orduan Kastro ta Laredo Bizkai'ko Enkarterriaren bi zati ziran ezkerero. Ala, berak ere "Juan Bizka!no" esan oi zion bere buruari.

"Lakozmendi", "Lakosa", "Lakotsa" eta oien antzeko beste toki-izen edo abizenek (ikusi Kerexeta'ren iztegian ugari) LAKO edo LAKU dute itzaren enborra.

Kerexeta'k, "lako" ori "lago" dala diosku. Ez dakit ba... Araba'ko Lakozmonten intzirarik ez bait da. Alderantziz mendi legorak ditugu Arkamo'ko arri-te latz aiek. Ez da intzirarik Napparroa'ko Lakuntza'n, edo Laburdi'ko Lakontegi'n, ala Gipuzkoa'ko Lakoaga'n ere. (Bizkai'n "lako" edo "laku"z asten dan toki-izenik ba'dan ez dakit. Idatzi egidazu, irakurle, zuk baldin ba'dakizu, zuzenbide ontara: "Seminario Diocesano; Apdo. 86; Vitoria-Gazteiz).

Beste alde batetik jotzen du López Mendizabal'ek "lako" orren etimologiaren billa: "L" izki apaingailu utsa omen da; eta "ako"k "larra", "zarza", esan nai omen du bere aldakuntzak diran "aka"k eta "aku"k bezala. Baiñan, sarri aski

bezala, ez naiteke oraingo ontan ere berekin bat etorri, "ako", "aka" eta "aku" "larra" dirala, ez bait dakit "nondi demontre" atera duan.

Gure toki-izen guztiek bezala, aldaketa asko izan ditu "Lacozmonte" orrek ere: LAUZMONTE 1.347'an; LACUSMONTE 1.463'an; LA COZMONTE 1.742'-an, eta LACUSMONT 1.776'eanean.

Orain, antziñako udal zar ori bi zati egiñik dago. Bietatik bat, sarkaldekoa, Gobiaran'go udalaren barruan gelditu da; bestea, sortaldekoa, Ribera Alta esaten zaion udalean dago.

* * *

TREPIANA.— "Sancti Andres de Trepiana". Gaur erri orri Trebiana esaten zaio. Aspalditik dator dirudianeaz gure izkuntzan "P" eta "B" alkar-trukatzekeo oitura. Eta bizirik jarraitzen du oraindik oitura orrek gure baserriarren artean.

Ez da denbora asko onako pitxikeri polit au Bizkai'ko erri txiki batean gertatu zala, gure baserrietara butanoa sartzan asi zan garaiean ainzuzen, Oka eta Lea ibaien artean dauden erritxo txukun maitagarri oietako batean. Erriko plazan bertan, elizaren aurre-aurrean bizi zan Maixa, andre gazte ezkondu-berria. Iristen da enparantzara butanoontziak ekartzen dituan beribilla, eta andre lagun batek onela diotsa ezkondu-berriari:

"Maixa: Etorri don putaneroa eta igaz egon nai ornen din". Ori, sakristiko leiotik entzun zuan apaizak kontatu zidan neri. Baiña itzuli gaitezen berriro Trebiana'ra. Madoz'ek dioskunez, erri ortan "tienen un cementerio capaz y con buena ventilación". Badute beraz illobitegi ortako difuntuek zertaz pozik egon. Aize oxkirri garbirik ez zaie beintzat peituko.

"TRE" aurrizkiaren bidez asten diran abizen eta toki-izenak ugari ditugu Euskalerrian: Trepiana abizen naparra da, eta Tripiana giputza. Tribisarrospae Bizkai'n, eta Tremauarte, Trenpe, Trenparube, Trepanoarratea, Trepatueta gaina, ta Trebesbidea Araba'n, toki-izenak dira (2).

Oso zailla da "Tre"orrek zer esan dezakean jakitea. López Mendizabal'dar lxaka zanak errez askatzen du korapilloa "TR" izki protetiku edo edergaillu utsak dirala, eta "E" atzetik datorkien itzaren lenen izkia dala esanez. Barka bezait beste mundutik bere azkeneko urteetan lagun maitea izan nuan lxaka'k, baiña errezegia deritzait berak dagian askapen ori.

Trespuentes, Araba'ko erri ezaguna, dokumentu zarretan (1.706'koa azkenekoa) Traspuentes da; eta zarragoetan TRASPONTE. Euskeraz, Zubioste (sarkaldean) eta Zubigibel (ipar eta sortaldean). Zubi ori, Iruña'ko "oppidum" edo uri babestura igarotzeko erromatarrek Zadorra ibaiaren gaindik egin zutena eta oraindik zuti dagoana da (3).

Trespuentes ortan "TRES" ori "TRAS" baldin ba'da, gure larruki ontan agertzen dan Trebiana'ren "TRE" ere, ederki izan daiteke "TRA". Ori orrela ba'llitz BIANA zer dan jakin bearko genduke.

Abizena bezala, izen bera duan Napparroa'ko urian eta Gipuzkoa'ko Olabarrin' agertzen zaigu beste iñon baiño lenago, Kerexeta'k dionez.

López Mendizabal'ek —eta oraingoan ba'leike arrazoi izatea— onela zatitzen du itz ori, "B"- "I"- "Ana" ebakitzen du. "B" protetikua ornen da, edergaillua; "I"

(2) Gerardo López de Guereñu Galarraga: "Toponimia Alavesa".

(3) Oraingo au ez da lengo ura bera, erdiarokoa baizik, baiñan lengo aren oiñarrien gaiñean birreraikia.

gaztelerazko "junco", (orrela izan ere da, "ia" eta "a" atzizkia "e" biurzen duten tokietan "ie" gaztelerazko "junco" bait da); "ANA", berriz, atzizki toki-adierazlea ornen da (badaitekean gauza).

"ANO", "ANA", istillu aundiak sortu dituzten atzizkiak dira. "ANO" euskal toki-izen geienetan atzizki toki-adierazlea da. "Arriano" adibidez "Arritoki" da. Era berean "ANA" ere atzizki toki-adierazlea dala uste dut, aurretik giza-izen bat ez ba'darama.

Au gertatzen danean, Araba'ko ANTOÑANA erri-izenean adibidez, "ANA" edo laterazko "Anus-Ana-Anum" atzizkia, edo euskerazko "NA" - "ENA", "RENA" atzizkiaren laburpena - izan daiteke.

Bi atzizkiek, bai laterazkoak eta bai euskerazkoak zentzu bera dute, norentasun-adierazleak diralako. Orrela ANTOÑANA, bai lateraz bai euskeraz, ANTOÑARENA dugu; laburpena egiñik, ANTOÑANA.

"Rena", "ena" maiz biurtzen dira "na". Adibidez "zapi au amarena da", "zapi au amana da" biurtzen dugu.

"ANA" ori noiz laterazko noiz euskerazko atzizkia dan izen bakoitzaren inguruko zertzeladei begira erabaki bearko da.

Al, ta, Burgos'ko Errioxa'n dagoan Treviana arentzat bailo lezake López "Mendizabal'en bidetik sortu daitekean etimologi onek: "Tre-Biana" = "Tras-la-Junkera", an euskera aspaldi galdu zalako. Ez luke ordea "balioko euskeraz egiten duten errietarako, "TRE" eta "TRA" ata TRAS" aurrizkiak, euskerazko aurrizkiak ez bait dira.

Orregaitik, Araba'ko TREPATUETABURUA eta Bizkai'ko TREBESBIDEA eta TRIBISARROSPE izenetan, "TRE" eta "TRI" oiek zer diran ez dakit. Ea, "ira-kurle, zuk laguntzen didazun.

TREBESBIDEA'rentzat, "TREBE"- "BIDEA", "Camino-Para-Audaces" etimologi" errezegia eta parregarriegia derizkiot. Eta zer izan daitezkeanaren" usmorik ere ez diet iñondik artzen TREPATU-ETA-BURUA arabarrari eta "TR-IBIS-ARROS-PE bizkaitarrari. Oartzen naiz euskal-usai aundiko izenak" dirala, baiñan zer esan nai dezaketen ez dakit.

MOLINA DE OVARENES.- "In loco qui dicitur Molina de Ovarennes": "Obarennes'ko Erroteta esaten zaion lekuan".

Izen bat baiño geiago ditu euskerak "molino" esateko. Gaur-egun geienik darabilkiguna, "ERROTA". Itz onek kurpillaren aipu isilla darama bere-baitan, laterazko "rota"tik bait datorrelako, gaztelerazko "rueda" eta frantzerazko "roue" ren antzera. Beste izenak, "BOLU", "IGARA", eta onen aldakuntza diran "EIARA" eta EIERA oso-osoan euskaldunak dira; ez dute kurpillaren aipu ixillik, eta, orregaitik, askoz zarragoak dirudite. Ale-igoketarako kurpilla asmatu-aurrekoak? Ondo benetan zarrak, ori orrela ba'litz.

*

BOLU.- Izen ori, osoki euskalduna dala esan dugu. Alare, gaur, badu kurpilla-lazko errotekin zer ikusirik, erroteta oietako bi arrizko kurpilletan aundienari, beekoarí, "bolue" esaten bai diote Bizkai'ko errialde batzuetan, baiñan badai-teke, zentzu ori kurpillezko errotak sortuz gero artua izatea.

BOLU'k Karistiarren eta autrigotarren itza dirudi. Araba'n bertan "Bolueta",

"Bolunbide" ta "Bolonbide"z gaiñera, bada orrelako beste izen-sail bat ere. Danak, Karistiarrenak izandako lurraldeetan. BOLI, "Bolu"ren aldaketa dugu itz bikoitzetan. Ortik, adibidez, BOLIIBAR, Bizkai'n eta Araba'n. Eta, Araba'n bertan, "Bolinburu", "Bolingain", "Bolinbide", "Bolinaurra" (Bolin-aurrea?), "Bolinostea"... eta anitz eta anitz geiago.

BOLO. Badu izen onek ere "Bolu" rekin zer ikusirik. Nere ustez, "Bolu"ren aldakuntza ez baiña bera bait da errota adierazteko Karisti eta Autrigoitarren egiazko izena: BOLO eta ez BOLU. Zergaitik? "U" izkia "O" biurtzen ez dan bezala, "O" oso errez eta oso maiz biurtzen bait da "U", batez ere karistiarren artean. "Bolonbide" eta "Bollobarrin" (Bollo-barrun? Bai bait daiteke "barrin" ori "barrun" esateko bizkaieraren arabarkera bat izatea. Izkuntzalarientzat uzten dedan ikergaia!).

BOLO izaren enborra lez daramakiten toki-izenak baditugu ugari. Ona baztuk: "Bolonbitate", "Bolonbideburu" eta "Bolonzubi" Araba'n; Boloki, Napa-rroa'ko Luzaide'n (erderazko "Valcarlos'n); BOLOKI Laburdi'n eta Bolloki Araba'n abizenak dira. Baiñan badaiteke azkeneko auek "errotatoki" ez baiña bolo-toki, "juego de bolos" izatea? Bai ote? Ez dakit b... bolo jokatzeko tokiari, "bolotoki" ez baiña "bolatoki" esaten bait diogu euskeraz. Bada gaiñera Laburdi'n BOLOKE bat, eta ez da gauza ziuerra "Boloki" aren aldakuntza danik.

Abizen bat bera, Araba'ko eta Laburdi'ko "Boloki" bezala bata bestearengandik aski urruti dauden tokietan agertzeak ez zaitu batere arritu bear. Ikus zergaitik:

1º: gure abizenik geienak gure jatorrizko etheen izenak dira. Baita erri-izenak ere, baiña bein baiño geiagotan errien izenak aun aurrena eraiki zan etxearen izenetik eorriak dirala dirudi. "Zarauz antes que Zarauz", arrandiki dio Zarauz abizenaren armarripean ezarritako esaldi batek. Etxe oien izenak, berriz, etxegilleari lurraldeak eman zizkion gaietatik sortua izaten ditugu: "Bidazpi", "Bidegain", "Pagoeta", "Ibaiondo", "Errekalde"... Ta, jakiña, gai oiek sarri aski ez dira toki batekoak bakarrik izaten. Orrela, guk adibidetzat jarri ditugun "bide", "pago", "ibai", "errekak", etxearen izen bat asmatzeko non nai aurki dezazkegun gaiak dira. Ezta beraz arritzekoa, Errekalde, laburtuz "Rekalde" izen-duan etxe bat Bizkai'n, Laburdi'n, Araba'n, Zubero'n edo beste non-nai ikusi aal izatea.

Gogoan ongi artu bear duten gauza, beren abizenaren ikurraren billa dabil-tzan guztiek. Araba'ko edo Zubero'ko edo beste nonnaiko REKALDE oietatik bakoitzak bere ikur bereizia izaten bait du. Jakin du, beraz, ikur-billa dabillan errekalde tar orok nongo "Rekalde" etxetik datorkion bere jatorria.

2'gn: Abizenak errez aldatzen dira tokiz-toki. Aldatzen dira errien eta etheen izenak ere. Ez bait da mirespengarri "Bidazpi" izeneko baserri bat bidearen gaiñean eraikirik ikustea. Orren arrazoa? Baserri ura, lenengo aldiz egiña izan zanean, bidearen azpian egiña izan zala. Suak edo beste edozerk ezereztu zuanean, "Bidazpi"ko etxejojaun berriak bere baserria bidearen gaiñean birregin zuala, an aize garbiagoa izango zualako, edo soilki goien bizitzea atsegi-ñago zitzaiolako beean bizitzea baiño. Ta, jakiña, bere jatorriko etxeak "Bidazpi" zeritzalako eta berak bir-erakitzen zuan etxea ainzuzen Bidazpi ura zalako, BIDADZI izendatu zuan bide-gaiñean bir-erakitako baserri berria.

Etxeek, eta erriek, egoitzaz aldatzen dutenean, izen-eta guzti egiten duten aldakuntza ori.

Baiñan etxeek eta erriek tokiz aldatzen ba'dira ere, askoz geiago aldatzen dira abizenak. Ez da jakingaitza, orren zergaitia: Bizirik ez duten gauzak baiño

askoz errezago ibiltzen bait dira tokiz-toki gizakumeak, tokiz-toki beren abizenak eramanez.

Abizen bat, tokiz-toki ibilli dalako, Gipuzkoa'n, Benaparroa'n eta Araba'n agertzen zaigunean, zarrena nongoa izan daitekean? Ori, soilki dokumentueta-
ra joz aska dezakegun arazoa da.

IGARA, Bardulitarren, Baskoindarren eta Akitaniarren itza da. Sortalderago Krist'aurreko antziñate artan itz ori bera erabiliko zuten seguruaski Ueszitarrak, Ilergetarrak, Zerretiarrek, eta aruntzagoko jendeek, Mediterran-ltxasoaren ertzetaraño.

Igarak baditu aldakuntza batzuk. Aldakuntza oiek euskalerrri guztian agertzen dira aski nasirik. Alare:

"IGARA" bera bereiziki Bardulitarrena dala dirudi. Orrela, adibidez, Tolosa'n "Igarondo" auzoa. Araba'ko toki-izenak dira "Igarate", "Igara" eta orrelako beste bat edo bat. Baiña Bardulitarren lurretan aurkituko'ituzu.

"Igera" Baskoindarra geiago dala dirudi. "Igerabide" da ni neronen laugarren abizena; lau mendez Naparroa'ko Araiz aranean dagoan Arribe errian bizi-rik egon dana, baiñan Arribe'ra, baiñan Arribe ontara Gipuzkoa'ko Baliarrain'dik XV mendean etorria. Araba'n ere bada, bazan beintzat 1.749'an, "Igeria" izeneko alor bat, baiña Kontrasta'n, Baskoindarra izandako lurrean.

*** *

EIARA, EIERA, "Igara"ren aldakuntza bat besterik ez da, gaur Iparreuskalerriko toki eta abizenetan aurki daitekeana. Nere laugarren abizena adibidez, "Igerabide" an era auetaz ikusiko duzu idatzia: "Eyharabide", "Eiherabide" eta "Iharabide".

Ez bezate azkeneko era IHARABIDE, edo (E)IARABIDE ori azturik utzi, beren abizenetan "Iara", "Iyara", "Ijara" ala "Iera", "Iyera", "Ijera" bat daramakitenek abizenaren etimologi-billa asten diranean; sei itz oietako bakoitza "EIA-RA" edo "EIERA"ren laburpena izan bait daiteke.

Iparreuskalerriko abizen edo toki-izenak dira baitare "Iherategi", "Eyarachar" (oroi "CH" ori "X" agoskatzen dutela), "Eyara", "I haralarrezahar", "Deyheramendy" ("De Yhera-Mendy), eta 1.174'ko "Laureieteta" ("Lau-"R" doiñu-goza-
gaillua-eiera-ateta?)... eta abar eta abar.

*** **

OBARENES itza aldizkari onen beste zenbaki batean aztertua dugu-ta, ez diogu gaur izen orri asti geiegirik emango. Mendi-kate baten izena da. Mendi-kate orrek, Ibero ibaiaren ondoko Bilibio-Aitzean asi, eta, egoaldera joz, Zellorigo-zear, Errioxa ta gaur burgostarra dan Miranda-aldeko arana bereizten ditu, eta gero, besoa sarkalderuntz okertuz, Miranda-alde ortako eta Bureba'ko lurraldeak.

Beso ortan dagoz Pankorbo'ko erria eta izen ortako arkaitzartea. Larruki zarretan "Pankorbo" izenik ez duzu ikusiko. Izen orren orde, PONTTE CORVO emanen dizute: ZUBI OKERRA.

Ez dut ezer sinistuerazi nai, ez dut ezer onartuerazi nai, baiñan ezer esango ez ba'nu bezala, esan nai dut alaere, gure egoaldero lur aietan... bazala antzi-

ñate artan... ZUBI OKER'artatik ez ain-ain urruti... izena OKER URI zuan erri bat.

IX mendean lurralde oiek danak euskaldunak ziran. Autrigoitarrak jatorriz, eta IX mendean arabarrak.

**

MOLINA DE OLIVARES.- Izen au ez da larruki ontakoa, baiñan beste Molina de Ovarenes ori aztertzerakoan etorri zait oroimenaren atarira sarrera eskatuz, eta pozik iriki diot atea, euskal-izenak nolako aldakuntzak jasan bear izan dituzten adierazteko, bera bait dut izan daitekean izenik egokiena.

Izan ere nork uste izan dezake OLIBARES euskal-izen bat dala? Ba, Zeanuri'ko baserri batek Olibares deritza.

Norbaitek Sueziko ipar-iparreko toki batek PARMER deritzala entzungo ba'lu, berealaxe pentsatuko luke Parmer arek palmondoekin zer ikusirik ez duala. Ludiaren ipar-buruko lurralde aietan palmondorik ezin bait daiteke bizi. Berdin pentsa bear dugu Zeanuri'n oiñ-etxe edo, berdin dana, jatorri-astapen dan etxe batek bere izena Olibares duala ikustean. Oliiondoek ez bait dute Zeanuri'n zer egiñik.

Beraz, errez pentsatu daitekean gauza da izen gaztelar ori beste izen bate-tik, euskal-izen batetik aldaketa-bidez sortua dugula. Aldakuntzagintzaren nolakotasuna jakiteko, naitanaiez dokumentuetara jo bear dugu.

Eta ori egin zuan Akesolo'tar Lino Aita karmeldarrak. Ezta arritzeko gauza; Lino Akesolo'tarra, Euskerazaintza Erri-Akademiaren lenengo Lendakaria, gizon jakintsu eta euskal idazlerik onenetakoa izateaz gaiñera, liburutegietako xagu kuxkuxlari neka-eziña ere izan bait genduan.

Oraingoan, erdal-izen oni-buruz, bazuan gaiñera arrazoi kilikagarri bereizia. Bere bigarren abizena OLIBARES bait zan. Zeanurin Dima erriaren OBA au-zoan, mendi-gain-gaiñean zegoan baserri batean jaiotako Lino'k, Lino Akesolo Olibares zuan bere izen osoa.

Asi zan lanean: Aurrena jaso zuan zitua etimologi parregarri bat izan zan: "Olibares ori beste euskerazko izen baten aldakuntza zala eta OILLO BERF7I esan nai ebala". "Zeanuri'ko Olibares ori ez ei zan erderazkoa, euskerazkoa baiño, OILLO BEREZIA edo izana eta eskribau erdaldunen batek oker idatzi eta OLIBARES izatera aldatua" (4).

Egiatzko etimologiaren billa aurrera jo zuan Lino'k eta, Zeanuri'n bertan, Ipiña auzoko Andra Mari elizako liburuetan, XVI mendeko bataio-agiri batean aurkitu omen zuan oiñ-etxe orren izena: OLLIBARES. "LL ta B ta guzti idatzia". "01 li"- "Bares" ebaki genezake, beraz, izen ori.

Arrazoi du Lino'k "OLLI" ori, eta baita bere aldakuntza dan "ULLI" ere, maiz aski "URI" ren aldakuntza izaten dala dioskunean: "Iñoiz agertzen da Uribarri, eta bai Ullibarri ere, OLLIBARRI biurtuta".

Zer ote da BARES? Lino'ren ustez, "baras" edo "baratz". Adibidez "Olazabares" "Olazabaratz" izan daitekeala dio; eta ezagutzen omen du "Uribaras" dan abizen bat ere: "Uri"- "Baratz".

Ez dakit zer esan Lino'ren azkeneko "bares"- "baratz" orri-buruz. Pozik aitortuko nioke, gure onerako bizirik jarraituko ba'lu, egia izatea baleikela esan digun ori. Ezer geiago esatera ez naiz ausartzen.

(4) "Karmel", 1991-3. 5-11 or.

Baiñan atseginki jasotzen ditut bera jaio zan auzoaren izena, OBA, naiz laburki, ikertu dugun OBARENES izenaren etimologigintzari bidea irikitzeko: "Oba"- "Renes". Eta, Lino'k bere "bares" en azkeneko "Z" izkia "TZ", askotan pentsatu izan dut Obarenes'en "S" ori ere "TS" biurtu bear dala. "TS", euskeraz, atzizki ugaritasun-adierazlea dugu.

Izen-aldaketa jakingarri batzuk aipatzen dizkigu Lino'k bere idaz-lan ortan: "Euskal abizenak, gizaldiak zear, aldakuntzatxo bat edo beste izan dirana (dabela?) egia dala dirudi. Esaterako, "Belendiz" izan dana iñoiz MELENDEZ biurtu el da. "Agirregomezkorta" edo "Gomezkorta"ren GOMF7 ori Gamiz izen ei da lenago".

* *

Amari dezadan gaurko jolasaldi au, askotan euskeratik erderarako aldakuntzak irudimen bero baten emaitzak izan oi dirala esanez. Ar dezadan, diodana adierazteko, LAKOIZKETA abizen naparra, bere ikurra ta guzti.

Alboan daukazu abizen orren ikurra: lamin bat, bere burua orraztuz. Ikur orren arrazoa? Nere ustez — eta jokatu nuke lepoa ez naizela atzipetzen — Lakoizketa oiñ-etxeko Jaun naparra bere jatorriko etxearentzat armari baten billa asi zanean, zer asmatu jakiñ-ez-ta, buru-barruan bere etxearen izena auznartu ta auznartzen asi zan etimologibilla, Iruña'n-eta ibillia zalarik gizon jakintua bait zan bera.

Eta bat batean, zapla!, bere bekokia jo zuan eskuz, "aurkitu diat" oiuka. "Lakoizketa", naitanaiez "La Coqueta" izan bear dik ezpairik gabe"! Eta, "La Coqueta" arentzat zer ikur egokiagorik, lamin polit, txukun, maitagarri bat baiño?

Ala ipiñi zuan bere etxearen armarrian lamin gazte kuttun bat, orrazketa lanean ispilluari begira, itxaso urdiñaren gaiñean gerritik gora lerden. Izan ere, lamin baten gerritik beerakoa, nori lezaiokie ikusgarria gertatu?

"LAKOIZKETA"ren etimologia? Bai, motell!: LA COQUETA. Orra or bera nere etxearen atari-gaiñeko armarrian dotore!

Ori egia dan? Baleike. Nik, ordea, ez dizut egiazkotzat esan; irripartxo bat egin dezazun baizik. Baiñan egia ez ba'da ere, ondo asmatua danik ez dit beintzat iñork ukatuko!

Latiegi'tar Bixente





Jesus'en lagundiko

ARANA'tar JOSE IGNACIO aita..!

Azkoiti'k izan dituan gizon jakintsu ta euskaltzaille artean, aipatu izan ditugu iñoiz Munibe'tar Francisco Xavier Maria (Peñaflorida'ko kondea), Mogel eta Elgezabal'dar Bixenta Antonia eta Aizkibel eta Epelde'tar Jose Francisco, leengo batzuk aipatzearren...

Baiñan ez degu sekulan aipatu izan Arana'tar Jose Ignacio, Jesus'en lagundiko aita, Eta ez, merezi ez dulako.

Villasante aitak, bere "Historia de la Literatura Vasca" liburuan, onela ematen dio asiera Arana aitaren bizitzaren laburpenari: "uno de los vascófilos más sabios e ilustres que florecieron hacia 1.880, fué, sin duda, el jesuita F. Arana".

Penagarria da benetan, baiñan Parrokietako liburak Donosti'ko Apaizgaitegian ditugu gaur bilduak, eta ezin esku-artean izan, nai ditugun bakoitzean.

Eta gogoz irakurriko nuke nik gaur, berriro, Arana aitaren bataioko agiria. Bertan ez bait-zaigu bere ama amezketarra zanik esaten bakarrik, baita beste "zerbait" ere, nik orain, besterik-gabe, egiztatu ezin dezakedana...

1838-garren urteko maiatzaren 26'ean jaio zan Jose Ignacio Azkoiti'n... Gure basarrietako batean...? Gure kaleko etxetako batean...? Ona-emen, sekula jakin ez dedan gauza. Nik-neronek basarrikoa joko nuke, baiñan ez dakit, jakin, ezeren-ezer. Bestalde, basarri bateko mutiko bat izateko, ez ote zan eskola geiegieta joan...?

Bere lenengo eskola Azkoiti'n, Amezkata'n eta Ezkiogan ikasi zituala, esaten digute danak... Baiñan gaztelera, latera ta gerquera ikasteko, Azkoiti'n ez ezik, Albiztur'en, Aranzazu'n eta Iruña'n izan zala, esaten digu Manterola jaunak...!

Aranzazu'n egon zanik, ez dago dudarik txikienik ere. Ba'zan an, konbentutik-at, latera erakusten jardutzen zuan lekaide bat: Albeniz'tar Jose Domingo aita (azkoitiarra au ere) ta onen ikasle izan zan umetan gure Arana aita ere... Eta ez zitzaion ain-gaizki joango, oroimen ederra gorde bait-zuan beti Aranzazu'ko elizaxo ontarako. Onela idatzi bait-zion Orduña'tik Arantzazu'ko nagusi zan Epelde'tar Jose Esteban'i: "por gran dicha mia, tuvieron (ahí) principio los primeros albores de mi vocación religiosa". Eta ez det emen esan-gabe utzi nai, Villasante aitak bere liburuan dion au: ain-ezaguna ta ainbeste biderrez abestu dan "Arantzazu'ko ama birgiña" abesti ederra, gure Arana aitarena dala ziurki...

16 urte zituala, 1854-garren urtean, sartu zan Jesus'en lagundian, eta España'ko eta Frantzia'ko bazter batzuek ezagutzeko zona izan zuan...

32 urte zituala, 1870-garren urtean, argitaratu zuan bere lenengo liburua, erderaz bera: "vidas de algunos claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesus".

Bi urte geroago, 1872-garren urtean alegia, argitaratu zuan bere "San Ignacio Loyolakuaren bizitza laburtua, euskeraz eta gaztelaniaz", eta bi-erazkin ezarri zizkion: euskal-izkuntza eta euskal-literaturari buruzkoa bata, ta euskal-idazkerari buruzkoa bestea.

1880-garren urtean, sortu zuan Manterola'tar Jose jaunak "Euskalerria" izanezko aldizkaria. Ta aldizkari onetan idazten zuten orduko, Bidasoa-alde bietako, euskalzale ta euskerazale ospatsuenak. Ala nola Arana'tar Jose Ignacio, Artola'tar Erramun, Arrese-beitia Felipe, Azkue'tar Eusebio, Baroja'tar Serafin, Etxegaray'tar Karmelo, Abbadie'tar Antoine, Elizanburu'tar J.B., Vinson'tar Claudio, Soroa'tar Marzelino, Adema'tar Oratien, Urruzuno'tar Pedro Migel Arana'tar Bizenta, Antia'tar M.A., eta abar eta abar...

43 urte zitularik, Orduña'ko ikastetxera joan zan. An zegoan ikasle Arana Goiri'tar Sabin ere. Eta naiz-eta gure Arana au baiño 27 urte gazteagoa izan Arana-Goiri'tar Sabin, ala ere oso-lagunak egin ziran eta eztabaida asko izaten zituzten, euskera-zala-ta. Eta bien arteko artu-eman auek ez ziran, noski, azalekoak izango, Sabin'ek bere "Lecciones de Ortografía del euskera bizkaino" liburuan, gure Arana aitaren aipamen bat egiten duanean...

1882-garren urtean argitaratu-erazi zuan Tolosan, Kardaberaz aitak idatzirik utzi zuan "Ama veneragarri Josefa Sacramentu guciz Santuaren Vicitza ta vertuteac" liburua.

Garai ontakoa degu ere, Iruña'ko "Revista Euskara'n" Mendiburu aitari-buruz idatzi zuan "Notas bibliográficas sobre el Cicerón euskaro P.S. de Mendiburu"...

Aldi artan eztabaida aundia sortu zan "liberal-izatea" pekatu ote zan ala ez? Ordurako idatzia zeukan Sardá eta Salvany katalandar apaizak gai oni buruzko liburu bat: El liberalismo es pecado, eta 1888-garren urtean euskerara biurtu zuan gure Arana aitak eta izen onekin argitaratu: Bai, pekatu da liberalqueriya".

1890-garren urtean, eta 52 urte zitularik, Durango'n bizi zan gure Arana aita, eta an argitaratu zuan bere "Disertación sobre la ortografía euskara" idaz-lana...

57 urte zituan, Henao aitaren "Averiguaciones de Cantabria" liburuari 6-garren erazkiña ezarri zionean.

Baiñan Arana'tar Jose Ignacio aita, idazle ugalkor izateaz gaiñera, olerkari jatorra izan genduan. Bere olerki oietako batzuek Manterola'tar Jose jaunak argitaratu zuan "Cancionera Vasco'n" arkitu dezazkegu, eta baita-ere Auñamendik argitaratu duan "Literatura" lenengo alean, eta Onaindia'tar Xanti aitak orain urte batzuek argitaratu zuan "Milla euskal-olerki eder" liburuan... Bere olerkietatik aipatuena noski "Euskaldun izkribibalarien gaiñean" deritzana da. Arana aitak, bai euskeraz eta bai erderaz eta bai erderaz idatzi zuten euskal-idazleen aipamena egiten du bertan. 16 aapaldi ditu olerki onek.

Eta leen aipatutako "Milla euskal-olerki eder" liburuan, MAGNIFICAT'en itzulpen bat ere ematen zaigu Arana aitak itz-neurtuaz egiña.

Oraindik gazte, 58 urte besterik ez zitularik, il-zan Jose Ignacio Arana aita, Burgos'ko Oña'n 1896-garren urteko abenduaren 19'an.

Goian bego azkoitiar jator au...!

Anastasio Albisu Ayerdi.



APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA

Eliz-Edesti-Sorta.

Eu skerazai ntza.1992 .

Latiegi'tar Bixente.

Aurretik ere baditu Eliz-Edesti-Sorta onetan beste lau liburu argitaratuak: "San Ignazio'ren Denborako Eliza" (1447-1623). "Denbora berrietako Eliza" (1623-1814); "Demokraziaren Denborako Eliza" (1814-1914); "Gure Denbora Auetako Eliza" (1914-1978). Oraingo au bosgarrena du eta Elizaren asieratik dator (30-323). Seigarrena ere aterea du, eta zazpigarrena eta zortzigarrena ere bidean ditu.

Liburu au moldatzeko berealdiko liburu-zerrendak erabili ditu. Geiago ezin. Eta, zeatz agertzen dizkigu Eliza onen bizi-xeetasun guztiak Latiegi'tar Bixente'k.

Asiera emateko Eliza Mizteriozko Izakia dala agertuko digu. Jesus da burua, anima berriz Espiritu Donea Jainkoagandiko biziaren sortzaillea. Kristauak, Jesus'en Gorputz Mistikoa osatzen duten gorpuzkiak dira. Guzti orí, izakiaren gaiñetik dagoen eskutuki utsa. Badu ikusten dan Erakunde bat ere eliza onek: Baditu agintariak, jarraitzalleak, ekintzak historian zear eta oiek bai, oiek ondo-txo ikusten eta ezagutzen dira, Elizaren Edestia osotzen bait dute.

Jesus'en jaiotza orain 1993 gertatu zala diogu, Erromaren sorreraren 749 urte-mugan. Egia esan, asieran ez zuen iñork Jesus'en jaiotzaren kezkarik; naikoa zuten bere eriotza eta piztueraren berri jakitea. Eta ori bazekiten; jaiotzarena, berriz, 540'garren urtean Dionisio Exiguus lekaideak asmatu zuan. Asmaketa ori ez zuan bear diran xeetasun guztiekin egin eta badirudi erruren bat badala eta Jesus lau urtez aurretik jaiotz zala Dionisio'k esan baño. Asmaketa onen aurretik, urteak Erroma'ren sorreratik asten ziran; gero, asi ziran Jesus'en jaiotzetik aurrera zenbatzen.

Jesus judutarren lendabiziko illearen 14'ean il zan, 33 urte bete ondoren, Pazko-jaietan. Ostegunez arkumea jan oi zuten arratsaldez, Ejipto'tik irteeraren gomutaz eta oroimenez; urrungo egunean il zan eta igande goizean piztu.

Jesus, Cesar Augusto Octavio'ren egunetan jaiotz zan, eta 14 urte jaiotz onen ondoren il zan César Augusto. Ona gertaera batzuen zerrenda:

14'ean: Tiberio, enperadore berria.

37: Tiberio'ren eriotza.

Caligula enperadore.

41: Caligula'ren eriotza.

Claudio enperadore.

49: Jerusalem'go Konzilioa.

- 50/51: Paulo'ren Tesalonikatarrei lenengo epistola: Testamentu Berriko idatzirik zaarrena.
- 54: Claudio'ren eriotza.
Neron enperadore.
- 64: Erroma sutan: Kristauei zigorra lenengo erasoaldian.
- 66: Judutarrek Erroma'ren aurkako iraultza.
- 67: Pedro eta Paulo'ren eriotzak.
Lino Aita Santu.
- 68: Neronen eriotza.
- 68-69: Iru enperadore bata bestearen ondoren: Galba, Oton eta Vitelio.
- 69: Vespasiano enperadore.
- 70: Tito'k, Vespasiano'ren semeak, Jerusalem menperatu eta erre.
Ondoren enperadore.
- 76: Anacleto Aita Santu.
- 81: Tito'ren eriotza.
Domiciano enperadore.
- 88: Clemente Aita Santu.
- 96: Domiciano'ren eriotza.
Nerea enperadore.
- 97: I Evaristo Aita Santu.
- 98: Nerva'ren eriotza.
Trajano enperadore.

Idaztiak

Testamentu Berriko idaztiei buruz, au esaten digu Bixente'k: ez dirala izenak eta egilleak alkar ondo konpontzen. San Marcos'ena bai, berea omen da; besteak, San Mateo eta San Lucas, ordea, ez. San Lucas'ena eta Bidalien Egiñak, biak batena dirala... San Joan'ena, berriz, San Joanen Eskolakoak ornen da: Aren ikasleek San Joan'i entzundakoa idatzi eta borobildu ornen zuten...

San Pablo'ren epistoletatik, bereak, 7 ornen dira: Erromatarrena, Galaziarrena, Filipotarrena, Gorintotarrenen biak, eta Tesalonikatarren Lenengoa. Besteak San Pablo'ren Eskolakoak ornen dira...

San Pedro'renak, aren ikasle batzuenak ornen dira: berari entzundakoa idatzi eta, bere omenez, bere izena ipiñi zieten. Jacob eta Juda'renen egillea ez dakigu nor izan zan.

Apocalipsis eta Joanen epistolak, onen Eskolakoak ornen dira.

Sinistu bearrezkoa

Gai oneri buruzko jokabidea au da: Sinistu bear da Jainkoa dala idazti auen egillea, ori erakusten bait du Elizak. Norenak diran, ordea, eta noren eskutik idatzita dauden, ori ez gaude sinistera bearturik.

"Gizakume oiek nor izan ziran erakustea, (ori) ez da Elizari dagokion gauza. Elizarena, zera da: Liburu oietan Jainkoagandik idazlea-zear datorrena eta idazle beragandik datorrena bereiztea; edo, berdin dana, Liburu oietan, Jainkoaren irakaspena zen dan, eta zer idazlearen kultura dan, munduari erakustea; eta Jainkoagandiko irakaspen orren zentzu zuzena gizakumeoi azaltzea, ortarako bai bait du elizak - eta Elizak bakarrik bait du - Gogo Deunaren la-guntza berezia".

Palestina=Israel, Elizaren sorterrria

Lurralde txikia da (34.000 kilometro laukoi), Afrika eta Asia'ren bideguru-zean kokaturik dagoena, eta Europatik gertu. Gure artzaiek, Histori-aurreko Neolitiko-aroan, aberegintzan asi baño 4000 urte aurrerago asita zeuden Palestina'n lan oietan eta nekazaritzan ere. An dagoen Jericó erria, Prehistoria guztiko uririk zaarrena.

Antxe sortu zan Jesus Nazaretarra, Mediterranee itxasoa eta Jordan ibaia-aren atartean. Ifar-alde-rik an dago Genezaret'eko zingira borobilla 168 kilometro laukoi dituen. Zingira onen beste bi lizenak auek dira: Galileako itxasoa eta Tiberidades'eko itxasoa. Aurrerago, Hermon mendia dago 2.814 metro gorakoa. Mendi onen oñetan sortzen dan Jordan ibaia gero Ur Illetako zingirara bere urak botatzen ditula. Mar Muerto deritzan zingira au, Mediterrane itxasoa baño 397 metros beerago dago.

Jesus'en garaiean iru zati zituen: Galilea ifar-alde-rik, Judea ego-alde-rik eta Samaria bien bitartean.

Galilea

Naiko zelai eta nekazaritzan naiko aberatsa. Antxe dago Jesus bizi izandako erria, Nazaret, eta ortik datorkio Jesus Nazaretarra izena. Bere zingira ertz-ean zeuden Cafarnaum erria, erromatar gudarien egoitza, eta Betsaida, Pedro eta Andres'ena. Ingumari aietan ibilli zan Jesus eta bertako arrantzale talde-txo bat aukeratu zuen laguntzalle.

Samaria

Egoalderago dago, menditsu eta legor. Erdia israeldar eta beste erdia asi-riatar, odolean bezala, ala erlijioan ere. Jerusalem'erako joera ebagitzeko, erre-geak eleiza eraiki zuan Garizim mendian. Judutarren etsai ziran.

Judea

Ego-aldean. Menditsu au ere eta oraindik legorrago. Bertan zegoen Jerusa-lem, Israel'go iri nagusia eta benetan santua bertan zegoalako israeldarren jauretxe bakarra. An erail zuten Jesus Nazaretarra bere erriaren eta erlijioaren aurkako jokabidea zeramalako. Ego-alderago dago Negeb deritzan lekaro le-gorra, Akaba'ko itxas-ertzeraiño.

Erromatarrak Israel'en

Pompeio erromatar gudariak menperatu zuen Palestina Jesus jaio baño 63 urte lenago. Palestina osoko agintaritzza Erodes, Idumea zan Negeb'eko erre-geari, eman zioten. Antipater, Erodes'en aita, Idumea'ko buruzagi bat zan eta Pompeio'ren laguna; orregaitik Judea'ko agintzari izendatu zuten eta bere seme Erodes (Aundia) Galilea'koa.

40 urte Jesus aurretik, Erroma'ko Senatus Lege-biltzarraK Erodes Palestina osoaren errege aukeratu zuen eta iru urte geroago etorri zan Erodes, 36 urteko gizaseme gordiña, Jerusalem'era agintaritza ori jasotzera.

Erroma'n Octavio eta Antonio'ren arteko burruka sortu zanean, Erodes'ek Antonio'ren alde jokatu zuan. Antonio eta Cleopatra'k burruka galtzean, euren buruak irail zituzten; Erodes'ek, ordea, ez zorionez. Palestina'n pakea gordezko Octavio'k Erodes'en bearra zuelako, orregaitik utzi zuan Erodes bere agintzaritzan.

Octavio'k, Cesar Augusto izena artu zuenak, bazuen laguntzaille bat: Vespasiano Agripa buruzagia, (fito'ren aita). Onen lagun miña izan zan Erodes. Aita eta semea, (Vespasiano eta Tito) biak eldu ziran enperadore izatera. Octavio Cesar Augusto eta Erodes (Aundia)'ren garaian jaio zan Jesus, Octavio'ren pakea lurralde ezagun guztietan irauntzen zuan bitartean.

Erodes'ek, beretzako, jauregi eder bat jaso zuen Jerusalem'en, bertako jauretze edo eliza berritu eta erria edertu ere bai. Alaz ere, Idumeatarra zalako, gorroto zioten judutarrek; baita, Israel Erromatarren menpean edukitzen, laguntzen zuelako. Jesus jaio eta lau bat urteetara, il zan...

Ondoren Erroma'k Arkelao, Erodes'en semea, izandatu zuan errege, aita-ren ondorengo; baita, bi urtez, erbesteratu ere, Israel probintzi biurtuz. Probintzi onen gobernadorerik famatuena Poncio Pilato izan zan. Galilea'ko errege, berriz, beste Erodes bat zan, Antipas'en semea. Pilato eta Erodes, bi auek, izan zuten zer ikusirik Jesus'en eriotzarekin.

Ogeita amairu urte zituela erail zuten Jesus. Andik beste ogeita amar urteetara judutarrek Erroma'ren aurka jeiki ziran. Tito jeneralak, Vespasiano enperadorearen semeak, erre zuan jauretzea eta erria, milloi t'erdia judutar ezpataz ebagi zitun triskantza ikaragarri batean. Eta, gelditzen ziran apurrak mundu osoan zabaladu zitun.

Israel'go Gizartea

Bi talde nagusi zeuden Jerusalem'en eta Israel guztian: Farisaitarrak eta Saduzeoak.

Fariseoak:

Erljio-talde bat osatzen zuten, tradizio eta oitura zaarren maitale. Erriarekin arremen biziak zituzten; baña, erlijio-aginduak betetzean, oso itxura zaleak ziran. Askotan azala bete ezkeroz, konforme. Moises'en Legeari erantsitako arau, aolku eta abarren maitale, aoz beintzat. Askatuko zituen, David'en antzeko, Mesias baten itxaropenean bizi zira eta eurok gidatzen zuten erri xeea. Jesus'en etsai agertu ziran asiera asieratik Jesus bere burua Mesias egiten zuelako; ez bait zuen Jesus'ek eurok espero zuten Mesias'en antzik ere.

Saduzeoak:

Erljio-erakundearen agintariak osatzen zuten talde au. Politikariak eta Erroma'kin konponketak egitearen aldeko. Aberatsak eta jauretsetik probetxu onak ateratzen zituztenak. Biblia (Pentateuko batez ere) onartzen zuten bakar-bakarrik, aozko tradiziorik, ordea, ez iñolatan ere. (XVI'garren eunkian Protestanteek egin zutena berbera egin zuten auek aurretik). Aragiaren piztuerarik ez dago eta mundu onetan zigortzen ditu Jainkoak gizonen okerkeriak. Aberasta-

sunak Jainkoaren doia degu. Israel'go agintaritzak euren eskuetan zegoen. Anas eta Gaifas ziran Sanedrin'eko buruak; ango aulki onenak eta pixu aundiena zutenak eurenak ziran. Auek erabaki zuten Jesus'en eriotza, (euren ustez) erriaren onerako. Ustegabeko profetak gertatu ziran. Eta, auri atsegin ematearren, erail zuan Erodes'ek Jesus'en lengusu zan Santiago Apostolua.

Bi talde aundi auen tartean bazegoen beste taldetxo bat ere:

Zeloteak (Zelatariak):

Ez ziran asko baña, bai indarkeriaren aideko abertzale sutsu purrukatuak, beti Erromatarren aurkako burrukarako prest. Bere burugabeko iraultzak eraman zuan Israel ondamendira, Jesus jaio ondorengo 64'garren urtean, Tito'k jauretzea eta Jerusalem erre ondoren milloiti'erdiko bizien triskantzak egin zituenean. Ez ziran bere orrekin baretu eta andik 61 urteetara barriro burrukara eta berriro triskantzak. Arrekin amaitu zan arazoa betirako. Gaur egun israel-darrek beste arazo batzuek izan dituzte aizkeneko munduko gerra amaitu ondoren, Israel'go laterri berria Palestinoen bizkarretik sortu zutenetik.

Beste taldetxo berezi bat ere bazan:

Esenioak:

Lekaidetxeetan, monastegietan, bizi zan erligiosoen taldetxo bat ziran Esenioak. 'Qum Ran' deritzan, Itxas-illaren inguruko lekaidetxean ere bizi izan ziran. Erromatarren erasoaren denboran zenbait Bibliaren zati leize zuloetan gorde zituzten, buztinhezko ontzietan. Zati oiek Jesus jaio aurretiko III'garren mendetik asi eta Jesus il ondorengo 64'garren urtearen bitartekoak dira. Isaias-liburua osorik dago eta orrekin batera beste atal asko Jesus jaio aurretik idatzia eta gaur eskuetan erabiltzen degun Bibliaren zati berdin-berdiñak. Aurkitu berriak dira.

Esan izan dute norbaitzuk Kristau Eleiza eseniotarren adar bat besterik ez dala; baña, ori ez da egia, ez bait dute alkarren antzik ere. Esenioen asmo bakarra mundutik aparte, bere lekaroan gordeta, bizitzea zan; Jesus'ek, berriz, bere Apostoluei auxe dietze: –"Zoazte mundu zabalera, Berri-ona aldarrikaterra". Jesus ez zan bakardadean bizi izan, jende artean baño. Eta berdin aren ikasleak ere. Esenioak penitentzi latzetara emanak zeuden; Jesus, ordea, otordu oparo batera deitzen ba'zuten, joan egiten zan, Esenioek sekulan egingo ez zutena. Auen mundua bere erria zan, besterik gabe; Kristauena, berriz, gizaki osoa.

Orra itz gutxietan agertu Israel'go gizartea. Oietatik kristau egin ziranak errietako jende xeeak izan zan; fariseo eta apaiz banakan batzuek ere bai.

Elizaren Sortzea

Jesus Nazaretarrak sortu zuan Kristau eleiza eta ezarri zizkion elburua eta bertarako bideak:

- a) Dotriña bat eta dotriña ori mundura zabaltzeko agindua.
- b) Dotriña ori utsik gabe erakusteko aalmena.
- d) Zazpi sakramentuak, Jainko-graziaren iturriak, azken elburua lortzen laguntzeko.

Agintaritza edo Jerarkia bat ere sortu zuan idazleen artean: Berak izendatu zitun eta berak eman zien legeak sortzeko aalmena, damu danari barkamena eta gaizkilleari zigorra. Eta, agintaritza ori da eleizaren ardatza: -"Zu zera arria eta arri orren gainean eraikiko det nik nere Eleiza... Eta, ni egongo naiz zuekin munduaren aizkenerarte".

Baztar guztietara eta garai guztietara zabaldu bear zan Berri Ona eta orretarako tajutu zituen bere Apostoluak. Eleizak duen guztia Jesus'ek emana du; bera da, beraz, Eleizaren sortzaille eta eraitzalle bakarra.

Pentecostes Eguna

Baliteke egun artako gertakizunak kontatzeko era 'genus literarius' bat izatea; baña, dana dala, egun artako gertakizunak benetakoak izan ziran. Pentecostes, judutarren festa egun ura, izan zan Eleizarekiko Edestiaren lenengo eguna. Aldatze miragarri bat gertatu zan Apostoluen barruan eta goiz aretan eman zioten bere ekintzari asiera, bildurrik gabe, zalantzarik gabe eta ziurtasun osoz.

Noiz gertatu zan ori?

Tiberio enperadorearen egunetan eta Ponzio Pilato Judea'ko gobernadorea zalarik. Aurretik ere Eleiza eratuta zegoen eta, txikia izan arren, osorik zegoen eratuta. Pedro agertzen zan buru kemenez beterik Eleizari asiera aman zioten goiz artan.

Amabietako batek, Judas Iscariotek, bere burua urkatu zuen eta aren ordeztan beste bat, Matias, aukeratu zuten beste Amaikek, Jesus'en bizitzaren, eriotzaren eta piztueraren lekuko izateko. Mundu zabaletik Jerusalem'era etorritako judutar guztiek, bakoitzak bere izkuntzan, entzuten zituzten Apostoluen goiz artako izketaldiak.

Diaspora

Atzerrira, Ninive errira, eraman zituzten preso Israeldarrak (bi zatitan zegoen banatuta Erria: Ifar-aldeetik Israel erresuma eta ego-aldeetik Judea'koa), Jesus jaio aurreko 721'garren urtean, Erroma iria sortzen ari zan une berean. Andik 200 urteetara, judeatarrak Babilonia'ra erbesteratuak izan ziran. 71 urte desterruan pasa ondoren, berriro itzuli ziran Judeara; baña, ez ziran joan guztiak. Batzuek an bertan galditu ziran betirako. Ninive'tik ez zan iñortxo ere itzuli.

Diasporako judutar geienak eta jakintsuenak Babilonia'n zeuden. An sortu zuten Talmud deritzan liburu-sorta. Gerora, ordea, Alejandria'ko juduek izan zuten garrantzirik aundiena. Uzta ondoren ospatzen zuten Pentekostes-jaiak, Jaunari eskerrak emateko. Eta Elizaren sortzeko egun artan, diasporatik etorritako juduek zebiltzen kaleeta Espiritu Santua aize-burrundara baten antzera agertu zanean.

Erbestean bizi zan judutar erriari deitzen zitzaion Diaspora izen onekin, eta garrantzi aundia izan zuen, Pentekostes egunetik asita, Elizaren zabalkunderako. Palestina'n milloi bat judu bizi ba'ziran, Diasporan bost. Erromatar Inperioko uri aundienetan beti izaten zan sinagoga bat gutxienez, judutarren biltoki eta otoitz-leku. Palestina'n bizi ziranek, la geienek, bazuten Diasporan senitarteko edo ezagunen bat eta orrek laguntza ederra ematen zien erbestera joan bear zutenean munduan-zear. Lenengo lana izaten zuten sinagogara agertzea

eta bertako buruak billatuko zien nun jan eta lo egin, baita lantokia ere, langilleak zirenez. Bazuten, ba, erbestean zeñekin itz egin. Sinagoga agertzen ziranean, buruzagiak ezer esan nai bazuten, esateko agintzen zien. Apostoluek orretaz baliatu ziran Jesus'en Berri Ona errez eta urrutira eramateko.

Jerusalem'era erromes joateko oitura zuten Diasporakoek, eta diruz ondo ornituak zetozen ezkerro, dirutza mardulak uzten zituzten jauretxean. Pentekostas egunean Pedro'ren erakutziak entzun zutenek, oiek izan ziran munduan-zear Jesus'en Berri Ona eta piztuera zabaldu zutenak. Entzun zutenen artean baziran jaiotzez judutar ez zirenak; baña, sinismenez bai judutarren erlijioa onartzen zutenak. Auetako asko ere kristau egin ziran.

Pedro'k egun artan azaldutako mezua auxe zan:

Jesus da salbatzalle bakarra.

Gurutzean erail zuten Jesus ura Piztu egin da.

Gu gera gertakizun oiek lekuko.

Bi arrazoi-bide:

Profetek aurretik igarri zuten Mesias, Jesus da.

Jesus'ek mirariak egin zitun ugari bere bizizan zear.

Mordoxka ederra egin zan kristau.

Eleizaren Santutasuna

Eleizaren lenengo egunetako berri ematen diguna Lukas da; baña, ez Eleiza osoarena. Bereiziki Pablarena ematen digu. Lukas'ek dionez, asieran elkarrean bizi ziran kristauak, elkar maite izanez eta guztien ondasunak guztien artean banatzen zituztela. Orrelako elkarteak aurretik ere ezagunak ziran Esenioen artean; ez zan ba gauza berria. Esan bear da, baita ere, ez zirala kristau guztiak orrela bizi.

Euren arteko eztabaidak ere izan oi zituzten. Lenengoa izan zan auxe: Grekotarrek (griego-mintzaira zuten diasporakoek) marmarka ari ziran, ondasunak zabaltzean, judutarren alargunei geiago begiratzeko zela eurenai baño. Arazo ori dala-ta, Apostoluek zazpi Diakono aukeratu zituzten ondasunen zabalketarako egiteko. Eta, euren izenei begiratu-ta, badirudi grekoen artekoak zirela.

Geroago beste eztabaida ere sortu zan erdaintzeari buruz: Baziran judutar kristauak jentillen artean zetoztenei, beste bearkizun bat, erdaintzea eta judutar sinimena artzea, ipiñi nai zieten. Ori dala bitarteko, Jerusalem'go Konzilioa eratu zuten Apostoluek. Orixe izan zan Eleizaren lenengoko Batzar Nagusia.

Eleiza santua da bere sortzaillea, bere dotriña, bere sakramentuak santu diralako; baña, kristauak ez dira santuak, santutasunera deitutako pekatari batzuek, baizik. Ori ikusteko naikoa da Pablo'ren eskutitzak irakurtzea.

Eleizaren aziketa

Millaka lagunek sarrera eskatu zuten Apostoluei egun artan entzun eta gero. Apostolu oiek egunero jarraitu zuten, errí guztiaren aurrean, Jesus'en eriotza eta piztuerari buruz itz egiten. Jesus erail eta andik bigarren illebeterako, Anas eta Kaifas'en Sanedrin ura berbera bildu zan apostoluekin zer egin era-

bakitzeko. Baña, Pedro'k aurpegira bota zien euren pekatua... Jesus'en gorputza Apostoluek lapurtu zutela esan zuten aiek berberak, daude emen epaitegian, Apostoluak epaitzeko. Ez diete lapurrak izan zirenik esaten; ez dituzte Jesus'en mirariak ukatzen, erri guztiaren aurrean egiñak zirelako; auxe bakarririk esaten diete: "-Izen ori ez aitatu geiago emen".

Illobitik gorputzak lapurtzearen zigorra eriotza zan judutar errian; Erroma'n, berriz, meatz-minetarako lan gogorra. Apostoluei ez zieten ez bat eta ez betea eman.

Oien antzeko arazoekin arduratzen da Bixente liburuaren 356 orrialdeetan zear, Eleiza Katakunbeetatik urten eta aizea libre artzea lortu zuan arte.

Baña, orrekin ez du naikoa eta, ondoren, beste liburu berri bat, ELIZAK ETA ESTADUAK BAT EGIN ZUTEN DENBORAKO ELIZA (306'garren urtetik 476'garren urtera). Iztegia ere badu eta 677 orrialde. EUSKERAZAINTZA'k argitaratua, 1 993'an.

Arranegi'ko Anes'ek
IV - 1994

IRU ESKUTITZEZ ERANTZUNA

TOMAS URIBEETXEARRIA BIZKAI'KO ALDUN JAUNARI (gazteleraren sorkuntzan euskerak izan zezakean eraginmenari-buruz)

Txartel atsegin bat artu-berria dut Uri beetxebarria Jaunarengandik.

Txartelak, bere goiko eskuin-ertzean Bizkai'ko ikurra darama, eta ikurpean onako esari au: "Tomas Uribeetxebarria Maiztegi - Foru Ahaldunduna"(1).

"Bilbotik, 1994ko Maiatzaren 4an

"Jaun eraspengarri eta estimagarria:

"Euskerazaintza aldizkarian idazten dituzun artikuloak, Erdi Aroko izenen inguruan, jakinminaren eta irudimenaren pizgarriak izan oi <ohi> dira eta atsegiñez irakurtzen ditut.

"Azkenegoan "Villota" itz edo izenaz diarduzularik, irakurleon laguntza ere eskatzen duzu.

"Begira, laterazko 'al+konsonantea'k, 'o+konts.' eman zuen gazteleraz, eta bearbada <beharbada>, euskeraren eta euskaldunen eraginik ere izan daiteke bilakabide onetan (honetan).

"Altu > oto, altariu(2) > otero.

"Villa alta > Villota, Villotilla,

"Torre Alba > Torroba.

"Penna Alta > Peñota.

"Calce > coz.

"Falce > foz, hoz.

"Beste izenik: Bargota, Nafarroan. Mo ntoto.

"Besterik gabe, aukera ondo datorkit zu begirunez agurtzeko".

**

Biotzez eskerrak eman ondorean pozik noakizu, On tomas, zure gutun orri al dedan ongienik erantzun bat ematera.

-
- (1) Barkatu eidazu, On Tomas: Nik eraspen osoz-sodagiot zure jardunkerari. Eraspen bera eskatzen dizut gure jardunkerarentzat. Guk ez dugu "H"rik erabiltzen, euskerarentzat alperrikakoa izateaz gaiñera arriskugarria ere badala iduritzen zaigulako ainzuzen. Orregaitik emendik aurre-ra zure txartelako itz danak atxerik gabe emango ditut. Alare, zure jardunker aganako, eraspennaren eragiñez, atxe-dute zure itzat mako-artean emango ditut. Ez zaitetz, arren, asarretu.
 - (2) Ezin irakurri dut itz ori. ALTARI izkiak ederki irakuri ditut. Oien ondorean datorrena, ordea, azkeneko izkia, ez dakit "N"edo "U" dan. Dana dala ez dut ulertzen itz orrek zer esan nai dezakean. Bearbada, "lapsus calami" edo oartzeke lumak On Tomas'i egindako irrixtaketa bat izango da.

Egia da diozun guztia. Baiñan izen oiek danak Euskalerrian, edo euskaldunak izan diran lurraldeetan aurkitzen ba'dira, beren etimologiaren billa abiatzerakoan, gauza bat da oso kontuan euki bear duguna:

Izen oietako bakoitza damaigun larrukia NOIZKOA dan.

Adibidez, "EUSKERAZAINTZA" onen joandako zenbakian aztertzen nuan larrukia 873'koa zan. Beraz, OIX mendearen aski erdialdekoa. Eta larruki ortan ainzuzen agertzen zitzaigun VILLOTA.

873'garren urtean, ordea, ez zan oraindik gaztelerarik sortu. Ez zuan sortu zitekeanik ere oraindik iñork pentsatzen.

Beraz VILLOTA ori, iruotako bat:

- Edo aurreneko lumalariak gaizki idatzitako euskal-izena da,
- Edo, bigarren lumalari batek, gaizki irakurritako euskal-izenaren erderaketa da.

- Edo ondo idatzitako euskal-izenaren itzulpena. "Borda" edo "bordatxo"ren itzulpena ote?

Iru gertapen-gai oietatik aurrenekoaren alde edo bigarrenaren alde jokatu nuke nik:

Aurrenekoaren alde, nere ustez, "billa" ederki izan bait daiteke euskalduna. -Ontaz ordea, len ere aldizkari ontan bertan idatzia naiz. "Euskerazaintzaren" ale onen aurreko zenbakian bertan ainzuzen azkeneko aldiz-.

Bigarrenaren aldera, dokumentu auek, XII mendeaz gero, asko aldatuak izan zirala jakiteak bultzatzen gaitu.

Irugarrena ere badaitekean gauza da, baiña, ortarako bigarren edo irugarren lumalariak euskeraz jakin izatea, bearrezkoa baldintza izango litzake.

Barkatu eidazu: geiegi luzatu naiz arazo oiek arakutzen. Gaiñera ez da ori zure eskutitzaren gaia. Euskerak gazteleraren sorketan izan zezakean eraginmenari-buruzko beste gai arras jakingarri bat baizik.

Aipatu dizkidazun SEI adigarri oietan euskerak eta euskeraz egiten zuten antziñako euskaldun aiek eraginmenik izan zezaketela diozu. Eta egia diozu. Zoritxarrez, euskerak gazteleraren sorketan izan zezakean egite ori eta, ondorioz, gaztelerak euskeratik jaso zezakean altxorra, -aundia ala txikia-, oraindik bear bezala aztertu gabe dauden gaiak dira.

Barkatu eidazu, ostera lengo gogapen batera itzultzen ba'nazaizu: Begira, On Tomas: Nik, izen batek euskeraz argibiderik izan ba'dezake, naiago izaten dut bide ortatik jotzea. Bide orrek zentzurik ez duanean bakarrik artzen dut ontzat, askoz errezagoa izaten dan beste bide bikoitza: lateraren ala gazteleraren bidea.

Adibidez, zuk aipatzen dituzun ZAZPI izen oietatik edozein Euskalerrian izandako lurrari-buruzko dokumentu zaar batean aurkitu ezker, biotako bat esango nuke:

Izen oiek euskal izen baten erdal-itzulpenak dirala, edo euskeraz ez zekian lumalari batek gaizki irakurri ta gaizki idatzitako euskal-izenak dirala. Ikus:

OTERO, adibidez, "oteo" ederki izan daitekeala, geroago -"Oteo"k deus esaten ez ziolako-, lumalari erdaldun batek "Otero" biurtua. OTEO duala Araba'ko erri batek izena; eta "Oteo", "Otegi" dala, "O" ta "EGI", atzizki toki-adierazleak diralako;

BILLOTA'ri-buruz, "ota" eta "ote" basa-landare beraren izenak dirala, eta "biII" ere euskal itza dala esan-berri dutanez, eta euskal-izenetan oso maiz agertzen zaigula naiz nik bere esannairik ziurki jakin ez;

TORROBA'ri-buruz, berriz, "ba" beetasuna adierazten duan atzizkia dugula, eta "Torro" ta bere senide dala dirudian TORRON "torre-toki" izan daitezkeala,

Kerexeta'k uste duanez "o" bezala "on" ere atziki leku-adieraztea ba'da. Ortaz "Torroba" "Torre-leku-be" ala "Torrontegipe" izan daitekeala.

PENNOTA. Nik VIII edo IX mendeko larruki batean PENNOTA aurkituko ba'nu, eta itz ori karistiarren edo autrigoitarren lurretan zegoala ikusiko ba'nu, larruki orren idazleak ATXAGA, ATXETA edo antzeko euskalizen bat lateratu zuala esango nuke. AITZETA, AITZOLA, edo oien itxurakoizen zala, berriz, lumalariak lateratu zuana, PENNA bardulitarren edo baskoindarren eremuetan egotea gertatuko ba'litz.

COZ. Ainzuzen, LAKOZMONTE'z gaurko idazlanean itzegin bear izan dut.

FOZ, edo HOZ. Itz auen zentzua, VIII edo IX mendean idatzirik ikusiko ba'ntu, "Oz" itzaren aldetik billatuko nuke beren etimologia.

BARGOTA, berriz, BAR+GO+OTA izan daitekeala esango nuke. "BAR" aurrizkiz asten diran toki-izen eta abizenak asko bait ditugu gaur-egun ere Euskalerrian.

MONTOTO. Nik. VIII edo IX mendeko lumalariak, "MONS OTO" edo, ablatibu-eran MONT(E)OTO idazterakoan, "Otamendi" edo orrelako zerbait lateratu zuala esango nuke. Euskalerrian antziñate artako lumalariak bai, aiek euskeraz bai bait zekiten ezpairik gabe.

Badakit, On Tomas, au ez baiña len esan dedana izan dala zure asmoa neri idazteko luma artu duzunean, baiñan beste gai auetaz mintzatzeko aria eman didazu-ta, ar itzezu, orregaitik ere, nere eskerrik beroenak.

Zure esanera,

Latiegi'tar Bixente.

BIGARREN ESKUTITZARI ERANTZUNA

JAUREGIZURIA'TAR SEGUNDO JAUN ADISKIDEARI

(eskerrak emanez eta zerbait eskatuz)

Pozik damaiot erantzuna bigarren eskutitz oni ere. Orriaren goiko eskuin-ertzean onek ere idaztearen izena dakar: Segundo Jaurezuria/ Tel. 45 51 80 - 01510 ELOSU (Araba), 11/5/94.

Agur ene lagun eta abertzale zintzo orri:

Gaur irakurri dot zure azkeneko idatzia, erdi-aroko larruki zar orietatik ateratakoa, eta Euskerazaintzak argitaratutakoa.

Eskerrik asko zure euskera garbi eta ulergarriagaitik. Bere bitartez gu, gizon arruntak, gauza asko eta asko ikasi eta ulerten doguz. Uste dot aurrerantzean ere jarraituko dozula argi-izpitxo bat biztuten ainbeste illuntasun-erdian bizi garenontzat. Zure lanak or geratuko dira gure seme, illoba eta auen seme-illobentzako ere.

Agur eta eskerrak berriz ere.

Besarkada estu bat.

Eskerrikasko..., nik zuri, Xegundo. Jarraituko dut, nere lanean, baiñan nik ere lantxo bat eskatu nai nizuke zuri:

(Zergaitik ez zera, udaleko edo parroko liburuetan Elosu'ko toki-izenen jasoketan asten?

Eta, gero, izen oiek gaur nola esaten dituan erriko jendeari galdetzen?

Orrela, gaur-arte euskeraz egin duan erri ortako jendearen ezpaitan ize-nak nola aldatzen diran jakingo genduke.

Ez dizut lan guztia zuk bakarrik egitekorik eskatzen. Baiñan zuk asitako lana jarraituko luke beste batek.

Ekin, Xegundo!

Esker aundiz eta eraspen osoz, agur, adiskide. Zure esanera,

Bixente.

IRUGARREN ESKUTITZA

JAIME KEREXETA IDAZLE TXIT EZAGUNARI

(bere laguntza onartuz eta eskerrak emanez)

Euskerazaintza onen aurreko zenbakian "TA"z amaitzen ziran itzak eskatu nituan. Zintzo erantzun dít Kerexeta'k itz-sorta eder baten bidez bere laguntza eskeiñiz. Eskertzekoa da, gai auetan ez bait da edozein Elorrio'ko Jaime Kerexeta'tarra; beste guztion maixu baizik.

Ona emen sorta eder ortako ítz guztiak. Aurretik ordea sortako ítzen ondo-ko laburpenak errez ulertu aal ditzazun laburpen oien esannaia emango dizut:

C.S. - Izki auek "Casa Solariega" esan nai dute, ots, "Jatorrien Sortetxe" diran etxeak.

Ap' - Izki auen bidez "Apellido" adierazten du Kerexeta'k.

(sic) - Ederki etorriko da noski laterara oiturik ez daudenentzat, oarpen au: mako-tarteko itz orrek "orrela", "ikusten duzun bezala", esan nai du lateraz, eta naiz arrigarri iduritu itz bat dokumentuan ere ikerleak idazten eta irakurleak ikusten duan bezala idatzia dagola adierazteko erabiltzen da.

Beste oar bat. Kerexeta'rentzat, ikusiko duzun lez, "A" eta "E" izkiak, itzen azkenean, izki bat bera dira. Aipatzen dituan izenauztan beintzat. Ona, orain emen, Kerexeta'ren eskutitza:

"Elorrio'tik, 17-VI-1994.

"Latiegi adiskide: Zure esana beteteko, emen doakizu zuk eskatzen dozuna ("Euskerazaintza", XXVII, 7 orri.).

"1.704'garren urtean Bizkaia'n agertzen diranak:

MORLOTE: c. s. en Begoña (en el barrio de Atxuri).
AGUERROTA: molino en Bermeo. (Agerre errota izan daiteke, aurki).
MOTA: c. s. en Busturia.
OLAERROTA: c. s. ap' y molino en Busturia.
MORGOTA: ap' y tres c. s. en Kortezubi, y otros lugares.
SOTA: ap' en Zierbana, y otros lugares.
MIOTA: barriada, ap' y tres c. s. en Elorrio. (Aparece como apellido en Elorrio ya en 1.053.)
ATOTE + a: ap' en San Andres de Etxebarria.
MOTA: c. s. en Erandio.
MOTA: ap' en Erandio, Galdames, y en Izurtza.
LAMOTA: c. s. en Murueta (cayó).
LAMBOTA (sic): ap' en Ondarroa.

Gipuzkoa'n:

ERROTA: milla aldiz.
AGOTE: c. s. en Azpeitia, Deba (que es la primitiva), Orio, Zumaia, Aia, y en Getaria.
ARGOTE (sic): c. s. en Andoain.
CALBARIOTA (sic): c. s. en Zaldibia.
CARAPOTE: dos c. s. en Ernani.
MIOTA: c. s. y ap' en Arrasate / Mondragon,
MOTA: c. s. en Aia.
ORO-MIOTA: ap': vecino de Arrasate en 1.429.
OCHOTE: C. S. en Ondarribia.
PICOTE: c. s. en Zumaia
ROTA (=Errota): c. s. en Ondarribia.
TALABOTA (sic): c. s. en Pasajes.

"Ea noiz egiten daustazun ikustaldi bat. Ba-daukadaz emen liburu interesgarri batzuk zuretzat. Zeure zain geratzen naz. Ez luzatu. Agur biotzez".

Badu On Jaime'ren eskutitz onek "post data" edo amait'osteko oarpen bat ere:

"BIOTA: bizcondesa de Bota: en Axpe (Atxondo) en 1.745.

"DOTA: bizconde de Biota: en Xemeín en 1.796.

"BIOTA: apellido de Truzios en 1.796".

Eskerrikasko Jaime, zure laguntza bikain onen truke. Oraintxe bertan oroitu naiz ARROITA abizenaz. Bizkaitarra izango da eskierki. ARRO(B)ITA, agian? ARRIZIBITA, berriz, abizen naparra dugu. Betelu-aldekoa.

Zure sorta ortako izen batzuk arras dira, Jaime, gogoangarriak, eta gaur tarterik ez dedan ezkerro, aldizkari onen beste zenbaki batean azpimarratu nai nituzke.

Joango naiz, Jaime, zu ikustera. Baiñan ez aztu, Gazteiz'tik Elorrio'ra baiño bide geiago ez dagola Elorrío'tík Gazteiz'era.

Agindu, adiskide, zure lagun oni.

Latiegí'tar Bixente.

MUNGIALDEKO ESAKERA ZARRAK ETA BERRIEN ESANAIA

▪ **Koisu edo koiu:** Erderazko "coger" da. Euskeraz artu edo arrapatu.

"**Larrabetzuk al dauenik eta dana koisuten deutsu**": Esakera onek esan gura dauana zera da:

Larrabetzuk, antziñako denboratan, beran alboan eukezan lurrak artuten ebazan, Fika eta Morgaldea geienbat, labrantzako orduan eta munarriak ipinteko orduan. Ori dala ta, Fika eta Morgaldeko zarrak esaten dabe: "Larrabetzuk al dauenik eta dana koisuten deutsu".

- **Azagoko:** Mungialdean "urruneko" esateko erabilten dogu. Esakereak esan gura dauana argi dago.

Sarri joaten gara, urruneko osagillea'rengana edo urruneko eskolara, etxe ondoan obea dagola. Erri geienetan konplexu ori dago, ango urruneko gauzea obea dala beti esateko.

- **Non erromeri an Santa Mari:** Esakera neure amomari entzun neutsan beñ ta neu neuretara konturatu nintzan, zer esan gura eban aittitari esaten ertsola ikusirik.

Aittitta non edo non jairik baegoan, ara joaten zan, iñoiz bere utsik egin barik. Jaia derrigorrean izan bearrrik ez dauko, geienetan bearrari edo lanari iges egiteko edozein ekintza izan litake.

- **Azagoko:** Urruneko.

- **Sugarri:** Sua egiteko gaia. Egurra.

"**Azagoko sugarrien berotasune**": Gure mundu onetan iru gauza dagoz eziñezkoak, esaten eban amoma Prantzíska'k:

- Pobrea'ren arrazoia.

- Alperra'ren abilidadia.

- Azagoko sugarria'ren berotasuna: Antziñako denboratan gure basoak aretz, fago, gaztaiña eta bertoko arbolakaz beterik egoten ziran. "Azogo" edo urrun baegoan egurra bertan beera geldituten zan usteltan eta sustentzi barik. Len ez egozan gaur egun dagozan tratorak eta makiñak eta sarritan idi bustarriak euren gurdiekaz ezin ebien paseu edo igaro bide edo kamiño maldatsu edo aldatz eta aurbera (cuesta abajo) aundikoak.

- **Joan eta etorri kapela gorri:** Esakera onek aditutera emoten deuskuna zera da: lkasle batek, esaterako, eskolara joan eta etorri egiten badau, eskola-liburuak besapean daikozela bakar bakarrik, mutil edo neska ak ez dau deus ikasiko. Alperrik joan etorria egiten danean esaten da.

- **"Asto bat il beste bat biztu, kittu**": Gauza bat galdu eta beste bat lortuten danean esan oi da, berdiñ berdiñ gelditzeko. - **Erderazko:** "A rey muerto, rey puesto".

- **Dekonak deko, eztekonak baleko:** Diru asko daunonak edo balore asko daukozenak geienetan, ez dau baloratuten edo apreziatuten berak daukona, au da, gauza bat lortuteko ez dau pasetan pobreak pasa bear dauana.

Olan dirudunak lortutako gauzea, gitziago maite dau pobreak lortutakoa baiño.

- **Ekiñe txarra da:** Esaterako, nik gai edo lesiño bat ez badakit baten bakarrik irakurrita, gai ori bear dan beste irakurten badot eta beat dodan beste arreta ipinten badot, lesiño edo gai ori ikasiko dot, orretara esaten da ekiñe (ekiñaren bidez) lortuko dodala.

"**Txarra da onek**", zera diñosku: Eziñaren aurka joango dan etsai gogorra dala ekiña.

- **Berezkorik ez dau ezer:** Bizimodu krudel eta gogor onetan iñok ez deutsu emoten ezer eginda, zeuk izan edo egin gura dozuna zeure borondate eta alegiñagaz lortu bear dozu, iñok ez bait deutsu ezer bere ez oparituko

- **Kanpokoak zuurtzat eta etxekoak iñuzentetzat:** Esakera au, zera adierazoteko erabiltzen dogu: Mungialdean, "iñuzente" berbeak tonto edo lerrodo esan gura dau. Euskalerrri osoan beiñ, kristautasuna gaur egun baiño eratuago eta zabalago egoan eta orregaz batera euskal baserritarrak, geienak eta ez danak, oso umillak ziran eta etxekoa ez eben kanpokoak beste gorai patuten, meritu edo lorpren bardiñak izan arren.

Ori dala ta esaten da: Kanpokoak zuurtzat eta etxekoak iñuzentetzat.

LANDARAK:

- **Mimena:** Mimbren.
- **Saratza:** Sauce. Toki urtsuetan egoten da eta ez da izaten aItua.
- **Mallukiak:** Fresas.
- **Gurguxe:** Madroño.
- **Txakur-asia:** Asa basto bat.
- **Sagar motak:** Madari-sagarra, Reinetia, Urtebetia, San Juan sagarra, San Pedro sagarra.
- **Intxurre:** Nuez.
- **Askasiye:** Acacia.
- **Fagoa edo Pagoa:** Haya.
- **Urritxia:** Avellano.
- **Leizarra:** Fresno.
- **Sugarrie:** Leña.
- **Klaudio okerana:** Erd. Ez dago.
- **Madalen ikoa:** Erd. Ez dago.

DIRUEK:

- **Txakur-txikia.**
- **Txakur-andia.**
- **Erreal.**
- **Marabediye.**

* * *

EGUNAREN ATALAK:

- **Egurdatia:** Eguerdi-artia: Por la mañana.
- **Egurdaterdia:** A media mañana.

- **Goizeti:** Temprano
- **Goiza:** Mañana (por la mañana).
- **Egurdia:** Egun-erdia: Medio día.
- **Goizaldia:** Amanecer.
- **Atsaldia:** Tarde (por la tarde). - **Arrastion:** Buenas tardes.
- **Illundia:** Illun-aldia: Anochecer.
- **Gaue:** Noche
- **Gauerdia:** Medianoche.

ISTRUMENTUAK:

- **Inpernuko auspoa; Soñue; Akordeoia:** Acordeón.
- **Agoko soñue; Musugitterrie:** Filarmónica o armónica.

** *

TXARRIKIAK:

- **Lopia: (Buskentz Iodia):** Intestino grueso.
- **Buskentza:** Morcilla.
- **Saieskie:** Costilla.
- **Solomoa:** Lomo.
- **Pernilla:** Jamón trasero.
- **Soñe:** Jamón delantero.
- **Txarripatak:** Patas de cerdo (Pies de marqués).
- **Txarrimusturre:** Morros.
- **Txarribelarriek:** Orejas de cerdo.
- **Txorizoak:** Chorizos.
- **Gibela:** Hígado.
- **Urdaie:** Tocino.
- **Barrukiyak:** Garunek, biotsa, birikiyak, gultzurrunek. Guzzi au taloagas: Sartenekoa.
- **Lopia edo Jaungoikoa:** Txarria ilten danian buzkentz andi ta lodi bat egiten da, orreri esaten deusagu "lopia" edo "Jaungoikoa" (Morgaldean).

OSTANTZEKO BERBAK:

- **Tundie emon:** (Errigoiti): Dar una somanta (paliza).
- **Ola atondu:** (Errigoiti): Hacer la cama.
- **Katu mardoa:** (Errigoiti): Hermoso gato.
- **Gatzatue edo esnekiye:** Cuajada.
- **Sospresia:** Sorpresa; Sospresia artu "yoat".
- **Desajeraziñoa:** (De exageración); "Desajeraziñoa" ikusi dot.
- **Lotu:** Mungialdean; parar; Umia "lotu" zaitez baketan.
- **Atoan:** (Aktoan); Al momento.
- **Berezkotan:** Pirri; Pirrittola: Diarrea.

- **Azken fiñian:** Al fin y al cabo.
- **Dana dalakoa:** El que sea.
- **Lupetzia:** Basatzia: Barrizal.
- **Tripakiye:** Tripas.
- **Askia:** Pesebre.
- **Kasunaskia:** Atziñe, txarrie ilten zanian gatza emonda gordetan zan kaxa andi baten, orduko sasoian ez egoan otz-gailurik eta.
- **Oria:** Urune taloa egiteko amasatute dagoenian.
- **Lapikoa edo lapikokoa:** Cocido.
- **Albatia:** (Albo-atia): Gortako atea izaten da geienetan.
- **Agia:** Viga.
- **Laiñoa:** Niebla.
- **Laie:** Helada.
- **Iñetazie:** Granizo.
- **Irekurtzi:** Agitar
- **Lantzarra:** Prado.
- **Trugoia:** Trueno.
- **Iñestue:** Rayo.
- **Bart+gauian:** Mungialdeak, **berkeubian:** Anoche.
- **Bat bere ez:** Mungialdean, baperez.
- **Astraka:** Txakurrak egiten dauana asurra luperatuterakoan.
- **Apareu:** "Aparar": Oillogorra "apareu dot".
- **Brintse:** Birrindu: Deshacer.
- **Brintsia:** Txorizoak edo lukainkak egiteko amasea, piperrik emon barik dagoenian oindiño
- **Ortutsik:** Oiñ-utsik: Descalzo.
- **Porralle:** Ganaduak izaten daben gaizotasun mota bat. Anakak audituta edukiten dabez..
- **Atzeko tiria:** Beiak txala eginda ostean dindilizka izaten dauan "kor-doi ubilikala".
- **Errenkuren:** Preocupado: Nire ama "errekuren" dau (dago).
- **Lur mokille:** Pedazo, Tocho de tierra.
- **Sasi poltsoa:** (Sasi boltsia): Antziñako denboratan dirua ormasuloetan eta, gordetan zan. Dirua gorde ei zan boltzeak edo zorroak dauko "sasi poltsoa" izena.
- **Petrikillo:** Curandero, charlatán, brujo.
- **Kia!:** Qué va!
- **Oba:** Ni pensar.
- **Aldapa edo aldatza:** Cuesta arriba.
- **Aurbera:** Cuesta abajo
- **Erdiz por erdiz:** Erdibana: Repartir a partes iguales.
- **Lasteiye:** Pajar.
- **Zirkiñik:** Ni movimiento: Ez dau "zirkiñik" bere egin.
- **Porazuz:** A base de: Urden "porazuz" galdutako berbak.
- **Ortxe ementxe:** Hay hay.
- **Txizillue:** Aulki luze bat.
- **Leba edo ajola:** Importar: Ume orreri ez dotso "lebarik" ezek bere ez.
- **Idi busterrrie:** Mungia'n.
- **Idi busterriye:** Meñakan
- **Idi busterri:** Ketike'n.

- Txitxi-mikike: Zurrumurru: Rumor.
- Solorik solo: De huerta en huerta.
- Bai astoan uskiye: ¡Si flautas!
- Buruto edo burugogor: Terco.
- Artiak artu eziñik: Insoportable: Ume ori "artiak artu eziñik" dabil.
- Motxaie: Ijitua; Kittanua: Gitano.
- Inpentzadan: Sin pensarlo: "Inpentzadan" joan zan.
- Mendue: Injerto.
- Arian edo arean: Algo.
- Monyorra: Talletuko erramue. Orren ondoren talle bodea dator.
- Mukurre: egur mukurre: Tocho de madera, tronco.
- Uxela: Ojalá.
- Sapparra: Lapak gainian edukiten dabien zikinkeritxoak. Sagarra kotxoak (pipiak) barrutik jaten dauenian geldututen dan ondakiña.
- Muskille: Ondakiñe: Resto.
- Asia: Txakurraren sentidua (Instinto).
- Asmeu: Notar. Percibir.
- Burutik eintxe: Estar loco.
- Non-zer: Donde que: Jakin egin bear da "non zer".
- Gorputze egin dau: A hecho cuerpo: Ak mutiltxuek "gorputze egin dau".
- Zurtzeintze: Zura+eginda: arritute: arri+egida: Alucinado.
- Ausnar: Rumiari.
- Arrapaladan: A toda prisa.
- Plazako neskia edo mutille: Chicos de buena edad. Maduros.
- Karrajua: Baserrietan egoten dan pasillua. Bere ezberdintasuna nabaria dogu, bertan pentsu sakuak eta lanabes batzuk egoten diralako.
- Patiñe: Pozo.
- Bikotiya: Gemelo.
- Garriko ugela: Cinturón.
- Urrutute ill: Morir reventado.
- Pentsuen: A expensas de...: Ume ori beti dago amaren "pentsuen".
- Arroisi: Bostezar.
- Areneu: Fregar: Eskilleria "arenetan" noa.
- Artezeu: Arreglar: Erloju ori "artezetan" eroan dot.
- Gezubeten: Al de cierto tiempo: "Gezubeten" eskian joan bear ko da.
- Etxera etorri "zaten": Belako'n.
- Etxera etorri "zazten": Mungia'n.
- Etxera etor "yatan": Meñakan.
- Etxera etorri "yatan": Jatabe'n.
- Euri lanbroa: Llovizna (Mungia'n).
- Euri lanbarra: Llovizna (Emerando ta Larrauri'n).
- Euri !amarra: Llovizna (Fika'n).
- Borrikoa: Almohada.
- Juboia: Camiseta.
- Atzerriyen: Atzera+barriyen: De nuevo.
- Arraskadan: En fila.
- Ostariyen: Ostera+barriyen: De nuevo
- Auspez: Boca abajo.
- Artadiya: Arti+taldea: Rebaño.

- **Barrutiye:** Ganaduak bedarra ugari jaten daden lantzarra edo zelaia.
- **Fiñian diñotzut:** Te digo en serio.
- **Lantzean beñ:** De vez en cuando.
- **Ariketa:** Areik+eta: Hasta que.
- **Astion:** Aste+onetan: Esta semana.
- **Arian bere ez:** Ni pizca.
- **Arrezkero:** Arez+gero: Desde entonces.
- **Orragiño:** Orretagiño: Hasta hay!
- **Oindiño:** Por ahora.
- **Atagiño ta bere: Ni...:** "Atagiño ta bere" ez deutso deitu amari.
- **Lagun:** Mungialdean pertsona esateko erabilten dogu. Baita adiskide esateko bere.
- **Esaterako:** Ogeitamar "lagun" baiño ez ziren egon Elizan.
- **Negar baten imiñi:** Poner llorera.
- **Barre zantzoka:** Barre algaraka: Carcajada.
- **Sopiñe edo Txopiñe:** Hipo.
- **Beste geiauko barik:** Sin más.
- **Altzi bat:** Un poco: Emen dekozu indaba "altzi bat".
- **Errebezeu:** Devolver. Vomitar.
- **Atzazala:** Uña.
- **Txatxamarka:** Pellizcar.
- **Guruzu!:** A que...: "Guruzu" ez dakarrela!
- **Ardaua edaten asi "zatez":** (Jatabe'n)
- **Euki dua:** Meñakan.
- **Euki dau:** Mungia'n.
- **Euki daua:** Jatabe'n
- **Euki doa:** Laukiz'en.
- **Munarriye:** Muya: Piedra separatoria. "Muna+arria".
- **Ortusantue edo Kanposantue:** Cementerio.
- **Iyoako:** En lo...: "Iyoako" ogeitamasei urtian ez da aldatu.
- **Porlana:** Cemento.

Legarreta tar Asier

ERRAONDO'KO TXISTULARIA...!

Lore.
Apaiza.
Joxe.
Permin.
Neska ta mutil kokkorak.
Sasoiko gizon eta emakumeak.

Zelaitxo bat degu iruditegia.

Iruditegi-atzean aritz ba: Gernika'ko aritz zaarraren kimu batetik sortutako aritza. Gernika'ko aritzak duan esiaren antzeko bat ba'lu aritz onek ere, obe...

Aritz aurrean aulki luze bat...

Iruditegia irikitzen danean, otoitzean ari da apaiza.

Ikusleen ezker-aldetik agertuko da Lore, ogei urteko neskatxa gaztea...

Lore Barkatu, jauna... Euskal-erri'tik bialdu dizkioten izparringi bartzuek dirala-ta, berorri ekartzeko agindu dit aitak...

Apaiza Zu al'ziñan, Lore?

Lore Ni nintzan, jauna...!

Apaiza (izparringiak artu ondoren) Eskarrikasko...!

Lore Atzeratu-xamarrek dira, jauna...!

Apaiza Ez dio ajolik, Lore... Bein ere, ez dira atzeratuak guretzeko Euskal-erriko berriak... Ez al'dezu zuk, Euskal-erriko ezagutu bear...?

Lore Ez dakit ba, jauna...

Apaiza Emen jaioa zera, bai Lore...! Ta ezagutzen ez dana, ez da maite izaten...! Zuk ere, ezin maite izan Euskal-erria...?

Lore Bai, jauna, maite det nik Euskal-erria...!

Apaiza Ez, Lore...! Ta ez da arritzekoa ere... Euskal-errian jaiotakoak dira zure aita-amak, bañan zu ez...! Argentina'ko bakarti onetako alaba zera zu, ta au bezelako lekuri ez dago beste-bat munduan zuretzako... Ez alda egia, Lore...?

Lore Bai, ori ere egia da, Jauna...

Apaiza Ez dute ala esango zure aita-amak...?

Lore Ez, jauna...! Euskal-erriaz mintzatzen asten diranean, ez dute azkenik...! Aitarentzat, ez da munduan Naparroa añekorik. Amarentzat berriz, ez da munduan Gipuzkoa añekorik.

Apaiza Eta Bizkaia añekorik ere, ez neretzat...!

Lore Ikusi, ez nuan Euskal-erria ikusiko...? Bañan Euskal-erriko kontuak entzun...? ez da an-bertako euskaldunak ere nik aiña...

Apaiza Ondo dago, Lore...! ta onera etortzekorik, esan al'diote aitari...?

Lore Bai, jauna...! Ta etortzekotan gelditu da... Laister izango da emen. Bidean ere egon naiz ni zerbait-eta...!

Apaiza "Zerbaitean" asi zerala, jakin det, bai, Lore... Mutil ona dezu Mikel... Aren borda-aurretik igarotzean, arekin itz-aspertu bat egin nai izatea, ez da, ez, arritzekoa...!

Lore Nundik jakin du ori berorrek, Jauna...?

Apaiza Euskal-errian esaten dana, esango dizut: txori txiki batek esan zidan aurreko egun batean...!

Lore Orra ba, jauna...! Nik-neronek esan nai nizun aitortzerakoan, bañan...

Apaiza Ez esluta, Lore...

Lore Asi-berriak gaituzu, Jauna... Lagun izan gera orain-arte, emengo neska-mutil guztiak izan oi geran bezela, bañan leengo egun batean esan zidan zerbait eta...

Apaiza Zuk baiezkoa eman zenion...! Ez da ala, Lore.,?

Lore Bai...! Ala da...! Ez nion ala esan, baña...

Apaiza Zer esan zenion ba...?

Lore Zer esango nion ba...? Onelakoetan neskatzak esan oi deguna: berorrek in iz egin bear nuala leenago, alegia...

Apaiza Ondo dago, Lore... Izan da ordea, zu baño leenago ibilli izan dan beste bat...! Etzaiz arritu...! Bizkaitarra da Mikel, ni bezela... Mikel'ek esan zidan ba, leengo egun batean...

Lore Mikel'ek...?

Apaiza Bai, Lore...! Bikote ederra egingo dezute... Onak izan... Orain bezín garbi, gorde orain ere, zuen garbitasuna...!

Lore Ala nai nuke, Jauna...!

Apaiza Ala izango da, Lore, zuk ala nai izatea beintzat... Zoaz ba, Lore... Emen bai da zure aita...
(Apaiz jaunari eskuan muxu eman, eta irtetzen asten danean, Joxe, Lore en aita, agertuko da iruditegian ikusleen ezker-aldetik)

Joxe (LoreTi) Oiek koloreak, neska...!
(Irripar gozo bat ezpañetan, irtengo da Lore ikusleen esker-aldetik).

Apaiza Alaba ona dezu Lore, Joxe...!

Joxe Alaba onak ditut, bai, jauna. Ez nituzke, ez, salduko...!

Apaiza Salduko ez ba'dituzu ere, eman egin bearko dituzu, Joxe...

Joxe Ez da gezurra, ez...! Onek ere, bere ixil-kontuak ote dituan nago... Zerbait entzun izan det, bai...

Apaiza Sasoiak ez dula barkatzen, Joxe...

Joxe Egia da... Ortik ibillitakoa naiz ni ere...

Apaiza Ondo dago, Joxe...! Ona, bialdu dizkidazun izparringiak... Ez det, bear ba-da, gaur astirik izango, bañan gaur ez ba'da biar beintzat, astiro irakurriko ditut guztiak... Euskal-errian igaroko det, Jainkoa lagun, biarko eguna...

Joxe Ondo dago, jauna... Ta zer dala-ta, deitu dit ba...

Apaiza Ara, Joxe... Leen ere esan izan dizut beint-baño-geiagotan, apaizari berorrika itz egitea, ondo dago Euskal-errian... Argenti-na'ko bakarti onetan ordea, ez zait ain-ondo iruditzean... Emen alkartu izan geran euskaldun guztiok, kide batekoak gera: artzaiak...! Ardiak gordetzen dituzuten artzaiak zuek, eta artzai ni ere...
Artzai izatera etorri nintzan, beintzat, ni ere onera... "Zuka" obe degu ba, Joxe...

Joxe Ondo dago, jauna... "Zuka" egingo dizut ba... Ta aurrera egin

baño leen, zuk ortarako bidea eman didazulako, aspaldi egin
nal nizun galdera bat, egingo dizut gaur... Zer dala-ta, etorri
ziñan zu Argentina'ko bakarti onetara...?

Apaiza Ori galdera, Joxe...!

Joxe Ez arritu, jauna...! ba'du galdera onek bere zergatia-ta... Gu
zergatik, eta zertara etorri giñan, ondo dakite guztiak... Ezin
ukatuko degu, bearrak eragin-da, etorri giñala onera... Garai
artan beintzat, ez zan guretzako Euskalerrian bizi-modua ate-
ratzeko modurik... Basarritarrak gaituzu emen gauden guztiok...
Bañan len-semerik ez dago gure artean... Len-semeak, an gel-
ditu ziran, Euskal-errian, basarriaren jabe... Ez zegoan guretzako
basaririk, eta beste ezertan ikasi ez gendualako, artzai etorri
bear izan genduan onera... Ta emen bizi gera geroztik, Euskal-
errira noiz itzuliko, ametsetan...

Apaiza Ez, Joxe...! Ez dezu zuk, gaur, orrelako asmorik.

Joxe Zer ba, jauna...?

Apaiza Berrogei urte ba'daramazkizu emen... dirurik ere ez zaizu falta...
ta ala ere, Euskal-errira itzultzeke zaude emen...!

Joxe Egia da, Jauna...! Nere erru bakarra ez da ordea. Emen ezkon-
du nintzan, izan ere... emen izan ditut nere seme-alabak, eta
nere seme-alaba oientzako ez da, au bezelako, beste lekurik
munduan... Ezin ba, oiek emen laga-ta, joan...

Apaiza Ai, Joxe...! Zure seme-alaba oiek ez dute euskal-erririk ezagu-
tzen... Nun Bermio baño itxas-erri politagorik...?

Joxe Bermiotarra izan zu, jauna...! Bizkaia ederra dala, ezin ukatu...
Gipuzkoa ere bai... Bañan Naparroa ere ederra danik, ezin uka-
tuko dezu, Jauna... Zuretzat Bermio dana, Goizueta da nere-
tzat... Ez da neretzat, munduan, Goizueta baño erri politago-
rik... ango gari-saillak... ango Elizata ango jendea...! Mutil-kox-
korra nintzala, sortu zitzaidan, an, onerako gogoa... Esango
dizut, zergatik ere... Nere gazte denboran, ba'zan, Goizuetan,
"indiano" esaten zioten mutil-zaar bat... Ez zuan ark brusarik
jazten... Txarnarra ederra ibiltzen zuan ark egunero... Urrezko
katea ere bai... Ta urrezko kate ortatik zintzilik, ontzako-urrea.
Ez zuan ark txapelik ibiltzen, kapel ederra baizik buruan... Eta
mutil-zaarra izan arren, bere ondoren zituan ark Goizueta ta
inguruetako neskatxa gazte ederrenak... Ez ornen zan gaztetan
gu ez-bezelakoa... Gu bezin beartsua ornen zan ura ere, gazte-
tan. Ala esaten ziguten guri beintzat. Bañan a Emerikatara etorri
ta urte gutxi buruan aberastu ornen zan.

Ori egia izan-da, nola geldituko nintzan ni Goizueta'n, jauna...?
Ametz orrek ekarri nindun ni ba onera... Urte batzuek igaro ta
aberats biurtu nai nuan nik ere, nere errira... "Indiano" ura bezin
zaldun izan nai nuan nik ere nere errian...! Amets irten dira
ordea, nere ametsak... Ta ikusiko ote det nik berriro Goizuetako
nere erri maite ura...?

Apaiza Ez det uste, Jose...!

Joxe Nik ere ez...! Bañan ez dete orrelako gauzarik, pensatu ere nai
izaten...? Euskald-erririk ez detela geigo ikusi bear pensatzeak,
minberatu egiten dit biotza... Ori dala-ta, Euskal-errira berriro

itzuliko-naizen itxaropenak, ez ditut galdu nai izaten erabat. Eta emengo bizitza latz au eramateko, itxaropen auek ditut nere utsalgarrikerik ederrenak...!

Apaiza Ai, Joxe...! Itxaropen oiek gabe, bizi bear det nik...
Joxe Ez da ba, bizitz ederra zure bizitza ori... Eta orregatik egin dizut leen, egin dizudan galdera... Zerk ekari gaitun gu onera, garbi asko esan dizut... Bañan zure etorrera ori, beti iruditu zait arri-garria...! Emen ezbezela bizi dira Euskal-errian'n apaizak... Zuk emen ez bezela irabazten dute aiek an...! Iñork ez bezela maite dezu Euskal-erria...! Zer dala-ta, etorri zifan ba, zu onera...?

Apaiza Artzaien artzai izatera, Joxe...! Au da apaizak daukagun egitekoa... Ortara etorri mintzan...! Eta zergatik etorri nintzan jakin nai ba'dezu, esango dizut ori ere... Iñork-gutxik dakite, ni zergatik etorri nintzan onera...? Entzun, Joxe: diru-zalekeriak ez nindun ekarri. Ez da apaiza, diru-zalekeriak eragin-da, apaiz egiten dan gizona... Ez...! Beste zerbaitek egiten du apaiz gizon bat: Jaungoikoa'k ortarako ematen dion gogo batek, alegia... Ala izan nuan nik ere...! Gogo ori, ez nuan nik neregan, beste askok bezela, ume-umetik nabaitu... Gogo ori neregan sortu zanean, gazte azia nintzan ni... Etxe oneko semea nauzu... ta gazte-gaztetik umezurtza... Aberastasn ugari utzi zizkidaten nere gurasoak... Aberats eta iñoren bildurrik gabe igaro nuan nere gazte-aroa... Alakoa izan zan bera...! Jaungoikoa'ri eskerrak, izan nuan bein Jaungoikoaren argitasun berezi bat. Eta argitasun oni esker, garbi ikusi nuan nik naraman bizitza okerra... Orduan artu nuan, apaiz egin, eta onera apaiz etortzeko erabakia. Nere gazte-aroko obenak ordaindu nai nituan, Joxe...! Ta nun, bakarti onetan baño obe...?

Joxe Ez nuan nik olakorik uste...

Apaiza Ala da ba, Joxe...! Ta beartsu bizi bearrak ez dit miñik ematen... Euskal-erritik ekanpora bizi ta il-bearrak, orrek bai, orrek min aundia ematen dit...! Bañan, zer egingo da, ba...

Joxe Arrigarria da zure izate au, jauna.

Apaiza Ala ere, ez naiz itun bizi... Izaten ditut nik ere, nere poz-aldiak... Zueri on-egiten bizi naiz nere ustez... Abere-artean bizi bear dezute goizetik-illuntzeraño, ta abere antzekoak egingo zifateke, abere ez, gizon zeratela baizik, iñork oroituko ez ba'lizuteke... Zuen artean apaizik ez ba'lego, laister zifateke sinismen apurrik gabe... Apaizari eskerrak ikasten dute zer bait zuen umeak ere... Apaizari zordun zerate beraz... Eta on-egite onek, diruak ez bezela, asetzen du gizon baten biotza... Ez alda egia, Joxe...?

Joxe Zuk daramakizun bizitza ikusi-ta, egia izan bear nai-tanai ez... Bañan ez nuan uste apaizak onelakoak zifatenik...!

Apaiza Onelakoak gera ba, Joxe, bai emen, eta baita Euskal-errian ere...

Bañan ba'det zuri esateko beste zer bait ere: sinistuko ez dezun gauza bat... Eseri gaitezen ordea... Ez daukagu zergatik zutik egon-eta...

(Aritz-aurrean dagon aulki-luuzean esariko dira biak.

Ume koxkor taldea agertuko da iruditegiko aolan, ikusleen ezker-aldetik... Neska-mutil koxkorak dira... Iruditegi-baztarrean geldituko dira geientzuenak... Bi edo iru urreratuko dira Apaiza ta Joxe dauden aulkira... Batek-bakarrik itz egingo du...).

- Mutil koxkor Esan diegu daneri, Jauna...!
Apaiza Eta zer esan dizute ba...?'
Mutil koxkor Etorriko dirala, Jauna...
Apaiza Ondo dago...! Zoazte orain jolastera...
 (ikusleen eskubi-aldetik izkutatuko dira, iruditegiko aolan, bi edo iru mutil-koxkoa auk. Beste ainbeste egingo dute baztarrean gelditurik zeuden mutil eta neska koxkorak...).
 Orra ba, Joxe...! Guk, emen, Argentina'ko bakarti onetan egin degun Euskal-erri onetan, zu zaitugu gure agintari ta gure alkate bakarra... Zure mendean bizi gera emengo euskaldunok... Argentina'ka legeak ez daukate gurekin zer ikusirik... Askatasun osoan bizi gera, bañan ez, alkaterik gabe. Eta gure alkate zera-lako, egin dizut dei...! Nik neronek eman nai nizun gaurko berri arigarria... Gure artean izango degu gaurtik, berriro, Permin, txistulari zarra...!
- Joxe E...?
Apaiza Bai, Joxe...!
Joxe Permin...?
Apaiza Bai, Permin...! Gaztetan Erraondo'n txistularia izan zana ta orain iru urte arteraño gure txistularia izan gendua... Gaur-goizean jakin det nik ere, aren etorriaren berri... Ta arrera on bat egin bear geniokela-ta, eskola-umeak bialdu ditut bordarik-borda, aren etorrerako, euskaldun guztiok bildu gaitzen emen...!
 Entzun dezu eskola-umeak ekarri duten erantzuna. Zertarako bildu ditugun jakiten dutenean, arri egin-da gelditu bear dute guztiak...
- Joxe Ez da gutxigorako, izan ere...! Esan didazun au, egia al'da, Jauna...?
Apaiza Bai, joxe, egia da...!
Joxe Zuk ez esatea, ez nioke iñori sinistuko...! Zer gertatu ote zaio, ba...? Ez ote dute Naparoa'n artu nai izan...? Gudari-iges egi-tearren, etorri zan Permin onera... Ez bai zituan biotzeko orduko guda aiek...! Ori dala-ta, bota ote dute ba, Euskal-erri'tik...? Zer esan dezakegu bestela...!
 Ez da ba, oso gaztea gizajoa...
 Irurogei-ta-amar urtetik gora ditu beintzat...! Euskalerra'n || nai zuala-ta, zertarako dator ba, berriro onera...?
 Zer diozu zuk, jauna...?
- Apaiza Ezer ez, Joxe...! Zuretzat bezin arigarria izan da neretzat ere berri au...! Ta nik ez dakit, zer esan...!
- Joxe Izan ere, ez zeukan ark zergatik joan...! Onera etorri-ta laister, || zitzaion munduan gelditzen zitzaion arreba bakarra... Ez zeukan beste seniderik munduan... Ementxe egin bear zuan ark bere etxetxo, ta gure artean bizi. Ez zuan beintzat ezontzeko asmorik eramango...! Irurogai-ta-amar urtetik goragoko mutil-zaarrak,

mutil-zaar bear du beti, urrez jantzita ba'dago ere... Ez zan esan-faltan gelditu... Zer ez nion nik esan bere asmo azaldu zidan egun batean...! Alperrik izan ziran, bai, nere esanak, bañan ez zan, entzuteke, joan gizajoa...

Ai, jauna...! Buru-gogorrak gera, bai, euskaldunok, eta zaartu ezkerero areago gañera...!

Apaiza Ez zaude ondo, Joxe...! Ez zuan ark Euskal-errian, zuk diozunez, ezer izango, baña ba'zuan bere biotzean euskaldun guztiok izan oi degun zerbait: Euskal-erria'renganako maitasuna...

Nik ez dakit zergatik izaten dan, bañan gauza batzuetan maite dan gauza artatik urruti ibiltzea, gauza arenganako maitasuna galtzea baldin ba'da, norberaren erriarenganako maitasunean ez da ala gertatzen. Zenbait-eta erritik urrutiago, orduan eta maiteago izaten da erria...

Ez al'diazu zuk esan, egunen batean Euskal-erria'ra berriro itzultzeko itxaropenak, ematen dizula emen bizi-izateko poza?

Joxe

Bai, ala da ori ere, jauna...!

Apaiza Ta zaartzaroak ez du barkatzen, Joxe... Nork ez genduke Euskal-errian il nai...? Nik, egia esan, ezin dezaket itxaropen ori euki... Euskaldunik emen zan artean, emen izango nintzala, agindu nion Jaungoikoa'ri. Ta Jaungoikoari emandako itza, bete gin bearko det, Joxe... Eskerrak, ala ere, Permin onarri...! Ark ekarri bai zuan Gernika'tik, gure aritz-santu aren kimu bat onera, ta emen aldatu...! Kimu artatik sortutako aritza degu aritza, Joxe... Eta aritz onen itzalak artzen duan lurra, euskal-lurra da neretzat. Aritz-pe onetan lurperatua izango naizela pentsatzeak, orretzek ematen dit nere pozik aundiena... Bai, Joxe, Euskal-erriarenganako maitasunak eraman zuan Permin Euskal-erria'ra...

ikustekoak **ziran** arek emen igaro zituan azken-egunak...! Amets batean bizi zan gizajoa: Erraondo bere erriarekin ametsetan. Angoak ziran pagoak...! angoak erreka garbiak...! angoak txori-kantak...! Ez zan Euskal-errian'n ere, Erraondo'n bezin ondo dantzatzen zan erririk...! Erraondo'k gordetzen zituan, aren suteetan, Euskal'erri'ko oiturarik garbienak ere... Ta Erraondo'n itz egiten zan euskerak, ez zuan parekorik beste iñun... Permin'en ametsak dirala auek, esango didazu, ta egia da... Badakit nik maitasuna itxua dala. Ez duala maitasunak, maitearen akatsik ikusten...! Bai...! Bañan zer egingo dezue, Joxe, onelakotxea bait-da maitasuna...

(Iruditegian azalduko dira bakarti artako baste euskaldunak ere... Ikusleen ezker-eskubitik azalduko dira iruditegian eta baztar bietan geldituko dira... Ba'dituzte auek ere, bere ixil-kontuak. Danetakoak datoz: neska, mutil, gizon eta emakumeak... Besteandik pixka-bat aldenduta, senar-emaztegai bikote bat ixil-kontuetan auek ere... Zergatik ez, mikel eta Lora...).

Joxe Egia diozu, jauna...! Onelako zerbait ez ote zaiten neri ere gertatuko, bildur izan bear nik ere... Ain maitagarriak dira, izan ere, guretzako bein utzi genituan Euskal-erria ta gure jaioterria...?

Apaiza Ala dira, bai, Joxe...!

Joxe Emen dituzu, jauna bakarti ontako euskaldun guztiak... Zer asmo dezu orain...?

Apaiza Ez dakit zer irudituko zaizun zuri, Joxe... Permin'ek ongi-etorri on bat merezi duala-ta, deitu diet...!

Joxe Ortan nago ni ere... Ondo egin dezu ba, jauna...!

Apaiza Oiek ez dakite oraindik ezer...! Adierazi egin bearko diezu, Joxe...

Joxe Nik...?

Apaiza Zuk ba... Ez al'zera ba zu gure agintari, gure alkate bakarra...?

Joxe Ez dio orrek ajolik...! Ni izango naiz, bai, emengo agintari, emengo alkate bakarra, bañan nik ez bezelako almena dezu zuk emen...! Erriari itz egiten oitua zaude zu gañera... Ez jauna, ez diet nik esango... Zuk esan bearko diezu, jauna...

Apaiza Ondo dago, Joxe... Nik esango diet...
Aulkitik jeiki, ta aulki-gañetik itz egingo die Apaizak. Tente egongo da Joxe ere...
Entzun lagunak...! Berri on bat eman nai dizutet. Permin gure txistulari zaarra joan zan ezkeroztik, ez degu emen txistu soñurik entzun. Txistu-gabeko jaiak izan dira, iru urte auetan emen igaro izan ditugun jaiak. Jai itunak, dantzarik gabeko jaiak... Gaurtik-aurrera ez dira ordea, ain itunak izango gure jaiak... Txistulari bar izango degu berriro gure artean gaurtik-aurrera... Txistulari ezaguna: Erraondo'ko Permin...!

Guztiak E...?

Apaiza Bai...! Erraondo'ko Permin datorkigu berriro... Laister eldu bear du... Ongi-etorri on bat arei egitearren, bildu zaituztet emen... Ez al-du ba merezi gure artera berriro datorren txistulari zaar orrek...?

Guztiak Bai...!
(Txistu-soiñua entzungo da bat-batean).

Apaiza Ez al-dezute entzuten...? Bera da: Erraondo'ko Permin. Iriki zaiozute bide zabal bat, eta jo txaloak eskuak ausi bearrean...!
(Bidea iriki, ta txaloka ekingo diote guztiak... Ttuntuna ta guardasola esker besotik zintzilik eta txistua eskubiko eskuan, agertuko da Permin. Ez zuan arko onelako ongi-etorririk uste...
Apaizarengana eltzen danean, txistua eskuan eta ttuntuna ta guardasola besoan, maiteki besarkatuko dute alkar...
Biak besarkatuta daudela, jeitxiko da poliki poliki zapia...).

Anastasio Albisu Ayerdi

ERRIARI EN ZUN ETA BILDUTAKOAK

- 1.—QUE HAY, MARIA? (Maritxu Lopetegi. Aguerre baserria. Loiola. Azpeitia).
— KUTXAN GARIA. 1952.urtean.
- 2.—ORIXE LITZAKE GURE GOIZEKO IZARRA! Nuestra ilusión, sueño dorado. Azkoitian.
- 3.—ORI DEK MAUKA! Qué suerte. Qué ganga! (Lopez Mendizabal)
- 4.—PASIERAKO GIRO ONA?
— BAI, LANERAKO ORDEZ. Loiola. Azpeitia.
- 5.—ORAIN UTSIK NAGO. Estoy desocupado. Azpeitia.
- 6.—OBRERUA BEIA JOTA DAGO, JORNALAK EZ DU ALTURA JOKO, OR DAGO LAÑUA. Inspirar temor. Zumarraga.
- 7.—LEEN PARRE BAZAN, ORAIN PARRE TA ERDI. Si antes ridículo, ahora ridículo y medio. Si antes mal, ahora peor. Azpeitia.
- 8.—URAK ERRENDITZEKO ERRETENAK EGIN BIDE BAZTERRETAN. Para canalizar... Anaia Zeberior esana. Loiolan.
- 9.—GIZON BAT IGARRAGOA! AIZE BOLARA BATEK ERAMANGO ZU-
KEAN!
Loiola. San Pedro baserrian. 1952-VII-31.
- 10.—AZKENAK ETA ZEUZKANAK JOKATU. Jugar hasta el último céntimo. Poner toda la carne en el asador. San Pedro baserrian. 1952-VII-31. Loiola.
- 11.—OSO BIZITZEKOAK DIRA ORTAN BEOIEK (jesuitak). Longevos...
San Pedro baserrian entzuna. Loiola ondoan.
- 12.—KLASE TXARREKUEK OMEN DIRE AUNTZE, ASTUE TA EMAKUMIE (aurrera bultzatu ezker atzeraka asten direlako). "Uxarro" azpeitiar mutil gazte batek Loiolako atarian parrez nexka batzuei esana) (1952-X-12).
- 13.—AU DEK PIPIAK JOTZEA! Qué fastidio! Azpeitiar batek Azpirozko "paso a nivelen" luzaro itxoitzen egon bear zuelako.
- 14.—ARRI AZPIKO SUGIE BAINO PETRALAGUE GIZONA! Mari Olatz Zubizarreta. Loiola. Errementeri baserria. 1952-X-12. Peor que...
- 15.—AU, ORI TA BESTE IZENTATZEAN (lista pasatzean) Bizkaiko erriren batean "BANTZUT" erantzun oi omen da, "presente" bezala. (Ba dantzut = ya oigo) Ala dio Aita Plazido Muxikak. 1957-XI-11.
- 16.—DIRU AUNDI-DUNAK. Ricachones.
DIRU AUNDIE EGIN DU.
DIRUTUTA OMEN DAGO ALAKO URA. Zerain. Gipuzkoa.
- 17.—NAIZU-NAIZUAN DAGO ALAKO GAUZA AZOKAN, Hay mucha oferta. Abunda mucho.
- 18.—NAI DEZU, NAI DEZU? Mucha oferta. Aita Plazido Muxikak Jaurtalkoli-
Urrestillan entzuna. 1957-XI-11.
- 19.—PENTSAMENTU ORI OSO ZEUKAN ARTUA. Idea muy metida. Azkoitia.
- 20.—ASTUE MERKIENA NUN? ILARGIKO PERIAN. Ijitoek ilargian astoak erosi edo lapurtu egiten dituztelako, merke, merke. Loiola. 1953.
- 21.—BAT ERE OLAKORIK GABE NIJOAN, EIA... Iba sin pensar en tal cosa. Despreocupado. Ajeno a ... Loiola. 1953.

22.- IK, MOTEL, AOTIK AITZEN AL DEK? Estás sordo? M. D. Urbietta. Loiola.

23.- ORREK DAUKAN LANERAKO IRRIKIZIOA!

Afán. M. D. Urbietta. Loiola.

24.- GAIZKI EGINDAKO ZAKU-PATATA EMATEN ZUEN GIZON AREKI!

M. D. Urbietta. Loiola. 1953.

25.- JO TA SUDUR-MINTZA PUSKATUKO NIOKEI- Maria Olatz. Loiola. 1953.

26.- Aita BISILIOK GAUR ANDEL-ENAK BOTA DITU SERMOIAN. Hablar claro. Cantar las cuarenta. María Dolores. Loiola. 1953.

27.- ILLUN NAASTUAN GERTATU ZAN! Sucedió al anochecer. Cuando las cosas se ponen borrosas. Loiola. 1953.

28.- ZOMORRO-PINTO. Un fantasma. Julián Zuraitza. Azpeitia. 1953-X11-26.

ZAMORRO-PINTTOK IRTENGO DIK.

TXOMIN-EK IRTENGO DIK. Constantino Seguro. Azpeitia.

MOZOLO-PINTO ETORRIKO ZAIK.

MOZOLO-PINTOK ARTUKO AU! Zerain-en esan oi zaio logureak buruzabuka, ta alare oeratu nai ez duan nexka-mutikoari.

OR DEK. OR DEK, PINITO OR DEK.

PINITO DU ORREK. Loak arrapatu duanean. Zerain. **Pinto**, beraz, **LOA** da, **HIPNOS**, el **SUEÑO** personificado.

ASPER EGINDA NEGOAN, ZE ASPER? ASPER ETA PINTTO ERE BAI. Don Pedro Etxeberria. Errezil. 1953. (Don Pedro apaiza).

29.- NESKAMEARI TREBEDEA esaten diote Naparralde batean. (Aita Zubiaga).

30.- ZERGATIK SAGARRA KENDU ETA PINUA ALDATU, GIZONA?

SAGARRAK EZ DAUKA GOGORIK. Azkune-azpikoa. Loiola. 1953.

31.- GAIXOATASUNAK AUSI AUNDIA EMAN DIO. Le ha quebrantado mucho. (Loiola. Azpeitia. Turbina-koak).

32.- GAUR SIESTEARI BARKATU EGIN BEAKO DIOZU. Dejar la siesta. Loiola.

33.- BAI, ORI LIXEAN OSO MAITTE IKUSTEN DUTE. Le quieren mucho. Lo ven con buenos ojos. Loiola. 1954.

34.- GAIZKI IRUDITUTA NEGON. Estaba equivocado... En un error. Loiola.

35.- NERE SEMEAK OSO KAZTUNAK DIRA. Son muy aplicados. Loiola.

36.-TXIRIKARTETIK BEGIRA ZEGOK. Celosía. Rejilla. Kanpaxa, Azpeitia.

37.- **Jaungoikoak bialtzen ditu TIKI-TAKAK dira oiek.** Golpes o pruebas. Loiola.

TTAKA-egiten zaio. Le dan ataques. Arizkun. Baztan. 1957.

38.- BAI, NESKA ORREK MUTIL ORRI ARGI EGITEN DIO. Le recibe con alegría. Con buen semblante. Le pone cada sonriente. Azpeitia.

39.- ARNASA BOTA DU. Entrar en calor un deportista. Ponerse de temple. Reaccionar. Azpeitia.

40.- TXOLOTEAN JOKATU. Jugar a canicas. (TXOLOTA = agujero). Elgoibar. PLOTTEAN JOKATU. Zerain. Gipuzkoa.

PLOT EGIN. Kanika edo intxaurra zuloan sartu. Zerain.

41.- IZERDI I LEN GAIA I OA DAGO ORI. Lo contrario de "IZERPERA". Loiola.

42.- BAI, ORREN DOOLA LANERAKOA IZAN DA. Su temperamento. Su inclinación. Anaia Egia-k. Loiola.

43.- GOIA ARRAPATU. EUTSI GOIARI. Descollar, prosperar. Azpeitia.

- 44.- (Egur) BURUZKIA ERRE DEGU. La parte gruesa entre el tronco y el arranque de las ramas. Azpeitia.
- 45.- EMAKUME MOZKOTE TORROPOTON BAT. Regordeta y bajucha. Mendaro.
- 46.- DENDA ORRETAN KONTURATZEKE BOSDUROKOA JORRATU DIDATE. Robar, Azkoitia.
- 47.- UMEAK BEREZ BEREZ JAINKOAREKIN ITZEGITEN DUTE. Sin artificio, espontáneamente.
- 48.- OKERRA SORTU. Producirse un siniestro.
UMEAK SU EGIN, ETA AIZEAK OKERRA SORTU.
AITA GURE BAT. BIDEAN OKERRIK SORTU EZ DAITEN. Para que no tengamos accidente en el camino. Azkoitiar txofer bati entzuna.
- 49.- AIZE ORI JARRI ZITZAIION BURUAN. Se le metió eso en la cabeza. Tema, temoso. Kandido Arrue. Azpeitia.
- 50.- EZ UR ETA EZ GATZ. Ni fu ni fa. Insustancial. Loiola. Katalangua.
- 51.- PENTSAMENTU LEGORRA DA ORI. Utopía. Sin contenido real. Zerain.
- 52.- Emendik aurrera EGUZKIAK EZ GAITU ASKO PENATUKO.** MOlestar. Legazpia.
- 53.- GALDU-GORDEAN JARTZEN GERANEAN.
GALDU-GORDEAN JOKTZEN DUGUNEAN. Mendaro. cuando jugamos a vida o muerte.
- 54.- AREK BEREARI ELTZEN DIO. Se aferra a lo suyo. Azpeitia.
- 55.- Orrek soiñuak ditu txarrak.** Tiene mala fama. Azpeitia.
- 55.- **Ezurrak askatzeraino nekatu.** Fatigarse muchísimo. Azpeitia.
- 56.- Ez Jesus eta ez amen.** Sin saber qué hacer. Azpeitia.
- 57.- Etxe orrek abea du.** Tiene algo congénito, hereditario. Oñatz. Azpeitia.
- 58.- Ni bakarrik nagusi, bestela muturrak ausi.** Dictador.
- 59.- Orrek artu du ganbarakoa!** Golpe en la cabeza. Azpeitia.
- 60.- Orrek ogei urte? Bai, zera. Buruko kalbiek ez dio kalterik egin-go, ogeitamar ere badauzka-ta.** Que se lo crea su abuela. A otro con ese cuento. Azpeitia.
- 62.- **Lurreko gauzek biotza asko eskatzen dute.** Forzar, atraer. Azkoitia.
- 62.- Lorik ezin ekarri.** No poder conciliar el sueño. Loiola.
- 63.- Bai, ortarako apaiñak gaude!** Buenos estamos. Lasao, Azpeitia.
- 64.- Txoritegiko aitzetan egon.** Estar en babia. "Txoritegi" Zeraingo aitz bat da.
- 65.- Etxe orretan baliakizun gutxikin gelditu dira.** Con pocos recursos. Azpeitia.
- 66.- Bideak an itzul-bildur aundia du.** Gran peligro de que vuelque (el carro). Zerain.

Agerretxo
Iñaki Goikoetxea S.J.

Oarra: Lan au BIA'k (Bizkaiko Idazleen Alkartek) eratutako leiaketa batera aurkeztu zan. Gure eskerrak BIA'ri, bere baimenagaitik)

(Urrengo zenbakian jarraituko dau)

ESAERAK ETA EZAUPIDEA

Esakerak ez dira ezaupide barik sortzen. Origaitik askotan zerbait jakin bear ulertzeko.

Ara iru edo lau, itxastarrenak:

AMU FRANTZESA BAIÑO OKERRAGO.

Okerkerietan sarri ibili edo aundiren bat egiten dabenagaitik esaten da. Zegaitik?

Ara: Arrantzaleak zelako arraiñetan ibili alako amuak erabilten dabez.

Baiña amu orreik kakotzean nekazago askatzeko, edo ta aurretan jaten ausartzen dana sendoago arrapatzeko, frantzetarrak amuen puntia albo batera okertutakoa erabilten asi ziranean, amu orreik famatuak izan ziran. Ortik esaera: Amu frantzes a baiño okerrago.

POBRIE NAI ABERATXA IZAN, ATZEKO LATIÑETIK EGIN BEAR

Len arrantzalien txalopetan ez euken "komunik". Ontzietan atzeko bela edo aize-oiala egoten da, "latiña" izenez ezagutzen dana. Erderaz "vela latina". Jakiña bere aga ta guzti. Eta giza edo soiña estu edo larri jarrean bakoitzaren zeregiñak latiñaren albo edo atzetik "kukulumutxu" jarrita egiten ziran. Ortik dator esaera.

Beste batzuk onela esaten dabe: TXALOPETAN PATROIA NAI TOSTARTEKOA IZAN, ATZEKO LATIÑETIK NASAITU BEAR.

EZPETAK ZABAL IBILI.

Ezpetak txalopek alde banatan kareal ondoan kokatzen diran euskalipus osto luzeak izaten dira, atunkiei euretatik aparixuak zabaldu eta luzatzeko. Eta iñoiz arrantzale bat arro-arro eskuak zabal ikusten diren batzuketatik esaten da: EZPETAK ZABAL DABIL ORI.

DRAGIAK BAIÑO GOSE GEIAGO.

Dragia kaia garbitzen edo bertako ondarrak eta basak kentzen ibiltan dan itxasontzi berezia da. Beti batzen dabillanez, gosetia dala esaten da. Ortik dator esaera.

ESALDI JATORRAK

Asmo orrek BERERIK BAT OTE DU GERO.

—Ez det uste BERERIK BA'DUANIK

—Erabatu sendatuta?

—OBETO NAGO, BAIÑA ORAINDIK EZ NAIZ ERABAT TAJUTU.

—BEGI-ZEARKA begirutzen du.

— ALA-OLAKO gizalkiak diridite.

—BIZKAIZ-BETIK eta BIZKAR-GAIÑETIK..

—Joxe BURUTIK ARINTZEN ASI OTE DEN..

—Zer ba?

—Atzo, kalean zeart bakarrik zijoala, BERE BURUAREKIN IZKETAN IKUSI
NUAN.

—Iya konturatu GABETANIK.

—BEREALAKO BATEAN iritxi zan.

—Erriaren INGURUMAYETAN ibiltzen zan.

—JAI OORDUKO ama il zan.

—ORAINDIK ORAIN..

—BAZTERRIK-BAZTER zebillen.

—BATEK BA-DAKI BOST.

—EGUN ORRATZEAN JEIKI.

—Beste ZERNAITARAKO

—Ez daki gutxi ONOKO ORRETXEK!

—BURUTIK EGIN ZAIK!

—ARA BESTE ARGI-ITURRI!

— Au da GAZTAREN EDERRA!

—MENDI-EGATZEAN abereak larrean.

—Auetxek AO-BETEKOAK!

—ITZ-ASPERTU BAT EGITERA NATOR.

—Isats KIRI-BILDUAN MUTURRA SARTURIK.

—Eguerdi GALDATAN.

—Arroak ALENK EZ BESTERENAK...

—GOIZ-BERANDUKO IZARRA dirudi.

—GOIEN-ADARRETA KO LOREAK BILDU.

—ZEREKO ZER DENAK JAULKITZEN DIZKIT.